



• *eus*
Jakin 207

herria kultura hizkuntza martxoa-apirila
2015

Sarrionandiaren nazioa

Joxe Azurmendiren arabera

Zer da nazioa galdetzen dugun aldiro zer da Euskal Herria galdetzen ei dugu. Eta Sarrionandiarentzat nazioa izate bat baino egite bat da. Ondorio horretara iritsi da Joxe Azurmendi, Sarrionandia «egitearen filosofoa» dela, haren *Moroak gara behelaino artean?* saiakeran nazio kontzeptuaren atzean zer dagoen arakatu eta gero.

EUSKARA UNIBERTSITATEAN

Unibertsitate ereduaren aldaketaren eragina irakasle euskaldunen hizkuntza jarretetan
ANE LARRINAGA · MILA AMURRIO

Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan:
datuak, galderak eta erronkak
KARMELE ARTETXE

EGUNEN GURPILEAN

NAGORE AMONDARAIN · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin^{•eus}**207**
herria kultura hizkuntza martxoa-apirila
2015



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Sarrionandiaren nazioa

11 Sarrionandia: nazioaren kontzeptua behelaino artean

Joxe Azurmendi

Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* saiakerak jorratzen dituen gai anitzen artean, nazio kontzeptuaren inguruko gogoetak aztertzen ditu Joxe Azurmendik, bere *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* liburuko tesiekin eta kontzeptu horren inguruko beste hainbatekin uztartuz: historiaren filosofia, herria, nazioa, identitatea, nazio kontzientzia, estatua, independentzia, utopia...

GAIK Euskara unibertsitatean

69 Unibertsitate-eredu aldaketaren eragina irakasle euskaldunen hizkuntza jarreretan

Ane Larrinaga • Mila Amurrio

Unibertsitatearen nazioartekotzeak ezkutuko curriculum gisa jardun dezakeela erakusten da, eta, ildo horretan, irakasle eta ikertzaileen lanbidea ulertzeko eta gauzatzeko moduak baldintzatzen dituela, irakasle horien hizkuntza hautuak barne. Lanbide identitate berrien inpaktu linguistikoa argitzeko, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile euskaldunen identitate akademiakoak aztertzen dira, euskararen erabilerari dagokionez.

93 Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak
Karmele Artetxe

Goi mailako euskarazko produkzio zientifiko-teknikoaren zenbakizko deskribapen labur bat egiten da. Azken hamarkadetan esparru horretan egindako lorpenak aipatzeaz gainera, zenbait puntu ilun mahaigaineratzen dira. Hori guztia gaur egun euskarak esparru unibertsitarioan bizi duen azpi-instituzionalizazioaren ondorioztat hartzen da.

EGUNEN GURPILEAN

117 Kultura
Nagore Amondarain

123 Ekonomia
Henrike Galarza

129 Soziolinguistika
Txerra Rodriguez

135 Telepolis
Gorka Julio

KONTRAZALA Unai Iturriaga

SARRIONANDIA'S NATION

Sarrionandia: the concept of nation in the fog

Joxe Azurmendi, writer and emeritus lecturer in Philosophy, analyses the reflections made by Joseba Sarrionandia about the concept of nation in the essay *Moroak gara behelaino artean?* (Are we Moors in the mist?), putting together ideas that Azurmendi himself has developed in his book *Historia, arraza, nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk* (History, race, nation: Renan and other clichés about nationalism) and another series of key concepts related to it: history and philosophy of history, people, nation, identity, national conscience, state, independence and utopia, etc. [Joxe Azurmendi](#)

THE BASQUE LANGUAGE IN THE UNIVERSITY

Influence of the change in university model in attitudes of Basque-speaking lecturers towards language

The sociologists Ane Larrinaga and Mila Amurrio argue that university internationalisation may act as a hidden curriculum and that, in that sense, it conditions the ways of conceiving and pursuing professional tasks performed by lecturers and researchers, as well as their language choices. With a view to ascertaining the linguistic impact of new professional identities, the authors analyse the academic identities of Basque-speaking lecturers and researchers at the UPV/EHU regarding use of the Basque language. [Ane Larrinaga](#) • [Mila Amurrio](#)

Sub-institutionalisation of the Basque language within the academic sphere of activity: data, questions and challenges

The historian Karmele Artetxe provides a brief quantitative description of high-level scientific-technical production in the Basque language. Beyond highlighting the achievements made in this sphere of activity in recent decades, the author refers to the existence of several dark areas as a consequence of the sub-institutionalisation experienced by the Basque language within the university environment. [Karmele Artetxe](#)

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. [Various authors](#)

Joxe Azurmendi eta Joseba Sarrionandia. Edo Sarrionandia, Azurmendiren begirada pean. Edo, Renan eta moroak. Behelainotan. Behelainotan ibiltzeko, bide bat markatu digu maparen gainean Joxe Azurmendik, Joseba Sarrionandiaren nazioaren bila ibili eta gero, zenbaki honetako artikulua nagusian. Lan interesgarri eta eder honetan, Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburuaren kartografia osatzeko, Azurmendik berak berriki idatzitako Renan filosofoaren «nazio kontzeptuaren gezur interesatuaren» gaineko saiakera hartu du makulutzat, Sarrionandiaren nazioaren egia argira ateratzeko.

Azurmendiren hitzetan, liburu harrigarria da Sarrionandiarena, «arazo zailei buruz liburu zail bat irakurketa errazekoa». «Esperimentu bat» da, arazoei goitik eta behetik, urrundik eta bertatik so egiten diena. Idazle durangarra ez da propio nazio kontzeptuaz ari saiakera horretan, baina ia inon zuzenean tratatu gabe, nazioaren kontzeptuak orrialde gehienak zeharkatzen ditu, modu sutil batean bada ere.

Sarrionandiak nazioa ez du kontzeptu huts, akademiko eta araztean hartzen, baizik eta guztiarekin saretua, eta esperientzia pertsonal eta kolektibotik pentsatua. Eta horixe da, Azurmendiren esanetan, haren lehen lezioa: nazioarekin daukagun arazo behinena ez dela kontzeptuarena, nazioa kontzeptu bat baino sentimendu bat dela Sarrionandiarengan, bizipen eta interes propioek zurkaizten dutena. Eta hizkuntzaren arazoarekin errotik bat egiten duena, eta literaturarekin azaldu ahal dena. Eta, gainera, sinonimo izateraino edota nazioaren ideiak berak barnean irensteraino, estatuaren kontzeptuari lotua ageri dena. Eta, gehiago: Sarrionandiaren nazioak humanitatearen kontzeptu bat dakarrela barrenean, eta norbanakoa eta komunitatea inplikatzeko dituela; eta gizatasun horretan, elkartasunaren eta gizartearen ideia propio bat formulatzen duela.

Hori dena da Sarrionandiaren nazioa, Azurmendiren begietara. Azken finean, zer da nazioa galdetzen den aldiro, zerbait zehatzagoa galdetzen ari garela dio Azurmendik. Sarrionandiaren kasuan, zer da Euskal Herria? galdetzen ari gara, Renanek qu'est-ce qu'une nation? galdetzen zuenean zer da Frantzia? galdetzen ari zen bezalaxe.

Sarrionandiari, azken finean, zer gara baino zertan ari gara da interesatzen zaion galdera. Eta horregatik dio Azurmendik, izatearena baino, «egitearen filosofoa» dela durangarra. Eta egite horretan txertatzen duela behelainotik ekarri duen esperantzaren gramatika hori.

Bernart Etxepare eta Ismael Larrea. Edo Sarrionandia, Unai Iturriagaren begirada pean. Izpegiko gainean elkartu ditu, 400 urteko itxaronaldiaren ondoren, Etxepare eta Ismael Larrea *moroa* (Sarrionandiaren alter egoa) Kontrazaleko artikulua grafikoa.

Euskarazko ikerketa eta irakaskuntza unibertsitatean zertan aldatu den azaltzen dute ondorengo bi artikuluek. Ane Larrinagak eta Mila Amurriok unibertsitatearen nazioartekotzeak euskararen hautuan eragina izan duela azaltzen dute. Eta Karmele Artetxek euskarazko ikerketa bigarren mailakotzat hartzen dela ondorioztatu du.

Bukatzeko, *Egunen gurpilean* sailean, Nagore Amondarainek artearen *elikaduraz* idatzi du, Henrike Galarzak TTIP nazioarteko merkataritza hitzarmena hartu du aztergai, Txerra Rodriguezek azkenaldiko ikerketa eta mapa soziolinguistikoei bota die begirada, eta Gorka Juliok euskara eta teknologia uztartzeko dekalogo bat osatu du.

SARRIONANDIAREN NAZIOA

- 1 1 Sarrionandia: nazioaren kontzeptua behelaino artean
Joxe Azurmendi

Sarrionandia: nazioaren kontzeptua behelaino artean

■ Joxe Azurmendi

Idazlea eta EHUKo Filosofia irakasle emeritua

Zergatik da Sarrionandiaren liburua, *Moroak gara behelaino artean?*, nahaste-borraste totala mila eta bost arazorena, «puzzleko zati txiki antzera»?¹

Inpresionantea baita errepasatzen dugun gai pila: Sarrionandia izeneko misiolari frantziskotar baten biografia eta gorabeherak (arbasoen arteko ahaidea, antza), ordenako anaia baten plagioaren kontuak, Marokoko eskualdeak eta herri edo nazio diferenteak, arabiarren eta berbereen diferentziak, zer den geografia eta mapen esangura politikoa eta atzean dauden ideologiak, estereotipo sozial eta arrazialak ('moroa'), hiri eta landaguneen eta klase sozial eta nazionalen kontrasteak, arabiera, boterea eta hizkuntza eta erlijioa, zapalduen amazigera kasi galdua eta gramatika eta dialektoak eta hiztegiak eta tradizio literariorik gabeko hizkuntzan idazteko zailtasunak, ahozko poesia, intelektual kolonizatua eta erregistro linguistiko ezberdinen korapiloak, Ipar Afrikako hiriak eta eskualdeak (bertan ibilitakoaren detaileentzako mainaz aipatuak), Berberriako piratak, kolonialismoa, kolonialismoa eta euskaldunak, inperialismo frantses eta espainolen terrorismoa, gerraren basakeria, nazioa, Estatua, Tubalen mitoa, Tubalen mitoaz burlatzen diren euskainoltxoak, boterearen

eta dominazioaren gramatika, emigrazioa, literatura handia eta txikia, euskara eta euskara batua eta literaturaren modernizazioa eta amazigeraren problemak modernizatzeko, karlistadak eta Asturiasko iraultza eta 36ko gerra zibila, gerrilla, gerra kimikoa, lekukotza literarioak eta filmak behin eta berriro, islamismoa, sinesmenaren kontraesanak, mono-teismoaren kritika, moralaren arazoak. Izen ezagunak eta sekula entzun gabeak nahas-mahas, Arana Goiri eta Abdelkrim eta Frantz Fanon, Primo de Rivera, Franco, Franco Afrikan, Franco Asturiasen, Herder eta Hegel eta Pedro Mari Otaño elkarren konpainian, Walter Benjamin eta Zabaleta Leitzako soldadu bertsolaria. Anekdotarik konkretuenak eta kontzepturik abstraktuenak batera. Biolentzia legitimoa eta bortxa, etika, erlijioa. Filosofia topatzen dugu, filologia, soziologia, historiari buruzko gogoetak, politikari buruzkoak, grafiari eta kaligrafiari buruzkoak. «Este libro inacabable y meándrico» esan du Jabo H. Pizarrosak erdal itzulpenari buruzko iruzkinean. «Meándrico» hori gustatu egin zait. Sarrionandiaren saioa, han-hemen ukitzen dituen gai guztietan lurra drainatuz eta, ehunka orritan, milaka oin-oharretan, sedimentu karga baztergabea bilduz dihoa azkeneko itsasora. Ibaiko belautzi baten erritmo patxadan doa behera. Ez dakigu nora garamatzen, gozamina da narratzaileak bere gogara eraman gaitzala uztea, ia pasibitatean, kontu kontalariaren kontuekin limurturik edozein kapitulu eta ataletan, inora gindoazenik ahaztuta.

Liburua irakurketan hoteletik irten eta kasbara («alkazabara») sartuz hasten gara –Tetuanen edo?–, Ipar Afrikako eguzkiaren argitasun beteko kale meharretan gora. Mundu exotiko bat guretzat. Hurrengo orrian, ordea, Garaziko neskatala batekin trixexten gara, Ipar Euskadin, euskara garbian mintzo dena bera, gramatkarik ez omen dakiena; eta segida-segidan autorearen haurtzaroko pasadizo bat –«haurtzaroa da pertsonaren aberria» notatxoarekin aurretik, eta aberri hitzak ja arazoaren erdian jarri gaitu–.

Laidako hondartzan, señora batek hiru ume baserritarri esaten umeok itsasoa lehenengoz ikusi zuten arratsaldean: «¡Pero

niños, por qué no habláis en cristiano!». Umeen artean ondo banatu zen lotsa eta zatitu zen mututasuna. Boterearen mihigaiztoak blusa horia zeraman egun hartan eta perlak belarritako. «Espainolez eitteko esan gure ixen dau!».

Perlak, laster agertuko zaizkigu gehiago historia sinbolizatzen (eta historia boterea da). Gramatkarik ez dakien euskalduna. Kasbako isiltasunaren gramatika. Bila gabiltzan gramatika. Haurtzaroa. Arrif eta Pedro Hilarion Sarrionandia frantziskotarraren habitua, Euskal Herria eta Joseba Sarrionandia idazle esiliatuaren maskarak. Berehala, itxuraz zerikusirik gabeko oin-ohar urrutiko batek, «giza zientzietan [...] zientziaren objektuak aldi berean zientziaren subjektuak dira» ikasarazten digu. Eta?... Kontakizun historikoen objektibitate arauaren asuntuz oroitzen gara. (Objektiboa ala subjektiboa da historiaren irakurketa iraultzaile bat?). Nazioaren ezaugarri objektibo eta subjektiboez gomutatzen gara orobat. Ezaugarri objektiboak subjektiboak izaten direla alegia, eta viceversa, subjektiboak esaten direnek –kontzientzia, nahialio objektiboa dutela. Liburuaren objektua autorearen bera izango dela, edo geu izango garela. Uholde zabalaren gainean zubi arkuak eginez, liburua geroz eta biografikoago bihurtuko da azken aldera, gaztaroko biografia literarioa batik bat (526-528, 531 eta hurr., 539-540; 699: «Neure igarotze-erritua hasi naiz aipatzen»), eduki sozial eta politikoaren iceberg ton-torra ere agerianago goititzen dela behelaino artean.

Tamainagatik eta kapitulu bakoitzak itxuraz duen autonomiagatik ere, tentazioa eman lezake liburua atal banaka irakurtzen ibiltzeko. Okerra. Lauzpabost liburu batera baka-rean idazteak buruhauste eta soluzioen bilaketa ezohikoak

Nazioaren ezaugarri objektibo eta subjektiboez gomutatzen gara. Ezaugarri objektiboak subjektiboak izaten direla alegia, eta viceversa, subjektiboak esaten direnek balio objektiboa dutela

planteatu dizkio autoreari. Lauzpabost kontakizun diferente adastuz, nobelako estiloa eta ikerketa artxidokumentatua konbinatuz. Han lagatakoa hemen birrartuz, hari diferenteak trentzatuz. Liburu harrigarria da. Arazo zailei buruz liburu zail bat irakurketa errazekoa, Bachen konposizio garden baten eran ehundua, izugarri aberatsa, konplikatua, mila gaien bide luzea berekasetara ibili eta bidean bidea nola irakurri irakasten diguna tenore berean, oin-oharrak lagun (subjuntiboaren menperatuentzako inportantziaren oharra, esaterako, 1.075.a). Zergatik da liburua mila eta bost arazoren nahasteria?

Ez dago nahasteriarik batere! Testuaren ibilerari antzeman ez zaion artean bakarrik ematen du hori. Dagoena esperimentera da arazoei goitik eta behetik, urrundik eta bertatik, alde guztietatik eta tenperatura ezberdinetan elkarrosagarriro soegitekoa, bikain bururatua. Esaterako, ez da propio nazioaren kontzeptuaz. Baina nazioaren kontzeptua eta nazio arazoa nola, kasi zuzenean inon tratatu gabe, orrialdeak zehar sakon eta luze tratatzen den, liburuko abilezia subtil askoetako bat da. Gauzak eta arazoak euren testuinguru osoan ikusi behar dira. Horrela ez da saioaren merezimendu txikiena nazioaren kontzeptua, praktikan, ukitzen dituen gai guztiekin saretua egiaztatzen dela ikusaraztea. Ez kontzeptuan, baizik *in actu*, gertarian, hautematen dela zer den egiaz nazioa; horren tragedian, askotan. Ondorioz, kontzeptuarena ez dela nazioarekin daukagun arazorik behinena, ikasten dugu hasteko, eta ez duela ezer laguntzen, eskola orduetatik landa bederen, hura isolatuki eta aseptiko miatu gura izateak. Nazioaz beti ikuspegi pertsonaletik –esperientzia pertsonaletatik, interes pertsonaletatik– jarduten dela ikasten dugu halaber. «Zer da nazioa?» itauna funtsean zer da Euskal Herria? izaten dela euskaldunarentzat, zer da Frantzia? Renanentzat. Borroka eta gerra artean hozitu izaten dela kontzeptua –sentimentuarekin: beraz, kontzeptu bat baino, sentimentu bat dela–. Hizkuntzaren arazoarekin bategin ohi duela gehiengutan (edo beti, moduren batean), literaturarekin txibistatua ibiltzen dela. Gaur egun, honezkero, Estatuaren kontzeptu

bat izaten duela itsatsirik, askotan sinonimoa bihurtzeraino, edo nazio kontzeptuaren esanahia berak irensteraino. Humanitatearen kontzeptu bat –gizatasuna, gizadia– inplikatzen duela (norbanakoaren tokia, komunitatearena, gure pentsaeran). Elkartasunaren eta gizartearen ideia bat. Historiaren filosofia bat gutxi-asko esplizitua suposatzen duela, filosofia horretan etzaten delako nazioen balioespena, etab. Ernest Renanen nire azalpena, adibidez, haren historiaren filosofiarekin hasi beharra izan dut nik, bestela *Qu'est-ce qu'une nation?*-en gaizkiulertuak oso erraz sor litezkeelako, sortu ere egin diren bezala.

Renan eta Sarrionandia

Lan honetako gaia Sarrionandiaren liburua eta nire *Historia, arraza, nazioa* komentatzea denez, bietaz nahaski mintzatuko naiz, tartean neure planteamenduak eta usteak ere sartuz. Sarrionandiak berak Renan izendatuki aipatu ez du lantzean behin baino egiten: 163, 380, 389, 404, 644, 651. Nolanahi ere aipagai nagusia Sarrionandia izatea tokatzen da hemen.

Renanen eta Sarrionandiaren nazio kontzeptuak diferenteak dira. Bien historiaren filosofiak ere diferenteak dira –eta historiaren filosofiarekin, kolonialismoaren, inperialismoaren, etab., juzguak ere bai, eta batentzat eta bestearentzat nazioek (edo arrazek) jokatzen dituzten rola-. Renanentzat historiaren subjektuak arrazak dira, Sarrionandiak arraza konturik ez du ezertarako aipatzen. Renanentzat historia garaileen martxa triunfala da Jupiterren tenplura Kapitolioan; Sarrionandiarentzat galtzaileen *via dolorosa* ematen du gehiago.

Renan: historia progreso bezala

Historia definitzen duena aurrerapena da Renanentzat, progresoa, zientziaren eta gizadiaren gorabidea. Renanek historiaren eta progresoaren metafisika estraino bat ere badu: kritikari eta zientziari eskerrak gizadia Naturaren joputzatik

eta superstizioetatik askatuz dihoa, geroz eta jantziago eta askeagoa, bere buruaren jabeago; hots, geroz eta espirituala-go. Historia gizadiaren Natura edo materia izatetik espiritu bilakatuz joateko prozesua da. Horrela gizadia bere burua Jainko bihurtzen ari da, Jainkoarekin ez baitugu besterik ulertzen Espiritu bat bere buruaren guztiz jabea baizik. Historia Jainkogintza da: gizadiaren literalki Jainko bilakatzea. Halako jarduera noblean dena razionala da, dena ongi dago eta ongirako da, gudurik krudelenak eta triskantzarik odoltsuenak, krimenak, erailketa edo zapalketarik doilorrenak, azkenaren finean denak helburu altu hartarako balio baitu, gizon-emakumeoi halakorik iruditzen ez bazaigu ere. Historia ez dugu gizon-emakumeok gure asmoen arabera egiten. Historiak, berak egiten du historia, bere Probidentzia propioaren arabera, eta andre-gizonok haren instrumentu itsuak besterik ez gara, askotan geure asmoen kontra. Instrumentu eginkorrenak Zesar edo Napoleon bezalako gizandiak dira,

Renan ez da
demokrata; aitzitik,
antidemokrata
deklaratua da,
jendeoste burumotz
ezjakinaren agintea
progresoaren
kontrarioa eta
irrazionala delako

erregeak eta despota ilustratuak, batez ere jakintsuak eta zientzialari gailenak, ez herrijende apal langilea. Historia ez du mundu guztiak egiten. Emakumeek, esate baterako, historia egiteko zereginetan ez daukate zerikusirik. Emakumearen egitekoa polita eta ona izatea da, ez besterik (inteligentea edo), eta debota izatea; hori, debota ez den emakumea ez da emakumea. Herri xumeak ere kolaboratu bai, baina historia egin ez du berak egiten.

Herriak, historian ibiltzeko, erregearen eta elite aristokrati-koen buruzagitza behar du; bestela «historia gabeko» herria geratzen da. Renan ez da demokrata; aitzitik, antidemokrata deklaratua da, jendeoste burumotz ezjakinaren agintea progresoaren kontrarioa eta irrazionala omen delako; eta, beraz,

historiaren kontrarioa. Masak ez du ongizatea eta konforta besterik bilatzen; ez du ideal handirik, eta gutxiago nahi du idealengatik sakrifizioak pairatu. Progresoak, baina, bere prezioa du: esklabotzarekin pagatzen da, gehiengoak egin beharra daukan lanarekin zientzialari gutxiak ikerketarako libre egon daitezen, nazio handiak handi-handiak izateko nazio txiki nahiz handi asko suntsitu beharrarekin, arrazen arteko gerra eta hilkarrekin; hots, historiaren basakeriarekin. Historia eta progresoa botereak egiten du. Ez edozein botere, indartsuaz gain adimendutsuak baizik. Holakoa botere zuria da soilik munduan.

Arraza zuriaren pribilegioa da zientzia egitea, Estatu erakitzea. Arraza zuri edo ariarraren pribilegioa da historia egitea, beste herri eta arraza guztiak historia gabekoak dira. Gizon-emakumeok ez gara denok berdinak. Gizateria arrazatan laurkitzen da: ariarrak, beltzak, horiak, hotentoteak, etab. Arraza horien artean, diferentzia fisikoez gainera (azaleko kolorea, etab.), ezberdintasun intelektual eta moralak daude, euren artean hierarkia bat ezartzen dutenak. Renanen sistematizazioaren arabera, giza arrazetan hiru herronka edo maila dago: behe-behean arraza behereak daude, h. d., Afrikako beltzak, hotentoteak, Sarrionandiak estudiatu dituen berbereak, Ameriketako indigena guztiak, Australiako aborigineak, etab. Horiek denak arras primitiboak dira. Ez bakarrik zeharo ezgauza dira kulturarik apalena ere sortzeko, ezpada besteren laguntzaz zibilizatuak ere ezin dira izan, kulturarik irakatsi ere ezin zaie egin. Jaun kolonialen morroiak izatea edo/eta esterminatuak izatea beste zereginik ez dago-kie historian. Bitarteko arrazena da bigarren maila: horiak, asiarrak oro har (txinatarrak, mongolak, etab.), kamitak, giziadiaren lehen zibilizazio handien sortzaileak. Gauza dira eztandatxo batean bezala zibilizazio harrigarri bat lorarazteko, baina berehalaxe agortu eta maskaldu egiten dira betiko. Loraldi espiritual labur baterako baino gehiago ez dira gauza. Historikoki antzuak dira, bestela arraza zurien menpeko eta zerbitzari gisa soilik egin lezakete historiarentzat inolako

ekarpenik. Akabuaren akaburako, bi maila horietako jende dena itsusia da: inork ez du pertsona hori edo beltz politen bat inoiz ikusi, naturaren kontrarioa litzateke. Edertasuna, izan ere, espirituaren espresioa da, eta bi arraza horiek espiriturik ez dute. Arraza ederra, arraza garaia, beste arrazen infinituki goitikoa, zuria da, gogo edo espirituaren monopolioa duena, eta ondorioz historiaren, kulturaren eta zibilizazioaren eskusiba ere bai.

Baina arraza zuria bi adarretan erdibitzen da: arraza ariarra (indoeuroparra) eta arraza semita. Biok osatzen dute gizadi historikoa, kulturala. Ez, ordea, neurri berdinean. Semitek, h. d., juduek eta arabiarrek, historia unibertsalarentzat erdietsi dutena erlijio monoteista da, eta hori eta poesia piska batekin ahitzen da haien ekarpen kultural guztia. Zientzian, filosofian, artean, gizartearen antolaketa politikoan eta bereziki Estatuaren eraikeran parte hartzeko ezgaiak dira euren naturaz. Ezgaitasun hori historian ikusi zaie behin eta berriro, eta, sakonago, euren hizkuntzaren baldarrean ikusten da, sustraitu ere hortxe egiten baita: hizkuntza semitek zehaztasunik ez dute, ez dira trebe kontzeptu abstraktuetarako, euren lexikoa 'materialista' da, eguneroko esperientziako gauzak baino ez dakite espresatzen, aditzak ez die pentsamenduaren josteta logikoa egiten uzten, haurren hizkera bezalako simple eta kamutsak dira. Bere hizkuntza bezalako baita herri baten espirtua, espirtu semita idorra eta txepela da. Ez dakite barre egiten, irudimenik ere ez omen dute. Euren ekarpena zibilizazioari monoteismoaren aurkikuntzara mugatzen da antzinatean (burumotzak eta irudimenik gabekoak direlakoxe egindakoa hori). Historian ez dute beste ezer eman antzinate hura ezker.

Nazioaren arlori etorri. Nazioak egon, pila bat daude Europan, Asian, Afrikan, Ameriketean. Baina kontu egiten bada Asia eta Afrikako arraza behere eta bitarteko guztiek historian ez dutela zipitzik kontatzen, nazio eslaviar guztiak mehatxu etengabea besterik ez omen direla zibilizazioarentzat, Ipar Amerika oso teknikoa baina inzibilizatua kontsideratzen dela

eta Ingalaterra berdintsu (hori noiz edo behin salbatu egiten da), Espainiak eta Italiak Inkisizioa medio espiritu apurrik ez dutela, etab., historiari eta progresoari begira aintzat hartzeko nazioak bi bakarrik geratzen dira munduan: Frantzia eta Alemania. Renanentzat biokin aski da, biok 'espiritua-ren bi aldeak' osatzen baitituzte erdi bana. Gizadia loriazko etorkizunerantz bideratzeko bi-biok dira beharrezkoak eta biak nahikoa. (Gogora, historia eliteek dagitela, eta eliteak, Frantzian hala Alemanian, arraza germaniar berekoak direla Renanen ustean). «Zer da nazioa?» galderak, hortaz, egiazki, zer da Frantzia?, zer da Alemania?, galdetzen du, eta Frantzian galdetzen du.

Alemaniak (Prusiak) birrinduriko Frantzian hain zuzen, eta hain zuzen ere Alemania horren aurka: halaxe asmatu dira 'nazioaren bi kontzeptuak'; hots, biak frantsesak dira, biak Frantzian asmatu dira.

(Ohartxo bat, bide batez, gauzak apur bat sinplifikatuz bada ere: behin eta berriro espiritu aipatzen ari gara. Espiritu edo Gogoa –alemanez 'Geist'– nolabait kultura da. Baina kultura bi eratan uler daiteke: produktua bezala, ekoiztua hor dagoen objektua, edo bere burua egiten diharduen subjektu bezala. 'Geist' alemanak batez ere bigarrena adierazten du. Kultura bere modu propioan garatzen etengabe diharduen herri edo kultura da 'Volkgeist' bat. Ez dago herriaren edo espirituaren metafisikarik, sozialtasuna eta historikotasuna baizik).

Historiari eta progresoari begira aintzat hartzeko nazioak bi bakarrik gelditzen dira munduan: Frantzia eta Alemania. Renanentzat biokin aski da

Sarrionandia: historia zabortegi bezala

Sarrionandiak historia ikusteko eta kontatzeko modu ezberdinak daudela errepararazten digu, gehienak komiko samarrak:

Historia modu kitsch edo biktimistan errepresentatzen da normalean. Alde batetik, museoak, urtebetetzeak eta monumentuak. Beste aldetik, biktimismoa. Memoria selektiboa, triumfalista edo autogupidazkoa. Baina ataurreko zabortegia da historia, ez dakizu hor zer dagoen ere (692).

Irakurtzen ari zarela ez dirudi, baina liburua, hemen ironiko, hor zorrotz, zuzenago ala zeharrago, zipriztinik altxatu gabe ere, eztabaida pila baten basatan mugitzen da.

Esan liteke *Moroak gara?*, besteak beste, historiaren filosofiko traktatutxo bat ere badela: Sarrionandiaren pertsonala historiaren filosofia (une honetan), eta haren Euskal Herriaren historiaren filosofia (literarioki konbinatuz biok eta baita gogoeta maila eta narratiba historikoarena ere), eta filosofia horretan bilduta erabiltzen dela nazioaren arazoa. Ez dago progresoaren euforiarik. Hitzaurretik beretik garbi uzten da historia zabortegi bat baino ez dela, «iraganak ate aurrean utzi digun zabortegi handia» (15). Liburuak ez du zabortegi horretako material batzuk arakatu besterik egingo, abisatzen zaigu. Orri pare bat geroago «ahalik eta kronologikoen kontatzen diren gertaera eta desastre bilduma» (18) gisa definitzen da historia. Desastreon artean injustizia eta gosea dago (kapitalismoa), garaileen harrokeria, bortxakeria eta bortxaren be-deinkazioa ezinbesteko justiziaren itxuran. Desastreen artean hamaika jenderen sakaila dago odoletan, hainbat nazio txiki edo apalagoren zanpaketa, hainbat kulturaren hondamena. «Historia, hizkuntzen kanposantua da» (414). Euskal Herriaren historiari begiratzen badiogu, «zabortegi bat da gure historia».

Sarrionandiak ez du uste horregatik etsi beharra dagoenik. Historia zabortegia da, baina «hortik ateratzen dugu dena, perlak eta adreiluak, emozioak eta borondatea» (509). Borondatea bera ere bai. Borondatea, izen horrekin ala besterekin, kontzeptu zentrala bilakatuko da Sarrionandiaren gogoetan: nahitaez historiaren barruan dihardugu, eta ikasi eta erabaki beharra daukagu nola nahi dugun jardun.

Erabaki eta borondate horren bila Sarrionandia historiaren meditazioan Walter Benjamin eta Hannah Arendten itzalean

sartzen da. Biak juduak eta biktimak. Azken batean historiaren meditazioa boterearen eta biktimen meditazioa da. Atariko zabortegian ageri-ageri dagoenez, «historian zehar, bortxa eta boterea nagusitu dira, justiziarekin edo justiziarik gabe» (466). Bortxaz nagusituriko botere orain nagusi horrek iraganaz ere nagusitu gura du, eta:

Historia ofizialean, progresoaren bilakaerari deitzen zaio historia. Oraingo nagusitasunak esplikatzen eta justifikatzen egiten den errelato kronologikoa da. Boterea duen jendeak kontrolatzen du iragana, legitimitate eta pribilegioak mereitzeko moduan. Baina progresoaren historia menperaketarena ere bada. Beti izan dira irabazleak eta galtzaileak, eta hala izango dira oraindik (503).

Progreso historiaren aurka, hots, status quo legitimatzen irakurketaren aurka, Walter Benjaminek lehentasuna txikizio historia edo anti-historia bati, egin ezin izan denaren historiari ematea proposatu du. Nagusiak baino beste arrazoi batzuegatik, arrazoi kontrarioengatik hain zuzen:

Menperatuentzat da historia beharrezkoen, menperaketa 'naturala' ez dela jakiteko. Jean-Jacques Rousseauk esan zuenez, menperaketa 'soziala' eta 'historikoa' dela igartzeko. Irabazleen historia unibertsalaren saihetsean, menperatuek derrotatuen aurpegiak ikusi eta izenak entzun behar dituzte, horren beharra dute, lozorrotik aterako badira. Belaunaldi bakoitzak aurreko belaunaldi derrotatuetan begiratu behar dio bere buruari, menperatzaileen oraingo eta betiko dotrinak eta gizarte mekanismoak analizatu eta baloratu ahal izateko; nagusien 'demokrazia' edo 'askatasuna' zer menperatzen oinarritzen den, eta subalternoen isiltasuna zer derrotetatik datorren jakiteko (503).

Euskal Herriaren egiazko historia ez da heroien eta santuen handitasunarena –Elkano, San Inazio–, horien subalternotasunarena baizik, eta menpeko herri langile anonimoarena.

Zientzia den hainean, historiak objektiboa izan behar duela, ziurretsi ohi zuten historiaren profesionalek. Santi Leonék, historialaria bera, nazioaren historiari objektibotasun itxura ematen diona Estatua dela, ohartarazi du ironia polit gutiz objektiboz. Boterea dela, esango luke Sarrionandiak, eta

historiaren ezagutza objektiboa, h. d., zerbait positibotarako balio duena, ez datzala gertariak «izan ziren bezala» kontatzean, «baizik gizakiak arrisku momentuak izuz oroitzen dituen moduan sumatzea[n] lehenagokoen bizitza». Izan ere:

Historiaren kontzientziarik gabe, galtzaileekiko enpatiarik gabe, botere egiturak 'naturalizat' hartzen dira, eta ezinbestekotzat. Konformismoaren bidetik, derrotatuak berez bezala bihurtzen dira menperatzailearen erreminta [...]. Memoriarik gabeko herria ez da espazioan puntu kardinalak gabe dabilen mamua baino (504).

Walter Benjamin

Benjaminengan pausatzea merezi du: «*victrix causa diis placuit, sed victa Catoni*» (bere buruaz beste egin du azkenean Benjaminek ere).

Benjaminen begikerako harrigarriena ez da Ranke eta historiografia klasiko kontserbazaletik –akademian nagusitik– lotsa handirik gabe aldaratu izatea, ezpada, bera iraultzailea izanda, teoria iraultzaile klasikoenarentzat (marxista) erakusten duen kritika esplizitua; nolabait, Iraultzaren iraultza.

Benjaminek
gure ikuskeran
protagonistatzat
galtzaileak hartzea
proposatzen du.
Sakrifikatuentzat
izatea gure begiak eta
sentimentuak

Iraultzaren teoria marxistan, XIX. mende guztian bezala, historia progresoaren gorabide gisa ulertzen da, eta goranzko maila bakoitzean protagonista beti (klase) irabazlea izan da eta izango da, historiaren azkeneko judizio egunean noizpait proletargoaren garaipenarekin askatasun, berdintasun eta haurdetasuna zabal dadin arte. Anarteraino galtzaileak progressoa kos-

tatzen den prezioa dira. Benjaminek, aldiz, gure ikuskeran protagonistatzat galtzaileak hartzea proposatzen du. Sakrifikatuentzat izatea gure begiak eta sentimentuak. Ez erruki eta karitate kristauagatik, iraultzaren arrazoiagatik baizik.

Hainbeste gizatxarkeria, sarraski, zanpaketa, injustiziaren aurrean «indigna gaitezen» (S. Hessel), gure «emozioak eta borondatea» suhar daitezten, iraultzari oraintxe bertan ekiteko. Historia progresoaren eta progresoa irabazleen lana bezala kontzebitzea nagusiari arrazoi ematea da: «oraingo nagusia –aipatzen ditu Benjaminen hitzak– irabazle izan diren guzien oinordekoa da. Irabazlearekiko enpatia, nagusiaren aldekoa da». Eta Sarrionandiak bere aldetik:

Historiagile historizistak irabazlearekiko enpatiarekin mugitzen dira, historia progresoranzko kronologia gisa antolatzen dutenean. Irabazi duten guziak, oraingo nagusiekin batera, segitalde triumfalean paseatzen dira bentzutuen ehorzlekuen gainetik (505-506).

Beti Benjaminekin jarraituz: Iraultza ez da pentsatu behar historiaren azken mugan etortzeko *event* larria bezala, kataklismoa, oraintxe bertan eta egunero amorruren amorruez ekiteko borroka eta lana bezala baizik. Iraultzaren ordua oraintxe da ('kairós' erlijiosoa –mesianikoa– beti oraintxe den antzera). Egiten dugun guztiak izan behar du Iraultza. Langile klase ustiatuaren askapena etorkizuneko egun urrunen batean ipintzeak, dio Benjaminek,

... indarrak hoberenaren giharra kentzen [die] zapalduci. Eskola horretan desikasi zuen langile klaseak gorrotoa eta sakrifizioa. Etsaigoa eta sakrifizio ahalmena arbaso esklabotuen memoriatik elikatzen dira, ez iloba liberatuen idealetik (504).

Oraingo gure borroka arbasoen iraganeko bizitza duintzen du, historiako galtzaileen arrazoia errebindikatzen du: esklaboena, emakumeena, homosexualena, goseak edo gosearen ertzean bizi diren milioiena, etab., eta nazio zapaldu eta baztertuen. «Euskaldunek eta berbereek –ondoriatzen du Sarrionandiak– mundu guziaren historia dute errekupe-ratzeko» (505).

Perspektiba kontua da, beraz (hitz horretan laburbilduko dugu ikuspuntuaren eta ikuskeraren erlatibotasuna). XIX. mendeko K. Marx judu asimilatuaren perspektiba historikoa,

I. Mundu Gerraren osteko W. Benjamin judu automarjinatu, nazi-faxismoaren biktimak, azpikoz gora jarri du XX. mendean, eta Benjaminekin Sarrionandiak XXI.ean: filosofia bat, garaipenarekin kontatzen ez duena, eguneroko egintzaren urgertzia enfatizatzen duena baizik.

Berbereen espiluan

Berbereen tragedia kontatzea Sarrionandiaren bigarren modua da historiaren filosofia iruten aritzeko, eta nazioaren kontzeptura inguratuz joateko une berean. Berbereen historia kontatzean, Euskal Herriaren espilua gure begien aurrean jartzen digu orobat: menperaketa politiko, ekonomiko, kulturean, hizkuntza eta literaturan, borrokan, biolentziaren kapituluan, errepresioan. Berak dioen eran, «botere erlazioak zertan diren eta askatasuna zenbaterainokoa dugun konprenitu nahian gabiltza hemendik Marokora eta Marokotik Euskal Herrira» (665). Dena, berriro esan, bere biografiarekin josita: «Nondik natorren adierazteko ahalegina egiten ari naiz, konaturatu bazarete». «Moroa izan naiz [...] ez naiz moroa» (539).

Historia beti subjektiboa baita. H. d., historia ikusi, norberak hautatua (edo heredatua) duen ikuspuntutik ikusten da. Beti halaxe egiten dela jakitun egotea da objektibitate goren posible apalaren abiapuntua. Interes batzuegatik hautatzen da gaia, horiek xedatzen dizute perspektiba, perspektibak zermugatzen du objektua, hots, ikusten da ikusten dena, eta ematen zaio objektuari ematen den trataera. Sarrionandiaren liburuko parte handi bat berbere edo amazig herriaren historia mingarri beltza erreparatzeko da: konkista eta arabizazioa, batez ere azkeneko ehun urteko gerra eta zanpaketa kolonialak, historia horretan euskaldunak ibili direna artoski gogoratuz, Iñigo Arrieta marinel lekeitiarrarekin hasita, horrek bere untzian Granadako azken errege Boabdil (Abu Abd Al-lah) desterruko kosta afrikarrera eraman zuen. Historia ikaragarri bat amaiera negargarriarekin, guztiz justifikatzen duena alegia filosofikoaren morala:

Baina historia hondakin pila bat da. Perla batzuk baizik ezin dira atera zabortegitik, Hannah Arendten metafora ekarriz, murgiltzen eta saiatzen den igerilariak itsaso sakonetik azalera ateratzen dituenak bezala (506).

Nazioaren kontzeptua behelaino artean

Nazioaz mintzatzea beti konplikatua da, ez horregatik bakarrik, baina, besteak beste eta hasteko, terminologia bera nahaspilatsua delako. Nola definitu artea? Obra modernoren bati buruz (Duchamp, etc.), hori artea zen ala ez zen taldean eztabaida sortzen zenoro, gure irakasleak ez dakit zein autoreren obra bat aipatu ohi zuen, bertan artearen lauhundik gora definizio omen baitago bilduta. Nola definitu hizkuntza: txoriek hitz egiten al dute, haurren zezela zein puntu zehatzetan hasten da hizkuntza izaten? Kultura definitzeko hamaika saio egin da, ia beti hori gizon-emakumearen eskusibo bihurtzen dela. Beraz, abere zenbaitek kultura duenik a priori ezintzea badago? «Aski da jatea gorputzari beharra duen elikadura labana eta sardexkarekin ematea bezala definitzea, abereek ez dutela jaten edukitzeko», burlatzen da F. de Waal. Kontzeptu askoren definizioak ez du beste xederik, guk nahi ditugun errealitateak sortzea baino. Nazioaren kontzeptu edo definizio askorekin horixe jazotzen da (Akademia Espainolaren hiztegia, adibidez).

H. d., nazioaren kontzeptuan soziologia eta psikologia soziala, antropologia, filosofia, politika, etab., artekotzen dira; geu eta gure autokontzientzia sartzen gara tartean; historia eta historiaren gure filosofia nahasten dira. Historiak, jendeen eta herrien errealitatea aldarazten badu, hura kontatu ahal izateko berben esanahia eta balioa ere aldarazten du. Esan dezagun, hautatzen den

Nazioaren kontzeptuan soziologia eta psikologia soziala, antropologia, filosofia, politika, etab., artekotzen dira; geu eta gure autokontzientzia; historia eta historiaren gure filosofia

perspektibak, edo segitzen den teoriak, terminologia bat ala bestea esleitzea eragiten du. Sarrionandiak gehien-gehienbat literatura akademikoan nagusitu samartua dagoen terminologia jarraitzen du: Nazioa berdin Estatua versus etnia (hala, nazio modernoek, esaten da, «komunitate etnikoen existentzia eza dekretatu dute», 377); eta etnia berdin –gure arteko mintzairan ohikoago– herri/nazioa. (Inoiz, hala ere, Euskal Herria Estaturik gabeko nazio izatea proposatuko du). Batzuetan unean darabilen edo iruzkintzen duen autorearen terminologiari segitzen dio, irakurlea zorabiatzeko arriskuarekin. Adibidez, «Nazio [Estatu-Nazio] batzuk etniatatik heldu dira, hala, nazioa kontzientzia politikoa duen etnia litzateke» (509). Orri beretan darraigu segidan irakurtzen: 1) «Nazioak ez dira betirako, ez dira ezinbestekoak, jendea antolatzeko modu historikoak dira. Baina ‘zentsuzko sineste kolektiboak’ izan daitezke, demokrazia eta askatasuna gauzatzeko elkartasun espazio onuragarriak» (508). 2) «Filosofiaren ikuspegitik, nazioen existentzia ona da, aniztasun soziokulturala egokia delako munduan» (509). Bi esaldiek koherenteak eman dezakete, baina ez dira. Lehenengo perpausa Álvarez Juncorena da, nazioak Estatua esanahi du: Estatua artifiziala da, baina onuragarria (Estatuaratean «merkatuko lege gupidagabeei mugak ipintzeko», etab.). Bigarren perpausa Ulises Moulinesena, eta nazioak etnia/nazioa esanahi du: atxikimendu «natural» batez lotzen gatzaizkiona (preestatala), Estatuak gizadiaren pluraltasun eta aberastasunaren altxor gisa babestu egin behar duena, eta beregaindu egin gura badu gurari hori errespetatu egin behar diona. Bi autoreen segidak (balio ezberdineko terminologiarekin) noragaldu egin lezake irakurlea. Beharbada Renanen aipuren batzuekin berdin jazotzen da, guztiz bereziki haren *Zer da nazioa?*, ez nazioaz, baizik Estatuaz ari dela ahazten edo ezkututzen bada.

Problema hori ez da Sarrionandiarena bakarrik, nazio arazoaz idazten gabiltzan guztiona baizik. Kontzeptuen esanahia ere historikoki labankorra da eta, nazioaz mintzatzerakoan, higitzen diren areetan bezala ibili behar izaten da. Euskal

Herria, Estatu propiorik gabe, bi Estatu eta hiru administrazioen pean sakabanatua, franko erdaldundua, etab., nazioa al da? Nazio bat al da? Zein perspektiba eta adieratan? (Katalanei naziotasun titulua ukatzeko Madrilen nolako enpeinua dagoen egunotantxe ikusten dugu). Berbere edo amazigak, Marokotik Egiptoraino lurralde diferentetan sakabanatuak, Marokon bertan Frantzia eta Espainiak zanpatu eta ustiatuak, hiru administrazio diferenteren pean ebakiak, hizkuntza, ohi-tura, etab., berdinekin, dudarik gabe herri bat dira: nazioa al dira? Nazio bat? Sarrionandiaren terminologian ezetz ematen du. «Amazigek ez dute nazio propiorik eraiki, eta, ezinbestean zein nahita, estatu nazional berrien partaide suertatu dira» (338). «Berebereak sedentarioak ziren, lurrari loturik bizi ziren, baina ez zuten nazioa eraikitzeko beharrezkoa zen elkartasun sentimendurik» (344), pentsatzen ei zuten frantsesek. Bilakabide historikoan ez dira heldu nazioa izatera, tribuen estadioan geratu dira (historia progreso bezala gogoantzeko eskema jarraituz, hortaz?). Atal nahiko luze bat aldatuko dut:

Ez da orain artean berbere edo arrifien nazio kontzeptu argirik izan. Arrifeko jendea sistema tribalean bizi izan da eta bakoitza bere tribukoa sentitu da. Beste maila batean, identitate definizio zabalez, musulman sentitu dira. Umma deitzen den komunitate mosaiko horren parte. Marokoarrak izan dira beraz, Marokoko sultana delako komunitate horren buru espirituala eta tenporala. Baina Marokoko sultanari nagusitasun espirituala onartu badiote, ez dute askotan behar bezala ametitu haren agintaritza tenporala [ez zuten zergarik ordaintzen, etab.].

Arrifia sistema tribalean bizi izan da, bakoitza bere kabilakoa izan da [...]. Arbaso ustez berbereen ondorengoek osatzen zuten kabila, berdin mila baziren edo berrogei mila. Kabila bakoitzak bere territoria zuen eta, kabilaren barrutian, leinu eta familia bakoitzak berea. Behetik gora osatzen ziren, hau da, familiarik familia, neba-arrebak bat direla lehengusuen kontra, baina oposizioa goragoko mailan soluzionaturik, subklanaren, klanaren edo tribuaren maila. Maila horietako bakoitzean ardura eta erabakimena konpartitu egiten ziren. Bilerak edo biltzarrak egiten ziren [...] istiluak konpontzeko, delituak zigortzeko edo beste edozein gai eztabaidatzeko.

Biltzar horiek ziren botere kolektiboaren espazioak. Biltzarrean deliberatzen eta erabakitzen ziren arazoak, baina gero ez zegoen hori bermatzeko estatu egiturarik, ez kartzelarik ez borrarorik. Kabila bururik ere ez zegoen, biltzarrak arduradun edo buruzagi bat aukeratzen zuen, kaid bat, baina txandaka aldatzen zen hau [...]. Estatu aparataturik gabeko demokrazia tribala zela esan daiteke. Antolaketa politiko anarkikoa zela ere esatea badago: sultanarentzat *Siba* zen noski, beraren agintea ametitzen ez zutelako, eta europarrentzat ere 'desorden' hutsa zen, azefaloea zelako.

Gizona bere etxeari eta lurrari loturik bizi zen, familiari eta ahai-degoari. Defendatzeko gauza izan behar zuen, armaturik egon behar zuen, eta duintasun eta ohoreari eutsi behar zion (73-74; ik. 382 orobat).

Pasartearen oin-oharrean, gure haizekerietako 'euskal demokrazia' zaharrari aludituz apika, demokrazia 'primitibo' eta modernoa kontrastatzen ditu (nazioa modernizazioari asoziatuz –ik. 206– eta demokraziari: «Nazio arazoa demokrazia arazoa baizik ez da», 389, irakurtzen da beste testu-guru batean), eta gehitu:

Arabiarren tradizio autokratiko eta burokratikoaren aldean, berbereen gizartea igoalarioa eta demokratikoa zen, autoritate kontzeptu sinpleekin. Hala ere, ezin da nahastu gizarte sinpleetako demokrazia tribala gizarte konplexuetako demokrazia estalarekin (562).

Renanek gizarte berberearen antz-antzeko deskribapena egin du, eta jende berberearen demokratismoari leporatzen dio bilakaera historikoan tribalismoan geratu eta sekula nazio ez bilakatu izana. Renanen filosofian, tribalismoa monarkia botere-etsu batekin gairatzen da, eta monarkiak sortzen du nazioa.

Nazioa, nazio kontzientzia, Estatu

Horrelako eta antzeko hainbat testutan erreparatzen duzunez, nazioaren kontzeptua liburuan zehar bi determinazioekin asoziatua etortzen da: kontzientziarekin eta Estatuarekin, eta azkenean biok modernizazioan bateratzen dira. Nazioa errealitate historiko gisa hartzen da, eta konkretuki modernoa

legez (ez antropologiko ‘naturala’ –eta printzipioz ez dago sozialki naturala historikoari zergatik kontrajarri, perspektiba bat besteari; hots, zergatik naturalari esanahi esentzialista eman–). «Nazioa ez da behin eta betirakoa, eraikuntza politiko eta kultural modernoa dela diote historialariek» (404; ik. 508 ere).

Nazioaren nazio bilakatzea honetara agertzen da kontzientziari edo Estatuari lotua eboluzio historikoan: gizatalde bat, kontzientzia nazionala eduki arte, edo Estatuak eduki arte, ez litzateke nazio izango. Berbereek ez dute eurek nazio kontzientziarik, guk ez ditugu nazio kontsideratuko. Herri edo jenderia batek bere buruarentzat nazio kontzientzia garatzen duenean bilakatuko litzateke nazio. Edota bestela, beretzat Estatuak eratzen duenean, edo Estatuak bera nazio gisa eratzen duenean, bihurtuko litzateke nazio. Abdelkrimekin kasi nazio bilakatzeke zorian egon dira berbereak: ia-ia Estatu propioa erdiesteko zorian. Ikuskera

Nazioaren kontzeptua liburuan zehar bi determinaziorekin asoziatua etortzen da: kontzientziarekin eta Estatuarekin, eta azkenean biok modernizazioan bateratzen dira

honetan nazioa, edo Estatuaren ekoizpena da, edo Estatuaren sinonimoa: nazio espainola, frantsesa, Euskal Herria nazio izan nahita (110-111); tuaregak «transnazionalak» dira (340). Estatu/Nazio modernoaren bilakabideaz ohar politik ez dira gutxi. Estatuaren nazioa egiteko moduez, esaterako: gerraren eraginaz (359-363), «lehenengo proiektu nazional euskalduna ere olatu nazionalista-militarista hura profitatuz asmatu zen» (D.-J. Garat, 360). Militarismoarenaz, «armada izango zelako naziotasunaren benetako eskola [...]. Benetako eraikuntza nazionala» (359), «euskaldun xeheentzat, nazioa soldaduskara joaten zen» (361). Iraultzarekin, Estatu bilakatu eta nazio bilakatu, bat izan da.

Instrukzio publikoa, administrazioa, soldadutza, justizia eta baliabide guziak erabili ziren estatugintzan. Eskola zen nazioa ezartzeko erremintarik ahaldunena: beste hizkuntzak baztertzeaz gainera [...]. Gainera, nazioaren muga geografikoak markatu eta mitologia historikoa ikasarazi zen [...]. Inork ez zuen zein nazioetakoa zen dudarik izango [...]. Herria estatu bihurtu ahala bilakatu zen hizkuntza eta kultura frantsesa 'nazional' eta 'unibertsal' bakarra (354-355).

Badago abertzaletasun bat, aspirazio nazionalen justifikazio antzera-edo, Euskal Herriaren antzinakotasuna alegatu ohi duena. Sarrionandiak nazio fenomenoaren modernotasuna erremarkatzen du.

XVII eta XVIII. mendeetan, gortearen aldemenean burgesia nagusitu zen eta, XIX. menderako, hiria bihurtu zen gailentasun ekonomiko, politiko eta kulturalaren gune. Hiria merkatua zen batez ere, salerosketa arautuetarako lekua. Merkatua erre-
suma osora zabaldu zen heinean, burgesiaren nazioa sortu zen. Errepublikak, demokrazia eta eskubide zibilak etorri ziren gero, baina merkatua zegoen hiritartasunaren oinarrian. XIX. mendeko soziologoek argi zuten estatu modernoak burgesiarena zela, burgesia zela nazio-klasea. Eta, nazio-estatuan bazterturik geratu zirela dirurik gabeko klaseak eta, batik bat, hiriburuetatik kanpoko kulturak (631-632).

Sarrionandiaren testua ez da nazio arazoaz traktatu bat, baina nazioaren arloa behin eta berriro itzultzen da. Nazio kulturala, territoriala (404, 667), politikoa, burgesiaren nazioa, etab., berein bereizketa erabili darabil, baina definizio definitibo –ez dagoen– baten bila inon ez du denbora galtzen, eta ozta-ozta kontzeptua argitzen ere. Esan bezala, bere kontuen kontaketa heraberik ez du ohikoak diren terminoak inguruotan ohiko adiera dominantean erabiltzeko, nazioa berdin Estatuak, esaterako. Guztiz ohartun da, haatik, hautu hori ez dela inofentsiboa. Esaterako, naturaltasun narratibo hori ohiko iritzia edo ohiko bezala ezarri kontzeptua kritikatzeko edo kuestionatzeko bidea du zenbait unetan. Estatuak denaz bezainbatean, adibidez, esaldi apart haxe botatzen digu bat-batean: «Estatuak, zergak kobratzeko edo biolentzia

erabiltzekoa duen moduan, naziotasunaren monopolioa du» (376). Hots, Estatua *ez da* nazioa, nazioa fagozitan egiten du. Estatua = Nazioa berdinketaren irrigarria larrugorritzeko modu dotorea. Izan ere, Estatua bai, fenomeno politiko moderno da. Nazioak egiten du Estatua, ala Estatuak nazioa? Historian bietarik dago, eta baita bestelakorik ere (Estatu nazioanitzak, nazio estatuanitzak, Estatua naziorik gabe: Vatikanoa, ez Estatu eta ez naziorik den 'Nazio' edo entitate internazionalki subiranoa: the Sovereign Order of Malta). Beste nonbait ematen diharduen informazioa emateko darabilen terminologiarekin guztiz konforme ez dagoela iradokitzen digu: «Arrifeko jendeak ez zuela nazio kontzientziarik *esan ohi da*» (382); irakurleak ez dezan uste menturaz, bere tesia dela hori. Orainaldiagoaz: «Batzuentzat, Amaziga nazio bat litzateke. Gehientzat, herrialde barreiatu horiek ez dute nazio-estatu bihurtzeko posibilitaterik» (385).

Nazioa berdin Estatu-Nazioa, erabileran baliatu egiten da, ez egoki eta ez desegokitzat jotzen da, ezta kuestionatu ere.

Nazio kontzientziaz

Kontzientziaz bezainbestean –'espíritu subjektiboa' hori–, komunitate bat nazio, nazio kontzientziak bihurtzen duela, dio beste eskola batek. Zeinen, edo zeren zer kontzientzia moduk? Kontzientziak modu eta graduak izan ohi baititu.

Nazio baten konstatazio edo kontzientzia kanpotik eragina edo kanpoan soil dagoena izan liteke, barrutik sortua, barru eta kanpo arteko zirkunstantziek garatua. Pasatzen da bidaia-ri bat, eta jendearen hainbat berezitasun ohartuz (janzkera, hizkuntza), naziotzat jotzen du herri hori eta nazio bezala ikusia geratzen da kroniketan. Kanpotik soegilearen kontzientzia edo kultura da batzuetan jenderia bati nazio deritzona: «the Great Sioux Nation», «the Cheyenne Nation» («txeiene herria» euskarazko Wikipedian). Herri germaniar barbaroen uholdearen ostean, Inperio erromatarreko nazioen indiferentzia galduta, Instituzio herrianitz eta eleanitz batzuk

Autokontzientzia
kolektiboa
historikoa da eta
modu diferentetan
manifestatzen da
kondizioen arabera

Erdi Aroan ‘nazioka’ antolatu dira, Eliza batik bat eta unibertsitateak (unibertsitateak Elizarenak dira!). Ez dira noski nazio modernoak, ezta nazio antropologiko ezagunak ere;

antolakundeotan naziorik bitxienekin topatzen gara: Pariseko unibertsitatean pikardiarrak ez dira frantsesak, alemanak ingelesak kontsideratzen dira (‘natio anglicana’), Pragakoan suediar eta finlandiarrak alemanak dira. Konstantzako Kontzilioan hungariarrak poloniarrekin alemanak dira, etab. (ik. Kibre, P., *The*

Nations in Medieval Universities, 1948). Izan ere, hizkuntzaren ezagumentua ezaugarri nazional bezala nolabait bada-goela ematen du, baina ez da aintzat hartzen (hizkuntza unibertsala latina da unibertsitatean). Eta geografian eskualde ezberdinak lau puntu kardinaletan bezala, Pariseko unibertsitateak nazio ezberdinen gizamundua lau naziotan laurgitu du, eta gero Pariseko eredu jarraitu izan da. Nazioaren kontzeptua badago, baina praktikan haren erabilera beste kategoria batzuekin gurutzatzen da. Hainbat lehenago ere, alabaina, nazio kontzeptuaz baliatu ala ez, gizadia euskaldun eta erdaldunetan erdibitu duen jendeak bere identitate kolektiboaren eta diferentziaren kontzientzia moduren bat bazuen; mundua greko eta barbarotan banatu duenak hainaxe (eta Herodotok jadagoneko ‘nazio grekoaren’ kontzeptu argi askoa dizu): hizkuntzaren erreferentziaz hain zuzen bietan.

Hizkuntzak diferentzia eta identitatea, biak markatzen du, kanpo aldera hala barru aldera, eta fenomeno hori toki eta denbora guztietan ezagutzen da.

Autokontzientzia kolektiboa historikoa da eta modu diferentetan manifestatzen da kondizioen arabera. Erdi Arotik abiatuz, nazioen edo dinastien ‘fundazio’ mitoeak (Tubal, Troia) jatorri (‘natio’) edo ‘arrazak’ kontzientziaren bati erantzuten diote, elite aristokratiko eta eliztarrengan gutxienez

(gogora Garibayren maniobrak errege espainolen euskal genealogiak asmatzeko): nazioa 'erregearen nazioa' bezala ezaguarazten eta ohoratzen da. Monarkia berriok faktore inportantea izango dira nazioen garapidean. Nazioa eta erregea elkarlotu diren moduan, laster lurra eta zerua ere estekatu dira eta santu nazionalen bat hautatu, 'misio' nazionalaren bandera gisa, nolabait 'aiurri nazionalaren' sinbolo ere bihurtuz: San Dionisio eta San Mikel Frantzian, Santiago Espainian (mendebalean, Grezia eta Erroman hasita, edo Egipton bertan nahiago bada, erlijioa eta politika beti egon dira bat eginda). Katedralen eraikileek, adibidez, harrotasun nazionalari espresio eman gura izan diote arkitekturan eta errege eta figura biblikoen eskulturetan: nazioa, jatorri mitiko batez gainera, misio historiko (sakratu) batez edertzen da. Bote-re arrotzaren dominazioak ('arrotzik' egoteko kontzientzia nazionalen bat aurretik ere suposatu behar da) kontzientzia nazionala nola sumindu zezakeen, Petrarcaren lantuetan ikusten da oso ageri, bere Italia maitea germaniar barbaroek azpiratua egotea jasan ezinda. Kontzientzia nazional frantses eta ingeles iturburuetan nabaria dirudi Ehun Urteko Gerraren inportantziak eta haren inguruko irudi sinbolikoenak (Ioana d'Arc, etab.). XIV. mendean, Pragako unibertsitatea puskatzea ekarri duten konfliktoetan profesore eta estudiante aleman eta txekiarren artean, diferentzia nazionalen arrazoiak ageri-agerian egon dira, besteak beste. Husiten gerrak nazionalak izan dira hein handi batean. Erdi Aroan jada franko aurkitzen diren bata besteari burlazko estereotipo nazionalak (alemanak mozkorrak, etab.), ez al dira kontzientzia nazionalaren modu bat? Humanismoan, bulgare nazionalen bikaintasun paregabearen kontzientziak (Nebrija, Du Bellay) ez al dira kontzientzia nazionalak? *Os Lusíadas* ez ote dago epopeia nazional/nazionalistaren kontzientzia osoarekin idatzita? Merkatarari eta kontsulatu katalanak Mediterraneoan ahomonta genitzake, gomuta Pierre Vilarren *Cataluña: una nación forjada por la historia*. Nazioen autokontzientziaren bilakaeran faktore ezberdinek eragin dute (ezberdinek nazio

ezberdinetan). Zein erlaziotan daude Erreforma protestantea eta kontzientzia nazionalen piztea Erdi eta Ipar Europako herrietan? «Ezaguna da –irakurtzen diogu Sarrionandiari– Biblia Europako estatu nazionalen formazioaren zutoihala izan zela XVI. mendean» (435). Leizarragak Itun Berriaren itzulpena heuskaldunen nazioarentzat eta horren ohoretan burutu du, hots, euskal nazioaren berezitasunaren kontzientziaz «berce natione gucien artean». Eta Ioanna Albrete erreginak, Leizarragaren lana urgatziz, «Naffarroaco resuma»-ren barruan euskal nazioari aparte ezagumentu edo aitorten egiten dio (erresumaren nazioaniztasuna ezagutu eta aintzat hartzen duela erakutsiz). Eta euskal apologistak, Larramendi... (Ik. Armstrong, J.A., *Nations before Nationalism*, 1982; Smith, A.D., *The Ethnic Origins of Nations*, 1986). Nazioak eta nazioen aipamenak aspaldidanik aurkitzen dira.

Hala ere, Moderniako historialari eta soziologoek artean aburu nahiko zabaltzen zuten kontzientzia nazionala, kontzientziarekin nazioa bera eta nazionalismoa, Aro Garaikidekoa litzateke. Noiz eta nola sortua, oso garbi ez dago. Batzuentzat Iraultzarekin hozitua, edo XVIII. mendetik XIX.era iragaitzan. Besteren batzuentzat XIX. mendean zehar elite intelektualek piztu eta elikatua litzateke, edo industrializazioak ekotzi izango luke, edo (gune industrialak hiri edo eskualde nahiko bakanetara mugatu baitira) trenbide sare nazionalaren zabaltzeak, edo eskolaren eta prentsa eta komunikabideen arunt hedatzeak XIX. eta XX. mendeen arteko bueltan (Weber, E., *Peasants into Frenchmen. The Modernization of Rural France 1870-1914*, 1976). Eta egiantzekoena da, Frantzia adibidez, kontzientzia nazional bat zinez kolektiboa, hirietan legez landaguneetan jeneraldia, ez dagoela egiaztatzerik I. Mundu Gerra baino lehen. Ordurako 'la Grande Nation' aspaldian zegoen. Nazioa nazio kontzientziarekin jaiotzen omen delako tesiak, kontzientzia hori zehazki zer den eta noiz eta nola jaiotzen den dauka zailtasuna. Are, nazioa eta nazionalismoa nazio eta nazio kontzientzia modernoek parametroetan definitu, eta hori

Modernia baino lehen ustetzea anakronismoa dela deklaratzeko, falazia inuxente samarra baizik ez da.

Sarrionandiagana itzuliz: kasuistika horiek laga eta, kontzientziaren puntuan ere alde praktikoa da, teorikoa baino gehiago, jorratzen dena, kritikoki jorratu. H. d., nazioaren definizioko elementu (posible) gisa gabe, berari oroz gain interesatzen zaiona kontzientziaren ekintzarekin lotura da; kontzientziaren historikotasuna, alde batetik, horren kontrolerako Estatuaren eta Estatuaren zerbitzarien ahaleginak bestetik. Azkeneko horretarako «biolentzia sinbolikoaren» kontzeptu inportanteaz baliatzen da (390). Eskolaren, propagandaren, diskurtso publiko guztiaren bitartez Estatuak bera denona eta denon onerakoa dela konbentzitu gura du gizartea. Estatu hori ezinbestekoa dela, beste edozein alternatibaren ideia burugabekeria dela. Boterearen inposizio dena, errealitatearen inposizioa dela sinestarazten da. «Biolentzia sinbolikoaren bidez, menperaketa egoera lazgarriak normalizatu eta naturalizatzen dira» (391; ik. 488-489 orobat). Aginpeko biktimek errealistak izan behar dute, zentzuzkoak. Gauzak diren bezala hartu behar dira, etab. Biolentzia sinbolikoan batailoi bat beti prest dagoena erasorako, Sarrionandiari partikulariki gutxi gustatzen zaiona, Estatuaren lekaio intelektualena da, kazetari eta filosofo ilustratuak,

jakintasunaren eta arrazoizkotasunaren prestigioaz baliatuz, «estatuaren babesarekin eta botereak ematen duen harrokeriarekin, komunitate etnikoen existentzia eza dekretatu dutenak» (376-377). Guy Deborden txantxa aipatzen du: «Beste sasoi batzuetan, agintari

rien nagusitasunaren kontra konspiratzen zen. Orain ogibide berri bat dago, agintarien alde konspiratzea» (650). Biolentzia sinbolikoarekin ez da biolentzia hori arina denik ulertu behar («espirituala», «ideologikoa soilik»). Biolentzia disimulatua

Nazioaren definizioko elementu (posible) gisa gabe, Sarrionandiari oroz gain interesatzen zaiona kontzientziaren ekintzarekin lotura da

da, zuria, baina aginpekoen kontzientzien hertsaketa zindoa, biolentzia fisikoa bezain benetakoa, askotan eraginkorragoa (645). Kontzeptuaketa, terminologia politikoki korrektoa, izenematea (ik. 65, 91-92, 115, 655, 683, 687, 701), mapak (115), diktatuz, hizkera eta pentsamendua eta atxikimenduak manipulatzen ditu; hots, errealitatea sortzen du Estatuak («estatuaren jabeek monopolizatzen dute [...] gauza bakoitzaren izena», 488). Estatuaren jardun guztian ez ezik, biolentzia sinbolikoa haren existentziaren beraren –antolaketaren– oinarrietan bertan dago. Teorian Konstituzioa egon aurretik ez hiritarrik, ez «naziorik» dago, gizateria amorfoa eta norbanakoak bana baizik ez. Konstituzioak jendeari hiritarren kategoria eta eskubideak ematen dizkio, eta bera eta bera bakarrik izatea agintzen du hiritar guztien babes. «Baina hori aldarrikatzen duena Espainiar Nazioa da, hau da, nazioa den eta nazioa izan daitekeen bakarra». (Printzipioetako beretako korapilo horretaz badago azterketa bat, jaramon handirik inork egin ez diona, uste dut, baina oso polita: Arregi, X., *Herria, hiria, nazioa. Zibilismoaren sustraiak*, Pamiela, 2006).

Herriari nazioa, monarkia eta Ejertzitoa ezartzen zaizkio, beste gauzen artean. Konstituzioan, alde aurretik dekretatu eta osatua da nazioa, ukiezina, monarkiaren eta Ejertzitoaren, oligarkiaren eta kristautasunaren babespean mendetan eraikitako nazionalismo intolerantearen segida (399).

Hemen nazionalisten eta ez-nazionalisten gaurkotasuneko polemikan pulunpatzen da berriro.

Harrigarria da ‘patriotismo konstituzionala’ aldarrikatzen dutenek euren burua ez-nazionalistatzat definitzea, Konstituzio espainola literalki nazionalismo espainoleko deklarazio bat deanean. Espainiako beste nazioak ez errekonozitzea ez da nazionalismo espainola xumetzea, baizik gandortzea.

Beste ikuspegi batetik ere, ‘patriotismo konstituzionala’ harrigarriro gupidagarria [da]. Nola zimendatuko dituzte patriotismoarekin lotzen diren kultura eta emozio konpartituok Legearen obedientzian? Ez da eroso izan behar Legeak agintzen duena izan behar izatea (648).

Beste toki batean berriro:

Bitxia da batzuek 'nazionalisten' eta 'konstituzionalisten' artean egiten duten bereizketa. Konstituzionalistak nazio bat proklamatzen du bere konstituzioan. Nazionalistak konstituzio bat nahi du bere nazioarentzat. Konstituzionalista, konstituzioko nazio parametroen aldagarritasuna ametitzen ez badu behintzat, nazionalista da. Nazionalistak, naturalki, konstituzionalistak dira (652).

Konstituzionalisten logika estrainoarekin jarrai zezakeen: euskal naziorik ez omen dago, baina nazionalistak izatea egozten zaigu, etc. Estatu moderno jakobinoak bere eta hiritar bakarraren artean tartekorik ez du onartzen, naziorik-edo (Elizak-eta, erakunde teoriarik 'ez politiko' batzuk, berari komeni bazaizkio onartzeko problemarik ez duenak!). Erraz ulertzen da: kontzientzia kolektiboak (hobeto legoke autokontzientzia esatea, Renanek majo probetxatu zuen Lazarusek egin zuen distingo aintzat hartuz) eta ezagutza moduren baten nahiak komunitatea nolabaiteko subjektu politiko bihurtzen baitu besteren aurrez aurre, Foruen zina esijitzen zuen euskal herri zaharrea bertan ikusten dugunez –bazuten, hortaz, subiranotasun modu baten kontzientzia–. Posibilitate hori aldeztetik ukatua edukitzeko, hiritar-tasunaren mistizismo bat matazatzen da, Estatu ez beste edozein instantzia kolektibo norbanakoarentzat mehatxu gisa agertaraziz. Eztabaida klasiko honetan ere buru-belarri sartzen da gure autorea:

Indibiduo abstraktuaren eta eskubide indibidualen argudioa botere erlazioak disimulatzeko erretolika legez erabili da [...]. Eta eskubide kolektiboak ukatzean, multzo horretako partikular bakoitzaren eskubide indibidualak urratzen dira (380).

Nazioa bera eta bera bakarrik izateko Estatu moderno demokratikoaren burujopeak gaizki eramaten du bestelako edozein azpitalderen nazio kontzientzia propiorik, eta estigmatizatu eta erroiztu egin gura izaten dizu hori, hala nola naziotasun aitortza edo nazio-estatu propioa gura luketen euskaldunen eta amazigen aspirazioak.

Nagusi den identitatea hiper-identitate bihurtzen da, bere burua unibertsaltzat harturik eta bere eremuan beste 'identitate kolektiborentzako' lekurik utzi gabe, ez bada sub-identitatearen mailan. Euskaldunen identitate kolektiboa, edo amazigena, inkompatibea da halako hiper-identitate batekin, sub-identitate izaera ametitzen ez duten artean behintzat (488; Estatuaren 'antietnizismo' horretaz, ik. gehiago in 380-382).

Zu ez zarela espainola, esaten baduzu, «zein da zure pasaporte?» aurpegiatzen dizu bertan espainoltxoak. «Identitate etniko edo nazionala –darantzuio Sarrionandiak– ez da poltsikoan eraman daitekeen zerbait, estatuek talisman bihurtu duten arren nortasun agiria» (380). Identitate ukatuak ez dira nazionalak bakarrik, era askotako gutxiengoan identitatea ukatzen edo zafrazten da: homosexualak, etab. (493-494).

Identitate indibidualaz eta kolektiboaz

Diskurtso demokratiko arruntean, askotan identitate indibidual pertsonala eta identitate Nazio-Estatala besterik ez ezagutu guran, identitate pertsonalaren uko totalitariotzat belzten da identitate kolektibo herri-nazionala. Azkeneko bion artean ez dagoela kontraesanik, baizik ere biok ezin direla bata bestea gabe eman, kontrastatzen du Sarrionandiak.

Gizakia ez da zarratua, ez dago *homo clausus* hutsik. Identitate indibidualean identitate soziala integraturik dagoela esaten dute, Sigmund Freudekin, psikologo eta soziologo guziek (377).

Gizaki autonomo hori ez da bakarrik bizi, ez ditu bakarrik hartzen erabakiak. Memoria, irizpide eta proiektu kolektiboetan parte hartuz, besteeiko harremanetan mugitzen da, nahi duenean horietatik aldentzeko (377).

Identitate indibiduala 'identitate soziala' da, zentzu guzietan. Identitate edo nortasun indibidual horrek forma kolektiboak hartzen ditu; baina alderantziz ere esan daiteke. Pertsonaren izaera ez da jarauntsia eta kolektiboa soilik, aukera pertsonalaren ondorio ere bada. Pertsona ez da unidimentsionala, bakoitzak hainbat izaera du: linguistikoa, sexuala, erlijiosoa, soziala eta dena delakoa nahasten da edonoren nortasunaren labirintoan (377).

Nortasuna edo identitatea bata bai, baina anizkuna da beti, pluralitate baten sintesia. Harmonia musikala bezala. Nahierantsu bariatu daiteke eta aberastu. Kakofonia batzuk ez da problema; problema monotonia izan liteke. Ez da problema pertsona bakoitzak edo herri/nazio bakoitzak bere identitate modu diferentea izatea eta landu gura izatea. Estatu modernoak identitate kolektiboetako bat nagusiarazi eta guztiei inposatu egin ohi du identitate bakarra bezala, unibertsala eta beharrezkoa, eta horrekin kointziditzen ez duena zirt ala zart erabaki behar izateko atakan jartzen du. «Zapalketaren sareaz kontzientzia hartu eta boterearen eta agindutakoaren parte ez sentitzea askatasunaren hatsarrea da» (495).

Nazio kontzientiaren gorabeherak

Nazio kontzientziak, historikoa delakoxe, garapen mota edo agerkeria ezberdinak aurkez ditzake, eta bere gorabeherak ibili behar izaten ditu.

Kontzientiaren joanetorrietan faktore inportante bat gerrak izaten dira beti, hala erliebatzen du Sarrionandiak amaizigentzat bezala euskaldunentzat. Hegoaldeko euskaldunak «frantsestadorekin hasi ziren kontzientzia nazional espainolez betetzen» (360), irakurtzen dugu.

Hegoaldeko euskaldunen espainolizazio prozesuko beste momentu seinatuak 1859-60ko Marokoko gerla eta 1868-78ko Kubakoa izan ziren [...]. Hurrengo gerlak ere Marokon eta Kuban, berriz ere hipernazionalistak izan ziren, eta horrela hartu zuten euskaldun askok (362).

Historian zehar ez bai eta eztabai artean bidegiten baitu, kontzientzia kolektiboa, nazionala gure kasuan, indibiduala bezalaxe, izan liteke «lausoa» (376), kontraesanetan karamilatua ere bai, zenbait kondizio politikotan bereziki. «Imajinatzekoa da Franz Kafka [judu, bohemiar-txekiar, austro-hungariar, aleman], trenean doala, militar alemanak nor den galdetzen dionean. Eta bera, zehatz erantzuteko gauza ez dela» (379). Iparragirrereren «ara España!»-n ikusten

denez, XIX. mendean euskaldunongan arazorik gabe eman zitezkeen oraindik elkargainka naziotasun foralaren kontzientzia eta naziotasun espainolarena, subjektutasun politikoaren aitortza ziurra bietan barneartzen zela (ez batean bai eta bestean ez, edo batean kulturala eta bestean politikoa), balio diferentearekin noski batean eta bestean.

Berehala, ordea, A. Campionek, Arana Goirik, etab., eragindako birkontzientziapenaz:

Euskaldun asko beste nazio batekoak hasi ziren sentitzen, nahiz eta beste nazio hori oraindik ez existitu [?]. Izena bazuen, izango zen [...]. 1909-1921eko Arrifeko gerlak [...] euskaldunen iritzi antiespainola eta independentziaren aldekoa indartu zuen. Gerlak, ideiak erradikalizatzeko ahalmen horrekin, kontzientzia espainol ultranazionalista eta euskalduna ere hanpatu zuen, aldi berean, euskaldunen artean.

Joera bikoitz horrek 1936ko gerla zibilean egingo zuen talka (362-363).

Immigrazioaren faktorea maiz aipatu da: Bizkaiko industrializazioa eta Arana Goiriren antimaketismoa, etab. Emigratioarena nabarmentzen du Sarrionandiak. Sorterritik urrun, euskaldunak, probintziak nahiz etxeko Estatu mugak ahazturik, etorki guztietakoak elkarretaratzen ziren. «Nor bere kanpandorre alboan geratu ziren euskaldunen artean baino lehenago moldatu zen kontzientzia nazional euskaldun hori urrunean, zortzigarren probintzia horretan» (372). (Ausaz ez da oso bestela izan Erdi Aro berant edo Modernia goizean etxetik urrun joandako estudiante eta merkatariekin).

Arana Goiriren arrazismo sonatu, kazeta eta tertulia espainoletan arramantza gaitzetako hori dela-eta, punturazio hau dagi Sarrionandiak:

Sabino Aranaren arrazismoa *hispanofobia* zen. Kriterio arrazistak ohikoak ziren sasoiari, ez zuen arraza batzuk biologikoki besteak baino hobekak direnik eta hagatik arraza aurrerratuok arraza atzeratuak menperatzeko eskubiderik zutela sostengatzen. XIX eta XX. mendeko enpresa inperialista askoren atzean zegoen arrazismo horren kontra jardun zuen, gizajendeak bakoitza bere

gisa libre bizitzeko eskubidearen alde. Baina Sabino Arana oso antiespainola zen, Espainiak beste herriei eta bereziki euskaldunei aske bizitzeko eskubidea kentzen zielakoan, eta antiespainolismo hori termino arrazistetan formulatu zuen.

Sabino Aranaren nazionalismo eredia judaismoarenaren antzekoa zen: erlijioa arrazak sostengatua herritzat (637).

Beste puntu batean, Sarrionandiari ez zaio gustatzen historiaren manipulazio nazionalista, baina, Juaristiri-eta aludituz, Arana Goiriren defentsan ateratzen da berriro:

Espainiar *inteligentsia* konbentziturik dago euskaldunen ‘tubalismoaz’, hainbestetan errepikatu dutenez gero. Tubalismoaren bibliografia aztertzen duenak ikusiko du tubalismoaren sortzailak ‘nazionalista espainolak’ izan zirela, nolabait esateko anakronismo eta guzi. Andres de Poza edota Esteban de Garibai, esaterako [...]. Ostera, Sabino Aranak gaia parodiarako baizik ez zuen ukitu («*Llegó, pues, Tubal con sus mujeres, hijos, nietos, bisnietos...*»). Eta euskal nazionalismo modernoarentzat Tubal pertsonaia ezezaguna da. Nazionalista espainol betiko edo konbertsoen gai faboritua da, mitoa sortu behar duten arren desmitifikatu orduko. Txorimaloaren falaziaren adibide perfektua (684).

[Arraza gora eta arraza behera, arrazismoaz mintzatzekoan honezkero bereizketaren batzuk komeniko liriatekeela ematen du. Renanen konferentziaren osteko solasean lau motaren bereizketa inprobisatu nuen Donostian: 1. Xenofobia edo arrazismo unibertuala, gizaberearen eboluzioak gure defentsarako itsatsi digun arrotzarenganako mesfida edo alerta jarrera naturala. Denok gara nolabait xenofobo eta arrazistak. 2. Tabernako arrazismoa esan genezakeena, erdeinuzko aurreiritzi oies eta baldarkerietakoa (berdin da ‘moroekiko’ ala emakumeekiko). 3. Erlijioso edo morala, berak krimen gutxi egin ez duena historian: beste arraza (jende) horiek ‘gaiztoak’ dira, moralki lorrinak. (Arana Goirirenak tipo honetakoa dirudi). Gisa horretako arrazismoa mugatua, ‘arrazak’ konkreturen batzueganakoa soilik izan ohi da, batetik; bestetik, norbere arrazak askotan ez du besterik adierazten familia baino –‘odola’ edo ‘zortzi deitura garbi’ esaten

dena-, h. d., funtsean 'ekandu onen' transmisioa, tradizioa (moralaren gordelekua). 4. Gaur arrazismoa stricto sensu kontsideratzen dena, 'zientifikoa', biologikoa jeneralean, gizadia arrazatan eta arrazak euren balio natural (intelektual, moral) suposatua araber mailatan hierarkizatzen dituen, beheeren dominazioa eta batzuetan suntsidura bera ontzat emanez. Horrelakoa da Renanen arrazismoa].

Nazio kontzeptuaren historikotasunaz

Ongi da: nazioa ez da berdin Estatu, ez da berdin nazio kontzientzia. Orduan, zer da nazioa? Kontzeptua behelainotan dago, irakurzaleak denetarik aurkitzen dizu gaur liburuetan. Erreparasotxo bat egiten badugu: nazioa tradizionalki komunitate linguistiko, kultural bat da. Hizkuntza eta *ethnos* (gr.) edo hizkuntza eta *natio* edo *gens* (lat.) berdinketa ohikoa da bai antzinate klasikoan eta bai tradizio judu biblikoan. Hala transmititu du Erdi Arora San Isidoro Sevillakoak: Babelgo hizkuntza nahasketatik sortu dira nazioak. Hizkuntzetatik hain zuzen ere nazioak eta ez alderantziz: «ex linguis gentes,

Ongi da: nazioa ez da berdin Estatu, ez da berdin nazio kontzientzia.

Orduan, zer da nazioa? Kontzeptua behelainotan dago

non ex gentibus linguae exortae sunt» (*Etymol.* IX, 1, 14). San Isidoren garaian agerikoa zen jadedagoneko hainbat nazio diferente zegoela hizkuntza berdinekoa (ez ziren ibili zaharrak Iberian barrerna suabo, bandalo, alano, bisigodo, nazio diferenteak mintzaira berekoak); baina haste-hastean hizkuntza bakoitzak nazio bana osatzen zuela, insistitzen du:

«initio autem quot gentes, tot linguae fuerunt; deinde plures gentes quam linguae, quia ex una lingua multae sunt gentes exortae» (IX, i, 1). Erdi Aroko autoreetan lexiko berak segitzen du. Ximenes Radakoan, adibidez, berak Noeren ondorengoez diharduela: nagusi bakarraren tirania saihesteko («ut Nemroth

tirannidem evitarent»), «divisi sunt in linguas et nationes» (*De rebus Hispaniae* I, 3, 12; baskoin eta nafarren nazioa aipatzen du hizkuntza/nazio banatuon artean). Nazio edo hizkuntzaz mintzo da guztiz naturalki Tomas Akinokoa, etab. Nazioa eta hizkuntza berdintzea munduko ohikoena izan da mendebalean, ez Alemanian bakarrik (Kant, Herder, Humboldt, etab.).

Kontzeptuaren nahasketa Modernian hasi da, sartaldeko monarkia eta Estatu sortuberriekin batasun ertarotarra apurtu denean. Nazioarekin askotan ez da ulertuko hizkuntza/herri natiboaren masa, baizik erregea eta noblezia armadunaren elitea, horiek jatorriz hizkuntza/nazio arrotza eta konkistatzailea baitira (Frantzia, Ingalaterran), horrela erresuma bi 'arrazatan' partiturik dagoela. Egoera sozial honetan nazioa erregean eta aristokrazian inkarnatuko da (arrazan), herri/nazioak (hizkuntzak) ez du esanahi politikorik. Poliki-poliki 'arrazatzaileak herri/nazioaren hizkuntza beretu du. Baina bulgareak hizkuntza idatziak bilakatu direnean, frantsesa 'erregearen hizkuntza' da, eta Gortekoa deklaratu da 'hizkera ona': «la façon de parler de la plus saine partie de la Cour», dio Vaugelasek (*Remarques sur la langue française*, 1647), eta hori inposatuko da hizkuntza nazionalizat. Bai nazioa eta bai hizkuntza nazionala, Gortea da finean. Berriz ere tradizioko «natio seu lingua» kointzidentziaren esaldia egikaritzen da, baina iruntzitara orain: hizkuntza/herriak eta arraza/nazioak Estatua osatzen dute (Leviatan); tiranoa bera da nazio eta hizkuntza. Gero Iraultza etorri da eta iraultzaileen nazio nazionalista eta jakobinismo linguistikoa. Frantziako usadioan nazioa eta Estatua/hizkuntza batbera bilakatu da.

Aldiz herrialde germaniar eta eslaviarretan (Krimeako eta Ukrainako 'hizkuntza/nazio errusiarreko' probintzien arazoan egunotantxe dakusgunez), Italian, Ingalaterran ere gehien-gehienbat, XX. mendera arte hizkuntza/nazioaren kontzeptu tradizionala gorde da. Hizkuntza/nazioaz jarduteko tenorean ez dago nazioaren kontzeptu frantses edo alemanik, baizik ere betiko eta tradizional mendebalean amankomuna, alde batetik (Renanek ere beti baliatu duena, 1882ko

konferentzian eta haren inguruko testuetan izan ezik), eta bestetik frantsesa, historia nazional eta interes nazionalista oso frantsesengatik nazioa eta Estatua identifikatu duena, eta espainolek berenganatu nahi dutena.

Zergatik agitzen da nahaste-borraste totala, hala ere, nazioaren arazoaz mintzatzea, eta ez Sarrionandiaren liburua? Arazoa Estatuaz jarduterakoan dago. Gaurko nahasketa eragin duten faktoreak ezberdinak dira, ingeles eta frantsesez euren historiagatik hizkuntzan zegoen anfibiologiak gainera. XX. mendeko bi Mundu Gerren inguruan eta deskolonizazio prozesuekin batera sortu diren erakunde 'inter-nazionaletan', Estatua adierazteko Nazioa esatea zabalduz joan da (Nazioen Liga, Nazio Batuak, etab.), Estatuaren beren interesagatik, berak

Zergatik agitzen da nahaste-borraste totala, hala ere, nazioaren arazoaz mintzatzea? Arazoa Estatuaz jarduterakoan dago

baino beste errealitate politikorik aintzat har ez dadin. Hirugarren Mundu deskolonizatuan Estatu independente berri nazioanitzek naziook (etniak) neutralizatzeko xedeaz praktikatzen duten antietnizismoa bereziki salatzen du Sarrionandiak (380-382). Kontrol politikoa lexikoaren kontroletik hasten da (oroit izenematearen garrantziaz aipaturikoa). Espainia eta Frantzia ez dira egunotantxe adibide txarrak: Kataluniak ezin dio inola ere bere buruari nazio iritzi, etab.

Zerikusi hurbilagoa gure gaiarekin nazioaren eta nazionalismoen ikerketan guztiz arruntua dagoen bi nazio kontzeptuen klixea da. Sarrionandiak, tentuz eta zentzuz, kasurik ere ez dio egin. (Barka sinplifikazio askotxoak laburtasunaren amorez).

Nazioaz modu batean zein bestean mintzatu, nazioaren teoriaren bat beti konprometatzen duzu. Sarrionandiak badaki hori eta, arazoa datorrenean, bera ez baitago eskrima teorikoetan interesatua, izkintxo bezala egin eta beste maila batera pasarazten gaitu. Ondo egiten duela, uste dut. Eta uste dut, funtsezkoa dela horri erreparatzea, eztabaida teorikoak

saihesteko erabakiari alegia, nazioaren arazoan Sarrionandia nola mugitzen den eta haren proposamen batzuen zentzua zein den segitzeko.

Nazioaren teoria konpleto bat, hortaz (zer izan liteke hori?) edo definizio akabaila bat, eskuliburuetakomaneran, ez du eskaintzen, inon ez du bilatzen ere. Hurbilketak probatzen dira, problemaren unean uneko haztamuak, perspektiba ezberdinen espermentatzeak behin eta berriro. Bi kasu aipatuko dut. Aurrena «Nazionalismoa zer den» atala da. Frase honekin hasten da: «Nazionalismoa zeri deitzen zaion zehazteko, Ernest Gellnerren eskema onar daiteke abiapuntutzat» (392). Autore horren ikuspegian nazioa eta nazionalismoa fenomeno modernoak dira, iraultza industrialarekin agertuak. Bietan lehena nazionalismoa da; h. d., nazionalismoa ez da nazioaren ondorioa, baizik alderantziz, nazionalismoak moldatzen du nazioa. Gellnerren teoria azaldu eta hurrengo orrian irakurtzen dugu: «Badira Ernest Gellnerren eskeman argiak ez diren aspektu batzuk edo, sinpleki, okertzat har daitezkeenak». A.D. Smith, W. Connor, eta abarren posizioak azaltzen segitzen da. Oin-ohar txit irakurgarri batean Josep L. Llobera katalanak, kontrara, nazionalismoaren hastapenak Erdi Aroan kokatzen dituela, jakinarazten digu; ukatu egiten duela nazioa nazionalismoak asmatu duena, etab., eta nazionalismoaren hastapen modernoa «gizarte zibilaren» ekarpenetzat esplikatzen duela (646-647). Beste orri batzuk geroago, azkenik, Renan «boluntarista» aipatzen da:

Renanek, nazionalista frantsesa izanik ere, konprenitzen zuen Frantziako mugak ez zirela naturalak ez derrigorrezkoak. Nazioa ez zela halabehar geografiko, etniko, erlijioso edo linguistikoa, baizik ideia politiko bat, eta nazionalismoa ideia horretan parte hartzea zela, *modu librean* (404).

Kasi ezinbestekoa zirudien hor bi kontzeptuen topikoa aipatzeak, baina bera, definizioen kontua bazter utzi eta, bidean aurrera doa. Gellner solas kritiko baterako abiapuntua izan dizu, ez besterik.

Ez dago dudarik, industrializazio eta merkatuen gatazka-ekin nazionalismoa bidutzi edo munstro berri bat bezala gailendu da historian, eta interes eta perspektiba horrekin abordatzen bada nazioen arazoa, ez dago objektiorik. Nazio eta nazionalismo ororen teoria gisa aurkezten bada, aldiz, monarkia Luis XIV.ak edo antisemitismoa Hitlerrek asmatu zutela defendatzea bezalatsu dirudi. Era berean, nazio arazoaren arloan sartzeko (eskolan, adibidez) zilegizkoa izan liteke bi kontzeptuen esaunda komuna hartzea abiapuntutzat –gero seguruenik baliaagarritasunik eskasena ebidentziatzeko izango bada ere–. Izan ere, kontzeptu horiek polemikoak baitira, ez heuristikoak; frantsesek eurentzat eta etsaiarentzat asmatuak, biak frantsesak, testuinguru historiko jakin baten perspektibatik konprenigarriak. Horrela ulertu ezker ez dago arazorik. Zilegizkoa ez dirudiena da, bi kontzeptu dagoela eta, hori argumentazioaren oinarri bihurtu, praktikan bi kontzeptuon zerbitzu intelektuala a priori bata onetsia eta bestea gaitzetsia edukitzea besterik ez baita. Beraz, Renan aipatu bai, baina bi kontzeptuen topiko obligatuari Sarrionandiak ez dio jaramonik egiten. Berari hemen benetan axola zaiona autodeterminazio eskubidea da, «eskubideak izateko eskubidea» (401), eta nazioaren teoriak hartarako bide hainean interesatzen dira. Renanen nazio kontzeptuan ere, hortaz, berari zinez inporta zaiona aipaturiko esaldiaren bukaeratxoan ikusten da: Estatuak hala Konstituzioak gorabehera, ideia nazionalen parte hartzeko moduaren librea da nabarmendua. Inoren frantsesa izan ala espainola izatea «nahierazkoa izan behar» da; katalanek edo euskaldunek zer izan gura duten, eurek erabaki behar dute libre-libre (389). «Autodeterminazioa da nazionalismoen arteko gatazkak soluzionatzeko metodo demokratikoa, eta kontratu soziala berriztatzeko prozedura logikoa» (404).

Bigarren adibidea Renanen konferentziako prozedura imitatzen diharduen batekoa da: nazioa zer den itauna, aber-tzaletasunaren arrazoiak zeintzuk diren edo hark nola justifikatzen duen bere nahia, bihurtzen da (independentzia nahia, esango dugu oraingoz); eta arrazoioren araketa, zer ez

da nazioa? bihurtzen da. Eman izan diren edo litezkeen argumentuen gainbegiratxo bat egiten du, banan-banan denak ezestuz dihoala (antza): historiaren arrazoia, geografia edo lurraldearen arrazoia, hizkuntzaren arrazoia, arrazoi sozial-proletarioa (behin bateko «hemen lan dagiten guztiek osatzen dute euskal nazioa» hura), arrazoi sentimentalak, bizikidetza arrazoia («unidad de destino en lo negativo» amankomunaren antzeko zerbait). «Erresuma mediebal bat ezin da inongo emantzipazio asmoren erreferentzia izan [Nafarroa]». «Nazioa ez da lurra, baizik jendea». «Arazoa ez da euskalduna izatea, baizik euskara baztertu duten estatu biren azpitik libratzea». «Nazioa ez da nonbaiten bizitzea [lan egitea], baizik nonbaiteko politikan parte hartu gura izatea». Euskal Herriaganako eraspen sentimentalak, «ondorio politikorik atera gabe», ez du deusetarako balio (509-510). Eta segida-segidan: «Independentziaren alde mila arrazoi dago [...], bakoitzak izango ditu bereak» (511). Hau da, arretaz irakurri ezkerro, aurreko ezespeneekin aditzera ematen zaiguna da, egon argumentu horiek denak bai eta beste asko ere bai badagoela, baina jokia jokutzen praxiaren mailan ari garela, ez arrazoienean. Hori garbi lagatzen dute hurrengo lerroek. Baina horiekin jarraitu baino lehen, beste parentesi batean pausatzea komeni zaigu historia dela medio.

Nazionalismoa eta historia

Historiaren inguruan polemika dago gure artean. Bestetik, Europako 'Aro nazionala' esango genukeenean bezala (XIX-XX) historia gizarte zientzietan oinarritzkoa honezkero ez bada ere, soziologiak destronatua (zirkulu batzuetan Hegel lacanizatuak agian), irakurzaletasunari soegitea aski da, irakurgai historikoentzat euskal jendearengan zinez dagoen afizioa ziurtatzeko.

Dena den, historiak egiten den zenbait erabilera ez ei da Sarrionandiaren gogoko: «Historiaren interpretazioaren nolalahikotasunaz aparte, historiaren bidea jarraitzea bezain

arrazoizkoa eta bidezkoa izan daiteke historia aldatzea», protestatu du (509-510). Historiak ez du balio argumentuen arsenal gisa, ez digu arrazoia ematen edo kentzen. Puntu honetaz badago liburu txiki zoragarri bat, xarmanta bezain mamitsua, abertzaletasunaren eztabaida gazteaz interesatu guztiei bihotzaren bihotzetik gomendatzekoa: Leoné, S., *Euskal Herri imajinario baten alde*, Elkar, 2008. Gaztelaniazko bertsiopolita: «Euskal Herria existe porque hemos sido capaces de imaginarla», in: *Garaia. Cultura y sociedad navarra* 1, 2012, 3-10. Hau da: etorkizuna erabaki behar dugu; eta biziok zein politika erabaki behar dugun gaur, ez digute erabaki hildakoek atzo! Eko baten antzera entzuten da Leonéren ironia M. Barrèsen eslogan dohakabeari: «la terre et les morts» («une patrie est fondée sur les morts et sur la terre»), hori bera Renanen nazio kontzeptua baino ez dena jatorrian. Ezin dugu gure pentsamendua eta sentimentua iraganaren jopu estekatu. Bozkatu guk egiten dugu, ez arbasoek guregatik. «Nazioa eraikitzeko eskubidea borondate kolektiboaren ondorioa da, ez historiarena» (509), irakurtzen diogu Sarrionandiari. Abertzaletasunaren legitimazioa ez dago iraganean, ez dugu historia teologia nazional bihurtu behar. Ez da euskaldunek antzinenetik hizkuntza propioa izatea, behiala munduko demokratenak izana edo Orreagan Karlomagnoaren tropak abarrikatzea, gure askezaletasuna gaur justifikatzen duena.

Bestalde, ordea, ongi dago historia nazionalista espainola ez ifrentzuz jartzea euskal historia nazionalista batean: XIX. mendetik geu lekutuak ez bagara, bera da aspalditxo guregandik lekutua. Ongi dago kritikariengan pentsatzea eta neurtuak izatea gure arazoietan. Kontzeptuetan zehatzak, historiarekin erabat errigortsuak. Moderatuak esijentzietan. Ongi dago gure posizioa total razionalizatzea (kritikarien mirabe eternal jarraitzeko arriskuarekin). Bestalde, baina, nazioa bezalaxe, historia ere azken finean asmatu egiten da, eta asmaketa moduak zientzietatik mitoraino asko daude, denak legitimoak bakoitza bere modura (ik. P. Veyne, beste askoren artean). Historia izan genezake espilu bat («moroak gara?»).

Lagun lezake oraina argitzen, ulertzen, gure egoera beste batzuekin konparatzen. Irakatsi ziguten historiaren kontrai-kasten lagun lezake. Bilakabide posible galduen arrazoiak ikasten. «Oraina betetzeko eta etorkizunari zentzua emateko» historia beharrezkoa da (506). Historia moduren batean 'magistra vitae' izan ahal izatea, aldez aurretik ez litzateke baztertu behar. Beste gauza bat da, ikasi baino gehiago berri irakatsi nahi izaten ez ote dugun. («Herrien historiatic ikasten duguna da, herriek ez dutela historiatic deus ikasi», etsitzen zuen Hegelek). Ez da antirrazionala, ez irrazionala, kaleak artelanez eta floraz edertzea, hiriak ekologiaz bizigarritzea, mendiak poesiaz beztitzea, errekek ipuinez, iragana legendaz, etorkizuna utopiaz. Historia nobelatzea, mitifikatzea. Unibertsoa nola beztitzen dugun, hala janzten gaitu berak; mundua eginez egiten dugu geure burua. Munduan geuk ipini dugun borondate eta emozioa da, berak itzuli eta emango digun borondate eta emozioa; hots, kontzientzia.

Ez da antirrazionala,
ez irrazionala, historia
nobelatzea, mitifikatzea.
Unibertsoa nola
beztitzen dugun, hala
janzten gaitu berak;
mundua eginez egiten
dugu geure burua

Izan ala egin?

Nazioa eta kontzientziaren, nahiaren haria birrartu dugu. Liburua irakurtzen jarraituz: nazioaren aipatu 'arrazoiak' (ezaugarri objektiboak esan ohi direnak funtsean) bata bestearen ondoren ezeztu dituenean, Sarrionandiak sost konklusio honekin ezustetzen gaitu:

Nazioa ez da izate bat, egite bat baizik. Ez dago aldez aurretik determinatuta. Politika egitea, etxea eraikitzea bezala, gogoa eta jarduna da. Eraikitzen ez den artean ez dago ezer, zentzu politikoan behintzat. Euskal nazioa ez da eginda dagoen zerbait, egiteko dago. Euskaldunak, besteak bezala, egiten dutena izango dira (511).

Nazioaren arazoan diskurtsoa aldaraztean dagoela dirudi Sarrionandiaren ahalegin behinena. Planoak aldatzean, kontsiderazio teorikoetatik praxiaren gogoetara.

Nazioa ez dago, egin egin behar da. Nola? Desagun: nazioa ez du kontzientziak egiten, baina kontzientziak eta nahiak egiten du nazioa subjektu politiko (eta perspektiba politiko horixe hautatu bada solaserako –maizenik hala egiten da– nazioa kontzientziak egiten duelako suposizioak balio du). Gure kasuan, gainera, zentzu are erradikalagoan balio du: nazio triskilatua gara eta nazioa birregin nahian dihardugu lanean eta borrokan. Kontzientzia eta borondatea behar da euskara ikasteko, gurasoek ezinda haurrak euskalduntzeko, folklorea zaintzeko, euskal kulturaren eta letretan murgiltzeko, klandestinitatean sartzeko, politikari ekiteko..., prepotentziari ez makurtzeko, ez etsitzeko. Nazioa egin egiten dena baldin bada, egia da autokontzientzia nazioaren iturrian eta oinarrian dagoela.

Nazioaz eta Estatuaz

Zer esan nazioaz eta Estatuaz? Maiz irakurtzen da, kasu batzuetan Estatuak egin omen duela nazioa (Ingalaterra eta Frantzia aipatzen dira), beste batzuetan nazioak egin duela Estatu (Alemania). Goitik beherako eta behetik gorako naziogintzaren bi eredu historikoak izango lirateke. Baina nazioak Estatu eraikitzeak berez ez du 'naziogintzarekin' zerikusirik (berdin izan liteke nazioaren desegintza). Aparte, jakina, Zurich eta Innsbruck eta Brixen, esaterako, nazio alemanekoak, baina Italia, Austria, Suitza Estatuetakoa hiriak direla. Ez dago 'bi eredurik'.

Nazio kontzientzia politikoaren jomuga tradizionala independentzia izan da, Estatuaren jabetasuna (burujabetasunaren adieran) –nazioaren eta Estatuaren arazora itzuli gara honekin–. «Euskal nazionalismoak –irakurtzen dugu–, nazionalismo espainolak edo frantsesak bezala, irizpide territoriala du eta, logikoki, independentzia nahi du» (404).

Estatuak boterea esan gura du, dominazio eta kontrol soziala. Nahitaez Estatua itsusia da beti. Horregatik batzuek ez dute euskal Estaturik nahi. Zer duda, euskal Estatuaren edozein ideia da kritikagarri. Euskadi burujabe bat ez litzateke askatasun, berdintasun eta haurridetasunaren parabisua izango. Hala ere, munduko kritikagarriena neuretzat ezin kritikarako ezin bide eman ez lezakeen ederraren ederrezko proposamen batean errefuxiatzea izango genuke. Ez duelako zinezko ezin posibilitate eskaintzen. Nirvanako falazia. Ederren eder hori pentsa daiteke, eta beti pentsamenduan izatea komeni da, kantiarki gure jokamoldea uneoro gidatzeko. Ideia arauemaile gisa, inoiz ez errealitatearen forma bezala. Terrorean amaitu gura ez bada. «Le mieux est l'ennemi du bien» esan ohi da Voltairerekin.

Beste arrazoi bat euskal Estatuaren aurka bozgoratzen dena, aro postnazionalaren esames gezurrezkoa da (506-509), hori XIX. mendekoa omen dela eta euskal Estatua nahi luketenak atzokotzat deskreditatuz, Estatuaren gaindipena omen dena Estatu espainolaren baiespen bihurtuz.

Puntu honetan Sarrionandiaren gogoetan bi momentu bereizi behar da: bat, euskal Estatu baten kontrario espainolistekin polemizatzen duena; bigarrena, euskal Estatu batez berak pertsonalki ohartarazten duena. Ohar polemikoetatik hasiz:

Estatu bat antolatzeko euskaldunen ideia hain patologikoa baldin bada espainolentzat, zergatik antolatu dute beraiena? Eta zer dela eta mantentzen dute nazio-estatu hori hainbesteko grinaz eta arduraz, non lur zati bat kentzea ere laidoa iruditzen zaien.

Euskaldun askok euskal estatu bat nahi izatea arrazionala dela, ez patologikoa, edozeinek ulertzeko modukoa behar luke[ena] da berez. Espainolek bakarrik ez, beste herri batzuek ere badute euren estatua, eta arrazionaltzat eta normaltzat hartzen da. Espainolek beste edozeinek baino hobeto ulertu beharko lukete herri batek estatua izan nahi izatea, beraiek estatu bat dutenez gero, eta estatu hori babestu nahi dutenez gero.

Patologikoa, izatekotan, bestearen iritzia haintzat ez hartzea da. Bestearen erabakimena ukatu eta, gainera, norbera benefaktore gisa agertu nahi izatea. Horixe da umeekin eta eroekin egi ten dena. Eta salbaiekin (402).

Estatua gainditua egon ala ez egon, demokrazia gainditua ez dagoen artean herrien askatasun eskubidea ez dago gainditua. Autodeterminazioa ez da kontzeptu nazionalista, eskubide demokratikoa baizik (404). De fakto, baina, ukatu egiten da eskubide hori. Hori onartzeko, izan ere, Estatu demokratikoak demokratikoa izan beharko luke –«herritarren erabaki askearen ondorioa»–, eta ez da. Estatua historikoki biolentziaren eta inposizioaren ondorioa da eta jarraitzen du izaten bere egitamu guztian.

Nola izango da ba nazio-estatu demokratikoa, pertsonak zein estatutan parte hartu nahi duen aukeratu ezin badu? Zertan har daiteke nazio-estatuaren sistema demokratikotzat, herriek ezin badute beste nazio-estaturik eratu? (508).

Horrekin ez da ulertu behar bera besterik gabe euskal Estatuaren alde dagoela.

... euskaldun gizajeok –medio gutxi eta imajinazio gutxiago– ez dute, erradikalek ere, espainolek eta frantsesek dagoeneko egin dutena baizik egin nahi: nazio-estatu sinple bat. Horrek beste sinplekeria batzuk inplikatzeko ditu, jakina, futbol selekzio nazionala esate baterako. Ondamutsu hutsak dira alde horretatik euskaldunak. Espainiaren eta Frantziaren antzeratzaile apal batzuk (489).

Baina, horrekin ere, berriro, ezin da ulertu bera asmo horien kontra dagoela: berak ulertzen ez duena da, euskaldunek espainol eta frantsesen asmo berak izanik, intelektual espainol eta frantsesek ez ulertzea euskaldunen halako asmo sinpleak.

Estatuaren auziarekin biolentziarena dator. Espainol eta frantsesentzat ongi dagoena, zergatik dago gaizki euskaldunentzat? Estatua, biolentziaren monopolioa eskuetan duena, biolentziaren emaitza da bera. Renanek nazioa egoteko (probintzien elkartasun nazionala) ahaztu egin behar dela, esaten zuen, Estatuaren alderdi hori, biolentzia historikoarena nahiz Estatuaren oraingo izaera biolentziaarena. Sarrionandiak, alderantziz. Baina biolentzia historikoa baino gehiago berak oraingoa nabarmentzen du, biolentzia sinbolikoaren garrantzia azpimarratuz.

Historiografia ugaria dago estatuen zerbitzuan eta, nazio-estatu espainola edo frantsesa eraikitzeke helburua onartuz gero, logikoa da horretarako erabilitako biolentzia fisiko eta sinbolikoak bidezko, halabeharrezko eta egokitzat hartzea. Baina berdin da logikoa, euskaldunek nazio-estatu propio bat izan dezaketela pentsatzen dutenentzat, beste estatuok eraikitzeke euskaldunen aurka erabilitako biolentzia fisiko eta sinbolikoa, nabarmena eta iraunkorra objektiboki, arrazoi gabekoa eta ezin zurituzkoa izatea (685).

Ez-dependentsiaz

Sarrionandia ez da objektio espainolistei erantzutera mugatzen. Konkretuki nola pentsatu independentzia (nahitaez inter-dependentsia) edo euskal Estatua, zaila da pulamentuzko ezer modu orokor abstraktuan airean ebaztea, egingarri gerta ledineko baldintzek zer aginduko luketen jakin gabe: «Marco Polok [...] helburu duen hiria ez da ondo ikusten» (517).

Horregatik, edo beste edozergatik, Sarrionandiak aukera ezberdinen aurrean neutral geratzea hautatu duela iruditzen zait. Batzuentzat –dio– independentzia ezinbestekoa da, bestela estatu-nazioen mundu batean Euskal Herria ez da inoiz normalizatuko. Beste batzuentzat independentzia ezinezkoa da, gutxiengoa gara. Hurrengoentzat gehiengoa garen barrutietan bederen geure erako biziera autonomoa garatzen permatu behar dugu. («Bide hau zabaldu nahi izan zuen Engracio Aranzadiren *Ereintzak*, 1935, independentziaren bidea itxita aurkitzean. Autonomia, lekuan lekuko boterea izateko», 696). Laugarren batzuek pentsatzen dute gaurko munduan estatuak ez direla erabakigarriak, eta mundu osoan ahalegindu beharra dagoela egitura sozio-ekonomikoekin batera politika eta kultura hobetzen. «Lau ikuspegiak desberdinak eta kontradiktorioak dira. Baina osagarritzat ere har daitezke» (518). Bide denak dira onak, ibiltzen badira.

Utopiaren errebindikazioa

Sarrionandiaren sinpatia, nolana ere, neo-anarkismo itxurako posizioaren alderakoa da. Posiziorik ahulena da

(«inolako botererik erabiltzeari uko egingo liokeelako»), baina «itzelezko funtsa du». Ideia gisa ala indar sozial eraldatzaile zinez posible gisa?, itauntzen duzu. Erantzuna hau da:

Egitasmo ederra da euskalduntasuna estatuaren eta boterearen ideiatik erabat apartatzea, biolentziaren eta boterearen monopolioa 'gizon zuriari' utzirik [R. Kipling]. Ondo begiratuz gero, pribilegioa da arma, muga, lege edota zergarik ezartzen ez duen herri bat proposatzea. Nagusi diren eredu baztertzailak imitatu beharrean [...], euskaldunek askatasunaren eta erabakimenaren bidean bere burua ere eztabaidan izango lukeen nazio bat proposa dezakete. Euskal nazioa euskaldunen askatasuna antolatzeko modua litzateke. Askatasun hori eratzea, dagoeneko, helburua hemen eta orain gauzatzea litzateke (518).

«Utopia hitz inportantea da» irakurri dugu 516. orrian.

Nola baloratu proposamen aski bitxi hori? Azkenetako ohar batean Sarrionandiak «epidiktiko hutsa» deritzo bere liburuari: idatzi gabeko beste liburu baten 'Gehigarria' antzekoa, «gogoeta urrutiko, desarrazoizko eta marjinalokin» (700). Hori da berak ematen duen giltza testua interpretatzeko (ez dut esaten testu baten interpreterik hoberena autorea denik).

Epidiktikoa testu zertarakogabetsua da. Posizio bat azaltzen duena, baina ez tesi bat. Ez da argumentatiboa, ez epaiaren edo programaren baten alde, ez batzarreko erabaki baten kontra edo alde. Ez du tesiren bat aurkeztea eta oinarritzea bilatzen, ez ebazpen baten alde ala kontra inor konbentzitzea. Entzule/irakurleak entretenezteko, gozarazteko, edo hausnarrean euren baitarazteko baizik ez da. Bertsoaldi bat bezala, edo igandeko sermoi bat; edo hainbat sermoitxoren bilduma erregelatua kasu honetan (sermoiak ere zentzu positibo bat izatea posible izan behar du, ezta?). Xedea erakusketa da (epideiksis, gr.), istorio batzuk, ideia batzuk ikusi eragitea, seinalatzea.

Sarrionandiak
«epidiktiko hutsa»
deritzo bere liburuari.
Epidiktikoa testu
zertarakogabetsua da.
Posizio bat azaltzen
duena, baina
ez tesi bat

Zer besterik egin –eragin– lezake idazleak? Liburuan badaude meditazio etsiaren –estoikoaren– tonuak, bizitzaren ezteustasunaren gogoetak gomutarazten dituztenak. Batzuk esperientzia pertsonalari begirakoak dira:

Demokraziaren eta askatasunaren alde borroka egin genuen behialako gazteek gure heldutasunean hausnartzen dugun harri-dura da [...]: badirudi nahi ez genuen ia guzia lortu dugula. Ez dugu mundua aldatu, eta hori iragarpenen barruan sartzen zen, baina geure ingurua ere ez. Eta geure burua ere, ez dugu hobetu ahal izan (531).

Idazlearen ahal apurraz:

Edozein gogoeta, espektakuluaren osagarri da. Behiala hainbeste planteatzen zen konpromiso literarioaren eztabaida hura ere itxuragabea da, berdin delako eskuin zein ezker. Dominazio sistema ez da hor erabakitzen, beste plano batean dago (529).

Beste batzuetan filosofia etsi unibertsalagoa islatzen da.

Benetako erabakiak hartuta daude [...], ia beti egon diren legez. Beste aukerarik ezaren bidez errepresentatzen da dena. Baietza eta ezetza ere integraturik daude sisteman, eta egia eta gezurra, eta konformista eta apokaliptikoa (530).

Espektakulu integral bat dugu orduan. Espektakulu global bat antzerki subordinatu eta ikuskizun osagarri askorekin. Denok dugu papera hor, eta seguru nago denok dugula paper desegokia betetzearen sentsazioa (531).

Idazleak, idaztean, ikuskizun batean berari dagokion roltxoak jokatzen du, besterik ez. Iraultzaileak eta matxinoak sisteman, beraz ordena handian, tokatzen zaiena egiten dute. Dena erre-presentazioa da, ilusioa –esango zukeen Schopenhauerrek–, ezer ez da. Fatalismo musulmanaren kutsadura? Errealitatearen ikuskera hori ere badago giza esperientzian. Erlijio guztiak lekuko eta filosofia ez gutxi, Sisiforen mitoa ez aipatzeko. Anbiguitate horietan kulunkatzen da giza esperientzia.

Azkenean, alabaina, ez zaio fatalitateari men egin nahi: «Ez dago ezer idatzita» (540; ik. 524, 543). Etsimendua ez da Sarrionandiaren azkeneko hitza. Aitzitik, aspaldian

errepresentatzen ari garen teatroa aspergarria da, eta «antzerkia jasanezina denean, ikusle gogaitu eta arduragabeok altxatu egin daitezke aulkietatik. Antzerkia berez desegingo da orduan» (516).

Beste antzerki baten oreina

Beste antzerki bat has daiteke. Antzerki berria nolakoxea jokatu oraindik asmatzeko badago ere, orain arteko testua baztertu beharraz ez du zalantzarik txikiena: «Aldatu beharra dago azkeneko hogeita hamar urteotako gure politikako pastoral gogaikarri eta triste hori» (517). Behin eta berriro politika egitearen garrantzia enfatizatzen da.

Berak ez du horrelaxe esaten, baina borroka armatuaren lekuan politika hobetsi beharraz ariko dela, pentsa liteke.

Laster ulertzen da, hala ere, lehenik eta behin politikarekin ez duela ohiko alderdi eta bozketa sisteman pentsatzen (ukatu ere ez du egiten hori, baina bai oso kritikoki epaitu eta berari gutxi interesatzen zaiola erakutsi), politikaren modu alternatiboren batean baizik.

Utopiaren magiarik gabe, gizartea hobetzeko aukerarik ez bada, normala da herritarrek konformista bihurtzea. Politikak ez badu bestelako hodeiertz desiragarri bat proposatzen, jendeak ez badu politikan gizarte hobe bat eraikitzeko modurik ikusten, orduan, logikoa da kontabilitate eta balorazio ekonomikoki egoistak eta politikoki kontserbadoreak hobestea. Dagoena halabeharrezkoarekin konfunditzen da, naturarekin ia. Egoerari benetako alternatibarik ez bada, zertarako politika?

Botoa ematea, inportantea izanda ere, ez da benetako ekintza politikoa. Ekintza estatala da: estatuak esaten du non, noiz eta zer aukeratu behar den. Erabakitzen denaren aldetik ere benetako aukerarik ez da izaten normalean. Gobernua alda daiteke, ez estatua. Hauteskundeak estatuaren funtzionamenduaren egiaztatze eta zuritzea dira. Hauteskundeetan herritarren parte hartzeak estatua legitimatzen du, baina boza ematea ez da hagatik aktibitate aske eta benetan politiko bihurtzen.

Estatuak zeharo kontrolatzen du bere egitura politikoa, baina gainerako beste espazio guzria ere bai. Pertsonari, taldeei, bakoi-

tzari bere lekua uzten zaio, baina estatua da gauza bakoitza non egon behar den, eta nondik nora mugi daitekeen baimentzen duena. Ez aparkalekuak edo prostituzioa bakarrik, leku eta norabide aldaketak eragotzirik, aktibitate guzien espazioa mugatzen du. Estatuarenaz aparte 'politikoa' izan daitekeen edozein jarduera debekatzen du, era batean edo bestean.

Ekintza politikoak, ostera, espazioa eta denbora sortzen du, politikaren esparru bakarra estatua ez dela eta politika handia ere posible dela erakutsirik. Ekintza benetan politikoan, merkatuaren eta estatuaren instituzioez aparte, herritarrek erabakitzen dute non, noiz eta zer egin. Botereaz aparteko aktibitateek gune fisiko edo birtualak obratzen dituzte politika-lekutzat. Eta denbora sortzen dute, hauteskunde kalendarioez gain (514).

Politika herritar eta (zentzurik positiboenean) 'utopiko' hori konkretuki zernolako jarduera eta lorpenetan etzango litzatekeen zehaztasun askorik ematen ez duen arren (idazle epidiktikoari ez dagokio programak laboratzea), erreferentzia gisa 60ko eta 70eko hamarkadetako ekintza herritarrak (festak, borrokak, auzo mugimenduak) gogoratzen ditu (514). Politika horri jartzen dion estreinako baldintza desinteresa da: «desinteresa benetako politikaren lehenengo pausua da [...]. Politika desinteresatua izan behar da igoalarioa izateko» (516). Handik aurrera, politika horretan engaiatu gura dutenek, «antzezlekuko ataurrean dagoen zabortegian topatuko dituzte, historiako hondakinekin batera, posibilitate gauzatu gabeak edo estreinatu gabeko libretoak» (517). Sekulako garaipenak eta irabaziak ez dira menturaz lortuko, baina «mundua aldatzeko ez da derrigorrez mundu osoa aldatu behar. Nahikoa da puntu txiki bat, eta mundua aldatzea posible dela obserbatuko da puntu horretan» (517).

Zer egin?

Politika nazionalera etorritz: euskal Estatua, independentzia, eskubidea da, azpimarratzen du beti, eta eskubidea obligazio bezala hartu behar dela, erremarkatzen du, botereak ukatzen edo aintzat hartzen ez badu batez ere (408, 517).

Gure bi nazio-estatu natural eta kosmikoak ez daude euskaldunei eskubideak emateko antolatuta.

Eskubideak berez ez datozenean ‘eginbehar’ terminoetan planteatu behar dira [...]. ‘Autodeterminazio eskubidea’, zentzu abstraktu, indeterminatu eta apur bat biktimistan aipatzen da. Ez ote da egokiagoa ‘autodeterminazio obligazioaz’ hitz egitea? Euskaldunek subjektu arduradun eta aktiboak izateko eskubidea dute, eskubide hitzaren zentzu guzietan. Hau da, betebeharra eta zeregina dute. Libre izateko eskubidea libre izateko obligazioa da (517, ik. 516).

Autodeterminazioarekin ez da ulertu behar, berriro, momentu bateko akto publikoa legez, subirania politikoaren erakusketazko egintza, independentzia deklarazioa adierazi ahalko lukeena. Edo hori ere bai: Euskadi bozaldi bakoitzean

Sarrionandiari gehien interesatzen zaiona herriko lanaren maila da. Ideia politiko batean egunero aktiboki parte hartzea, egunero praktikaturiko autodeterminazioa

autodeterminatzen zela eta, euren programetan autodeterminazio eskubidearen aitorpena ezabatu zuten alderdiak kritikatzeko dituzten hain zuzen (651). Baina berri gehien interesatzen zaiona herriko lanaren maila da. Ideia politiko batean egunero aktiboki parte hartzea, egunero praktikaturiko autodeterminazioa, «eguneroko plebiszitua» Renanen hitzetan (404, 651).

Interesatzen zaion nazioa eta askatasuna ere Ez-Estatuarena da. Autodeterminazioa akto gisa, euskal Estatua, eragozten zaigunez, gure askatasuna eta subirania ‘komunitate nazionalaren’ egintza gisa planteatu behar dugu.

Estatua ukatzen zaigunez gero, ez dugu aparataturik izango. Handikeriak eta norgehiagokak agintzen duen sasoi honetan ez behartzat hartuko dute batzuek estaturik ez izatea [...]. Baina, beste ikuspegi batetik, pribilegio handia izango da estatua ez den nazio batean bizitzea.

Euskal gizarte zibila, herritartasun boluntarioarekin. Ez dakit ondo nortzuk izango garen, imajinatu egin behar dugu, eta eus-

kaldun guziak antolatzen ahalegindu. Nazioak asmatu eta eraiki egiten dira. Horren kontzientziak askatasun handia ematen digu sortzeko eta emendatzeko, helburutzat nahi duguna irudikatze-ko eta hori egunerokotasunean jadanik bizitzen hasteko.

Eta karga dezatela estatuotako gizon zuriek [ik. 141 eta 262-264, oin-oharrekin] biolentziaren zama lepo gainean, karga dezatela biolentziaren monopolio lotsagarri horrekin. Ez Poliziarik, ez legerik, ez armadarik, ez kartzelarik. Ez mugarik: beste nazionalitatei ongiatorria egingo zaie. Euskal Herrian, eta euskaldun bakoitza doan lekuraino ailegatuko da, pasaporterik gabeko euskal herritartasun unibertsal hori.

Euskaldunen eginbearra da estaturik gabeko halako nazio bat, bi estatuon artean, gainsortzea. Halako konstituzio bat izkiriatu beharko genuke. Estaturik gabeko nazio librearen konstituzioa. Lehenengo konstituzioa izango litzateke, gizon zuriaren zamarik gabe, askatasuna, igoalitatea eta elkartasuna proklamatzeko praktikan (408-409).

Fragmentu errari bat pentsamendu kontrajarrien meditazionean? Noraezaldiko aterpea, aro berri baten hasierako ekaitzetan?

Irakurleari irudi dakiok iruditu –ez arrazoi gabe, ene us-tean ere– Sarrionandiak ez diola estimu handiegia erakusten oinez-oinezko politika konbentzionalari. Pragmatika instituzional arruntean udaletxeetan, diputazioetan, Legebiltzarrean edo Jaurlaritzan engaiaturiko politika abertzaleari batik bat. Horren zailtasunari –anbiguitate artean beti–, baina horren berebiziko garrantziari. Bere kezka eta iradokizunak ez dihoaz hortik.

Errealismo utopikoaren errebindikazioa

Zertarako independentzia? Irakurleak jakin badaki, Euskadi ez libre eta ez Euskal Herri izanen dela, independentzia deklarazio bat egin delako eta Gorbeiako puntan ikurrin handi bat jarri. Hala eta guztiz ere abertzaletasunaren helburua independentzia baldin bada, nola ailegatu independentziara?

Ez ditzagun politikariaren eta intelektualaren –idazlearen– eginbeharrak eta euren mezuen balioak konfunditu.

Euskararen biziraupenagatik edo beste edozein arrazoirengatik, independentzia gura bada, hartarako urratsen planak zehaztea alderdi politikoei legokieke. Bruselan, Madrilen, Euskadin bertan posibilitateak nola dauden jakin beharko luketenei. Alabaina EH Bilduk esaten du EAJ/PNVk ez dakiela independentziarantz bidea nola joan eta ez duela gogorik ere. EAJ/PNVk esaten du EH Bilduk nahi omen duenak paperean bakarrik balio duela, ezin dela egin. Alderdiak iluntasun totalean galduak badabiltza, ulertzekoa da jendeak idazle eta intelektualengandik itxarotea argia. Orientazio gosea dago. Itxaropen gosea.

Nolanahita ere, Sarrionandiak eskaintzen duena, liburu honetan bederen, ez da independentziarako urratsen egi-tasmoren bat, martxarako lekaioa baizik.

- Aurrera, lagunok!
- Nora?
- Mundua aldatzera! (konpara 495).

Ez dago helburua begien bistan egon beharrik. Abia gaitzen puntu txiki bat aldatuz, ikusiko dugu noraino ailegatzten garen.

Kublai Khanek galdetu dionean nora, zer etorkizunetara doan ontzia, Marco Polok ez du maparik. Marco Polok aitortuko du ez dakiela mapan porturik marrazten, ez ontzia portura zer eguntan arribatuko den aurratsen (517).

Inporta diona nabigaziorako arauak gordetzea da: «memoria historiko on bat etorkizunerantz proiektatua, hizkuntza eta kultura aldetik komunitate horren barruan komunikazioa dentsua izatea, eta berdintasuna eta elkartasunaren zentzua izatea» (520).

Testu epidiktiko bat, 'sermoi' bat, ez da hitzez hitz estu hartzeko diskurtsoa, gomendioaren zentzuan baizik. Gomendioak ere har litezke, ordea, hitzez hitz. Kontrabotere legez paratzeko aldarria egiten ote digu, beharrekoena euskal boterea altxatzea genukeenean askoren ustez? Sarrionandiak euskal Estaturik

batere ez duela nahi, ulertu behar da? Ala borrokako sektore bakoitzaren aktibatzearen (feminismoa, ekologia, etab.) eta guztiokin komunitate nazionala subjektu gisa trinkotzearen lehentasuna? Estaturik eduki arte, eta inoiz euskal Estaturik egongo balitz ere, Estatua eta gizartea (nazioa) biak errealitate ongi diferentziatuak izatea iradokitzen duela, beti ere bera nazio-gizartearen aldean paratzen delarik Nazio-Estatuaren buruz buru? Alabaina, «Estatu-nazioaren ukazioa ez dator gaur bandera libertarioekin –irakurriko diozu berehala–, enpresa ekonomiko handiak dira [hori dagitenak], ez dute oztoporik nahi» (507)... Interpretazioak atezabalik geratzen dira.

Helburuak helburuaren egunerako

Meditazio politikoan ez da izaten ohikoa aintzat hartzea giza naturaren flakia, bizitzaren laburra, heriotzaren hurbila, bakoitzaren behinbakarreketasuna –bakoitza behin bizitzen eta hiltzen da, eta harentzako historian gerorik ez dago–. Politika, batez ere politika ‘iraultzailea’ zuritzeko erabiltzen den teoria –ideologia–, progreso historikoaren filosofia izaten da. Hori gizakion oso gaisetarik ibilki pentsatzen da, bere legeekin eta helburu urrunekin, gizon-emakume banakoak ez du hor balio eta ez du presentzia errealik. I. Mundu Gerrako triskantzak progresoaren optimismoa ere triskatu zuen, eta existentzialismoak, XIX. mendeko historiaren filosofiek zabartu eta Gerra Handiak anker sakrifikaturiko gizabanakoagana itzuli du ardura filosofikoa. Existentzialismoak eragina izan du gerra zibilaren ondoko abertzaletasunean, eta Sarrionandiaren saioan han-hemen senti litezke oihartzunak.

Gizabanakoaren bizitza hain laburra –irakurtzen diogu– eta heriotza hain ebidentzia larria eta behin betikoa da, non luzarora begirako asmoek ez duten zentzu handirik. Norbera bakartiaren esparrua gaindituz, helburu duin kolektiboekin, bizitzak berak hartzen du zentzua (496).

Eguneroko praxian azken helburuen gehiegizko presentziaren aurkako protesta bat suma liteke Sarrionandiaren

hausnarketan. Askotan badakigu azken buruan zer nahi dugun –Euskadi askatua, klase gabeko gizartea–, baina bihar zer egin nahi dugun ez dakigu. Urteak badoaz eta, iraultzarik ez da egin, Euskadi ez da askatu, eta «gizakiak nekatu eta hil egiten dira» (523). Ezin da beti helburuen mistikatik bizi. Askatasuna ezin da beti biharko izan. «Askatasuna ez da noizbaiterako utzi eta berandutzeko dohain edo altxorra, geroa ezezaguna eta ustekabekoa izango delako [...]. Jendea ezin da urterik urte itxarongelan egon» (523).

Gaur egun, politika ‘handia’ botereak atzamarretan due-
nez, Boterearen Politikatik aldentzea izan liteke jendearentzat egiazko politikaren hastapena. ‘Handia’ handiek okupatua badago, helburu definitibo handien tokian askatasun mugatu, askatasun fragmentuen aldeko borrokan aurki lezake norbanakoak bizitzaren zentzua: mugimendu sozialetan.

Bakoitzak bere askatasuna gorde beharrez, eta bakoitzak bere komunitatean aurkitzen duela izaera eta zentzua [...].

Jende multzo desberdinak dira, baina elkarren osagarriak, boterearen aspektu desberdinen kaltea ezagutzen dutelako. Bata bestearen egia konprenitzeko gauza dira, egoera berean daudelako, estatua neutrala ez dela jakiteko abagunean. Badakite merkatuaren eta estatuaren determinazio eta nonahikotasunarekin, politika bahiturik eta txikiturik dagoela. Hagatik hasi dira merkatuaz, estatuaz eta alderdiez aparteko espazioak eta denborak sortzen.

[...]

Politika egitea ez da derrepentean dena erabat aldatzea, XIX. mendean izan zen bezala, 1917 arte. Eta ezin da izan estatu-alderdien botere joko eta lehian endredatzea ere izan, XX. mendean izan zen bezala. Estatua bestela dago antolatuta XXI. mendean, gizartea ere bestelakoa da. Ez da derrigorrez mundu osoa aldatu behar, nahikoa dira puntu txiki batzuk, baina izan daitekeena dena baino benetakoagoa eta hobea dela erakutsi behar da (521).

Sarrionandiaren saioa aldaizetako meditazioa da (haren biografian bezala gerra osteko abertzaletasunaren politikan). Kanbioaren meditazioa. Ideologiak ez dira suntsitu menturaz, baina behialako haien handitasun orobiltzailea bai, apurtu da. Helburuak, eguneroa hertsatzetik, horizonterantz higitu dira.

Utopiak, era berean, beti bezain beharrezkoa izaten darrai, zalantza gabe, baina haren zentzua eta balioa aldatu egin da.

Utopia aktibitate legez imajinatu behar da. Oinarriak eta obra-lana direlako altxatu nahi den eraikuntzaren frogantza. Helburuaren politika bezain inportantea da ordura arteko jokabidearen etika eta, edonola ere, esaten dena baino inportanteagoa da egiten dena (521).

Bizia egunik egun eta orduz ordu bizitzen den eran, zatirik zati alda dezakegu mundua, apurka-apurka irabazi askatasuna.

Peri hermeneias

Sarrionandiaren liburua interpretazio saioen bilduma bat da: munduaren, historiaren, bere herriaren, bere buruaren interpretazio fragmentuak elkarjosirik, mugimendu sozialak elkarloturik nahi lituzkeen moduan. Eta gure hau bera Sarrionandiaren interpretazioen interpretazio saioa baizik ez da.

Azkenean, dena da interpretazioa. Pentsamenduan ez dago interpretazioa besterik.

Amaierako bandan abiatuz, bada. Irakurraldi selektibo honek, orri mokoka, ez du liburuaren irakurketa ordezkatzen. Irla bat ikus-mikustu dugu, liburu a ozeano bat da, itsasalde ezberdinekin eta irla asko: hemen Bizkaiko Golkoa, han itsaso karibea, bestaldean

Gibraltarko estugunea eta Ipar Afrikako uhaldeak, moro herriak. Liburuak itsaso eta lehor asko ibili du. Gainera, perspektiba konparatibo nahiko arraro bat hautatu dugu, Renanekin, eta konparazioa errazten zuen eskema batera bigundu dugu Sarrionandiaren liburua ('behartu' antzeko esanahi batean ere esaten dute Zegaman 'bigundu').

Sarrionandiaren
liburua interpretazio
saioen bilduma bat da:
munduaren, historiaren,
bere herriaren, bere
buruaren interpretazio
fragmentatuak
elkarjosirik

Atera duguna liburu handi baten gai txiki baten orri batzuen interpretazio posible bat da, beste(lako) interpretazio asko posible eta desiragarritzat uzten dugula. Metodo anker samarrarekin. Testuari zer interesatzen zitzaiona gabe, geuri zer interesatzen zitzaigun begiratu dugu. Aldez aurretiko geure galderak inposatu dizkiogu, testuari berari agintzen utzi ordez zein metodorekin hurbildu behar gintzaizkion. Pasarteak zatikatu, perpausak moztu, testu arrotzak elkarri josi: artaziekin irakurri dugu. Pentsamendu asko testuan ez zituzten erlazioetan ipini eta ibilarazi dugu, autoreak egin ez duen testuinguruetan jokarazi hainbat testuri, zenbait ideari ez zituen hedapenak erantsi, adierazi nahi zuena baino gehiagora bultzatu..., interpretazioetan egin ohi den 'biolentzia'.

Interpretatzea manipulatzeko da. Manipulatzeko ez da derri- gor faltsifikatzea. Gadamerrekin esateko, zorte piska batekin testua autoreak berak baino hobeto ulertzea erdiets lezake, era batean. Beste era batean, hemen azaldu duguna zuzena izan liteke (espero dut!), baina ezin izan liteke zuzen osoa. Hasteko, liburuan inon ez da nazioaren kontzeptua gai isolatu bat, guk egin dugun bezala –disekatuz, nolabait–, testuinguru ezberdinetan bizi-bizi dena baizik. Gero, helburu (in)posible bezala osotasuna bilatzekotan, liburuko beste zenbait materialetan sakondu ahal izango edo beharko zen: gramatikaren figura diferenteetan, esaterako (boterearen gramatika, hizkuntzarena, esperantzarena), euskal identitatearen oharretan eta bereberearekin paraleloetan, euskararen garrantzian bereziki (314, 417-420, 431, 433, 435, 540). Euskaraz idaztearen esanahian erresistentzia hainean (431, 433). Txillardegiren *Hizkuntza eta pentsakera*-ri buruz komentatzen du:

Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera berezia ematen duelakoan, euskal literatura eta euskaldunen proiektu politiko nazionala euskarri filosofikoz hornitzeko ahalegina zen agian. Handiek normala balitz bezala agintzen duten munduan, txikiek arrazoi sakonak bilatu behar hizkuntza hitz egiteko ere (417-418).

Txillardegiren tesiari (hizkuntza eta pentsamenduaren loturarena) atxikitzen zaio bera ere, Mirabeauri buruzko Hugo von Kleisten anekdota polit batekin (419): «Hizkera ez da pentsamenduaren transposizio hutsa, faktore eragilea da pentsamenduaren formazioan» (420).

Baina hizkuntzak egiten ote du nazioa? Sarrionandiarentzat hemen ere inportantzia egiteak du, praktikak, ez hizkuntzarik zaharrena, etab., 'edukitzeak': «Ez dugu ezer, hizkuntzarik ere ez daukagu. Ez dugu, egiten ez badugu» (540).

Munduaren aurrean ikuskeraren batekin, filosofia batekin, paratzen gara beti. Sarrionandiarena garbi samar geratu da: izatearena baino, egitearen filosofia da. Zerbait *zer da?*, baino, *zer ari da?*, interesatzen zaio. «Ez gara moroak. Euskaldunak ere ez. Ezer ez garelako erabaki dezakegu zer nahi dugun izan, eta zer nahi dugun egin. Ez gara ezer, egin arte» (540).

Egitekoak ez du ikaratzen. Ibili duen zabor arteko bidaiatik itxaropentsu itzuli da: «Eta kasba eta behelaino artetik ekarri dudana bakarra gramatika hau da, esperantzaren gramatika modu bat» (539). 🌀

Oharrak

1. Artikulu hau 2015eko martxoaren 5ean Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatutako *Joseba Sarrionandia, 35 urte idazten* jardunaldietan emandako hitzaldi batean oinarritzen da.

EUSKARA UNIBERTSITATEAN

69 Unibertsitate-eredu aldaketaren eragina irakasle euskaldunen hizkuntza jarreretan

Ane Larrinaga
Mila Amurrio

93 Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak

Karmele Artetxe

Unibertsitate-eredu aldaketaren eragina irakasle euskaldunen hizkuntza jarreretan

Ane Larrinaga
Mila Amurrio

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasleak eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak

Sarrera

Globalizazioaren eta nazioartekotze prozesuaren ondorioz, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (GHEE) dauden unibertsitateek hainbat aldaketa bizi izan dituzte azken urteotan, esparru akademikoan, antolakuntza eta kudeaketaren esparruan eta, oro har, instituzioaren beraren kulturen eta balioetan. Egiturazko aldaketa horiek eraginak izan dituzte, besteak beste, irakasle eta ikertzaileen lanbidea ulertzeko eta gauzatzeko moduetan. Hartara, XX. mendeko unibertsitate ereduaren zeuden identitate eta rol akademikoak birmoldatzen ari dira, eta baldintza berrietara egokitzen.

Identitate akademiko eraberritu horien barruan, zelan ulertzen da gaur egun nazioartekotutako unibertsitatean aldarrikatzen den hizkuntza aniztasuna? Zer ondorio izan du unibertsitate ereduaren aldaketak akademiko euskaldunen hizkuntza-jarrera eta praktiketan? Beraien ikuspegian, zer toki eduki dezake (eta dauka) hizkuntza gutxitu batek, alegia, euskarak, jardun profetionalean?

Galdera horiei erantzun nahian egin da artikulu honen oinarrian dagoen ikerketa. Ikerketa horren landa lana Euskal Herriko Unibertsitatean gauzatu da (UPV/EHU, hemendik aurrera), hainbat arrazoi tartean dela. UPV/EHU unibertsitate publikorik garrantzitsuena da Euskal Herrian, irakasle nahiz ikasle euskaldunen kopururik handienak barnean hartzeaz gain, produkzio zientifikoari nahiz ikerketa gaitasunari dagokienez ere ahalmen eta baliabide handienak biltzen dituena. Unibertsitate elebiduna da, bi hizkuntza ofizialetan dihardu (hizkuntza gutxituan, euskaraz, eta estatu hizkuntzan, gaztelaniaz). Eta gaur egun goi mailako hezkuntzaren nazioartekotzearen ondorioz sortutako aldaketa instituzionalak bultzatzen ari da: besteak beste, ingelesaren ezarrera irakaskuntzan, eleaniztasunaren hedapena ikerkuntza- nahiz irakaskuntza-jardueretan, eta kalitatearen ebaluazioa.

Datuen bilketa sakoneko elkarrizketa erdi egituratuaren birtartez gauzatu da. Guztira, 25 sakoneko elkarrizketa egin dira. Garai desberdinetan sozializaturiko akademikoen ikuspegiak alderatu nahi izan dira, egon litezkeen aldaketak identifikatu ahal izateko. Horretarako, bi garaialdi ezarri dira. Alde batetik, lehen belaunaldi bateko 10 irakasle-ikertzaile hautatu dira. Belaunaldi hori 1970 eta 1980ko hamarkadetan kontratatu ziren irakasleen multzoa oinarritzat hartuta definitu da ikerketarako, sasoi horretan euskararen erabilera arautu eta instituzionalki sustatu barik baitzegoen UPV/EHU. Beste alde batetik, bigarren belaunaldi bateko 15 irakasle-ikertzaile hautatu dira. Azken horiek 1990 eta 2000ko hamarkadetan euskaraz eskolak emateko berariaz kontrataturikoak dira, aldi horretan dagoeneko euskarazko irakaskuntza arauturik eta instituzionalki sustaturik baitago UPV/EHU. Zergatik bereizi da epealdi hori? Bigarren garai horretan globalizazioaren dinamikak gero eta indar handiagoz nabaritzen direlako goi mailako irakaskuntzan, bai alderdi linguistikoan (eleaniztasunera bideraturiko programen ezarrerarekin), bai profesionalean (irakasleriaren ebaluazio- eta akreditazio-sistemen eta mugikortasun sistemen ezarrerarekin, besteak beste), baita

antolakuntza- eta *managerialism*-ereduetan ere. Alderdi sozialean, sasoi hori bat dator hizkuntza politiken instituzionalizazio progresiboarekin, bereziki Autonomia Erkidegoan. Lehen belaunalditzat hartutako multzoaren barruan sartu diren irakasleek 55,8 urte dauzkate batez beste ikerketaren unean, eta bigarren belaunalditzat hartutakoek 37,06 urte.

Diskurtsoetan ahalik eta aniztasun handiena lortzeko asmoz, belaunaldiaz gain honako adierazle hauek ere hartu dira kontuan laginaren parte diren elkarrizketatuen soslaiak osatzeko: sexu-generoa, jakintza arloa, ikastegia, campusa, eta euskaraz argitaratutako lanak izatea.

Zer da unibertsitateen nazioartekotzea eta zer eragin izan dezake hizkuntza gutxituko unibertsitate irakasleen lanbide identitateetan?

Globalizazio ekonomikoaren eta goi mailako hezkuntzaren masifikazioaren aurrean gobernuek eta unibertsitateek abian jarritako egitasmo- eta politika-multzoa izendatzeko erabiltzen da gaur egun 'nazioartekotze' kontzeptua. Ildo horretatik, globalizazio ekonomikoaren eta ezagutzan oinarrituriko ekonomiaren eskariak aintzat hartu izan dira Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Espazioa sortzeko landutako adierazpen eta dokumentuetan; modu nabariagoan, beharbada, Boloniako egitasmoan eta Europako Kontseiluak 2000. urtean Lisboan diseinaturiko proiektuan, azken horiek Europa munduko ezagutza-ekonomiarik lehiakorrena bilatzeko helburu estrategikoa izan baitzuten. Jakina, ezagutza kapital globalaren osagarririk garrantzitsuena den une honetan, unibertsitatearen funtzioak aldatzen ari dira. Nazioartekotzea, hain zuzen ere, unibertsitateen estrategia bat izan da, garapen ekonomikorako, enplegurako eta inbertsioetarako gero eta lehiakorragoa eta estrategikoagoa den unibertsitate esparruan bereizi ahal izateko agertoki globalean.

Zalantzarik gabe, nazioartekotzeak aldaketa instituzionalak, eraketazkoak eta kulturalak ekarri ditu goi mailako

Nazioartekotzeak
aldaketa
instituzionalak,
eraketazkoak eta
kulturalak ekarri
ditu goi mailako
hezkuntzara; baita
tentsio eta kontraesan
ugari ere

hezkuntzara; baita tentsio eta kontraesan ugari ere. Prozesu konplexu horretan nahasita dauden alderdien artean, irakasle eta ikertzaileek betetzen dituzten rol eta lanbide identitateei

eragiten dizkietenak daude, rol horien jarduera profesionalari erantsitako hizkuntza praktikak barne. Irakaskuntza-ikerkuntzaren lanbideak gaur egungo unibertsitateetan bizi duen eraldaketa Modernitatean diseinatu ziren instituzioen gainbeheran kokatu dute hainbat azterketek. Azterketa horien arabera, hezkuntza erakundeek definituriko balioak eta arauak, lan profesional eratu baten bitartez, egintza eta subjektibitate bilakatzen ziren Aro

Modernoa. Doitze prozesu horiek ahalbidetu dute oraintsu arte aktorearen eta sistemaren arteko koherentzia, hitz batean, instituzioak eta haien barnean burututako rola bat etortzea.

Aldiz, gaur egun XX. mendean indarrean egon zen unibertsitate egitasmotik urrundu egin dira praktika akademikoak, balio eta printzipioen heterogeneotasuna ezarri da mundu akademikoan, orain arte nagusi izan diren helburuak disolbatu egin dira, eta irakasle eta ikertzaileak eskari eta egintza-logika gero eta aldakor eta, sarritan, kontraesankorragoen mende daude. Baldintza horietan beti ez dira bat etortzen unibertsitate instituzioen beharrak eta akademikoek beraien lanari esleitzen dizkioten zentzuak. Noraeza horren erakusgarri dira azken urteetan unibertsitateak izan behar lukeenari buruz sortutako askotariko gogoetak, bai eta baldintza berrietan lan akademikoak jazotako aldaketei buruzkoak. Hausnarketa horiek erakusten dutenez, akademikoek askotariko razionaltasunetan birkokatu behar dute beren burua gaur egun, besteak beste, kulturaren eta produkzioaren logiketan, baita identitate anizteta ere, batik bat, identitate akademikoan

eta ikerketazkoan, identitate kulturalen eta kudeaketazkoan, identitate lokalean eta globalean. Praktikan, unibertsitate instituzioaren legitimitatea lekuz aldatzen ari da eta lanaren eraginkortasunean eta etengabeko egiaztapenean oinarritutako legitimitate razional baterantz abiatzen. Beste era batera adierazita, legitimazio argudioak behinolako bokazioaren erregistrotik erregistro teknikora mugitu dira, eta hor, arian-arian, egindako lanaren efektibotasuna erakustera bideraturik dauden ebaluazio eta kontrol jardunbideak nagusitu dira. Ageri denez, sortzen ari diren identitate berriek ez diete dagoeneko esparru akademikoaren barne eskariei erantzuten, esparru horretatik at daudenei baizik, bereziki eskari ekonomikoiei.

Hain zuzen ere, gero eta nabarmenagoa da enpresaren kulturaren transferentzia unibertsitatean, goi mailako hezkuntzaren kudeaketa-moldeetan ez ezik balio, lehentasun eta funtzionamenduan ere eragina izan duena, eta sektore pribatuarenak berezkoak ziren *managerialism* metodoen aplikazioan oinarritzen dena. Hala, helburuetan finkatutako plangintzak, giza baliabideen kudeaketa eta emaitzen eta erantzukizunaren ikuska-pena ezarri dira unibertsitateko kultura eraberrituan. Ikuskatze horiek, jakina, barnean hartzen dituzte irakasle-ikertzaileen emaitzak, eta kalitate parametro berriei lotutako ondorengo sari-sistema sinbolikoak eta ekonomikoak. Baliabideak eta bikaintasuna lortzeko unibertsitateen artean sortutako lehiak unibertsitate horien profesionalen gaineko kontrol handiagoa ekarri du berekin batera, eta, bide horretatik, areagotu egin da irakaskuntza- nahiz ikerkuntza-jardueren ebaluazioa arautzeko ahalegina ere. Era berean, instituzioaren jarduera hori irakasle-ikertzaileek beraiek garatutako barne arautzearen laguntzaz osatu da, beti ere produktibitatearen eta eraginkortasunaren printzipioen zuzendaritzapean. Horrela, identitate profesional lehiakorren eta malguen eraikuntzan, irakasleek eta ikertzaileek lehentasuna eman diete saritu egiten diren jarduera eta praktikei, ibilbide akademikoaren jarraipenerako ezinbestekotzat direlakoan.

Ondorioz, bestelako hierarkia sinbolikoak ezarri dira goi mailako hezkuntzaren esparruan, irauli egin dira ohiko balio akademikoak –besteak beste, baliogutxitu egin da irakaskuntza ikerkuntzaren aldean–, eta, oro har, sustraitu egin da balio instrumentalek gidatutako kultura. Izan ere, balio horiek gero eta pisu handiagoa lortu dute lanbide-identitate berrien definizioan. Modu horretan, lehenagoko etika profesionalaren ordeztasun instrumentala hartu da gaur egun erabakiak hartzeko bide-erakusle; raziotaltasun mota horrek mundu akademikoaren baldintza gero eta merkantilizatuagoetara egokitzen ditu identitateok. Prozesu horri buruz egindako interpretaziorik kritikoenen arabera, *managerialism*-aren eta eraginkortasunaren kulturak irakasle-ikertzaileen autonomia higatu du, haien jarduera profesionalak *taylorizatu* ditu, eta urrundu egin ditu akademikoak erabakiak hartzen diren egituretatik unibertsitateetan. Hala, instituzioaren interes estrategikoen mende jarri du akademikoen funtzioa, eta etengabeko desprofesionalizazioa areagotu du talde horretan. Nonbait, aipatu aldaketak belaunaldirik gazteenetan islatzen dira batik bat, nahiz eta akademiko gazteen artean presio instituzionalen aurreko erresistentziazko estrategiak eta negoziaketak ere garatzen diren sarritan.

Hizkuntzaren eremuan hezurmamitu da aipatu den aldaketa profesional dimentsioanitzekoaren alderdi ikusgarrienetako bat. Modu inplizituan bada ere, *managerialism* ereduaren logika instrumentala, poliki-poliki, lanbide jardueran gauzatzen diren hizkuntza praktiken balio sinbolikoa ezarriz joan da, bai irakaskuntzan bai ikerkuntza jardueretan. Ildo berean, nazioarteko kalitate- eta bikaintasun-arauei lotuta dauden unibertsitate errendimenduaren adierazleek gero eta gehiago baldintzatzen dituzte hizkuntza praktikak ere. Irakaskuntzari dagokionez, orain arte elebidunak izan diren testuingurueta-ko rol akademikoa bestelakotu egin du eleaniztasunaren paradigma nagusiak, dagoeneko ingelesa hizkuntza ofizialekin curriculum partekatzen hasi den heinean. Hizkuntza gutxitua duten unibertsitate testuinguruetan, ingelesaren ezarrerak

irakaskuntzan hainbat tentsio sortu ditu. Egiazki, egoera sozio-linguistiko berezi horietan *lingua franca* zientifikoaren sarrerak eraginak sortzen ditu instituzioaren ekologia linguistikoan, hizkuntzen arteko orekak ahulak direlako eta hizkuntza gutxitua kokapen asimetrikoan egon ohi delako. Jakina, hizkuntza gutxituan aritzen diren irakasleen lanbide jardueraren erregulazioa ere oreka hauskor horietan nahasita dago.

Hizkuntza gutxitua duten unibertsitateetan, elebitasunetik eleaniztasunerako bidea berezia da. Izan ere, unibertsitate horietan eleaniztasunaren kontzeptuak esanahi eta helburu desberdinak hartzen ditu barnean. Batetik, hizkuntza gutxitua sustatzeko helburua dago, estatu hizkuntzarekin batera. Bestetik, ingelesaren ezagutza eta erabilera bultzatzeko helburua, horrela, atzerriko ikasleak erakartzeko. Baina, praktikan, helburu desberdin horiek irakasle rolaren formulazio kontraesankorrak eragiten dituzte. UPV/EHUn egindako lan batzuek erakusten dutenaren ildotik, hizkuntza gutxituak sustatzeko politikak dauzkaten unibertsitateetan, hizkuntza gutxituan gauzatzen den irakaskuntza ezohiko baldintzetan garatu da behin baino gehiagotan: zenbaitetan, irakasleak irakasgai gehiago irakasten ditu, irakas kredituen gainzama izan ohi du, ez du eskura izaten irakaskuntza materialik hizkuntza gutxituan, edo irakas testuak sortu behar izaten ditu hizkuntza horretan landu gabe dagoen hizkera zientifikoan. Baldintza horietan, irakaskuntza jarduera razionaltasun instrumentaletik urrun dagoen *ethos* profesionalaren ideal bati loturik agertzen da. Azken identitate horrek unibertsitateak tokiko komunitateari buruz beharko lukeen konpromisoa eta zerbitzu publikoaren tradizioa ditu goiburu; horiek izan dira, hain zuzen ere, unibertsitate munduaren funtzionamendurako oraintsu arte aldarrikatu diren balio etikoak.

Hizkuntza gutxitua
duten unibertsitateetan,
elebitasunetik
eleaniztasunerako bidea
berezia da

Aitzitik, sozialki eta akademikoki ondo kokaturik dauden hizkuntzetan gauzaturiko praktikak sustatu, saritu eta aitortu direnean mundu akademikoan, *de facto*, ahuldu egin da goian aipaturiko identitate profesionala. Horrela, eleaniztasunaren diskurtsoak hizkuntza gutxituei irakaskuntza funtzioa esleitzen dien arren funtzio globalen eta lokalen arteko dialektikan –estatu hizkuntzarekin eta ingelesarekin batera–, eleaniztasunaren izenean gaur egungo nazioartekotze linguistikoaak sustatzen dituen identitate akademikoak urrun daude orain arte hizkuntza gutxituak transmisio hizkuntzaren funtzioan sostengatu dituzten identitate profesioaletatik.

Baina, irakaskuntzan ez ezik ikerkuntzan ere islatzen dira indarrean dagoen nazioartekotzeak ezarritako errendimenduaren kudeaketa, ebaluazio adierazleak eta ondorengo sari ekonomiko eta sinbolikoen egitura inplizituak. Areago, ikerkuntzan ezarri da beste edozein jardueretan baino indar handiagoz nazioartekotze hegemonikoaren logika, hainbestearaino ezarri ere, non, logika horrek hizkuntza aniztasunaren kaltetan birmoldatu duen hierarkia zientifikoaren eta identitate akademikoaren esparrua. Gaur egun, ikerketa zientifikoaren kalitatea lekuz aldatu da ikerketa prozesutik emaitzen komunikazio prozesura, eta ikerketen eta ikertzaileen kalitatea eragin handiko aldizkarietan egindako argitalpenen bitartez neurtzen da. Aldizkari horiek ingelesez argitaratzen dira. Eraginaren faktoreak eskaintzen dituzten datu baseek eta nazioartean indarrean dauden adierazle bibliometrikoen sistemek argi eta garbi erakusten dute ingelesezko argitalpenen erabateko nagusitasuna beste hizkuntza batzuenaren ondoan, baita herrialde anglofonoen hegemonia ere –AEBak buru direla– ekoizpen zientifikoaren rankingetan. Horrela, argitalpen indexatuen banaketa sesgatua ez ezik, lansarien logika inplizitu bat ere ezarri du nagusitasun horrek, *de facto*, akademikoaren ikerketa jardueraren aukera linguistikoa modu estrategikoan bideratzen dituen.

Ildo horretatik, hizkuntza gutxituen esparruan dauden gabezia batzuek berebiziko eragina dute hizkuntza horietan

jarduten duten akademikoen lanean. Besteak beste, tresna bibliometriko egokien ezak, eta horrekin batera, argitalpenen kalitatea eta eragina ebaluatzeko tokiko irizpideak –irizpide globalekin batera– erabiltzen dituzten agentzia eraginkorren gabeziak. Faktore horiek guztiek zaildu egiten dute hizkuntza gutxituetan egin daitekeen argitalpen zientifikoa, baita dibulgaziozkoa ere, eta, hartara, baliogutxitu mundu akademikoan hizkuntza horietan egin litekeen lana. Horiek horrela, akademikoak hizkuntza gutxituan argitaratzeari uko egitera bultzatzen duen joeraren arriskua agertzen da. Horrenbestez, ez da gehiegizkoa pentsatzea hizkuntza gutxituen balio sinbolikoa gainbehera joan litekeela aurrerantzean goi mailako hezkuntzaren esparruan, akademikoen lehentasunek ikerkuntzaren alde egiten duten heinean, eta rol akademikoak berezkoak dituen zereginen arteko hierarkia sinboliko berriak ezartzen diren heinean –adibidez, ikerkuntzaren nagusitasuna irakaskuntzaren gainetik–. Izatez, zeregin horiek baldintza linguistiko inplizitu batzuetan gauzatzen dira.

Akademiko euskaldunen identitate profesionalen gertaturiko aldaketak identifikatzen: irakasle-ikertzaileen ahotsak euskararen erabilera akademikoaren inguruan

Zeintzuk dira akademiko euskaldunen artean egindako ikerketan identifikatu diren joerak? Lehen joera nagusia honako hau da: lehen belaunaldiko irakasle eta ikertzaileen lekua hartzen ari den gazte belaunaldiak orientazio estrategiko indartsuz hornitutako identitate akademikoa garatu du. Hain zuzen ere, egindako azterketan bi diskurtso-ildo nagusi identifikatu dira, aipatu identitatearen alderdi linguistikoaren eta profesionalaren arteko giltzadura desberdinak barnean hartzen dituztenak. Diskurtso nagusi horiek akademikoen bi multzo moldatu eta bereizten dituzte. Lehenengo diskurtsoa oso nabarmena da UPV/EHUko ‘aitzindarien belaunaldian’, hau da, euskarari goi mailako hezkuntzaren bidea zabaldu zion taldearen baitan. Baina ez da agertzen multzo

horretan soilik. Badaude, egon, beren buruak tradizio horren jarraitzailetzat dauzkaten gazteagoak ere eta, hala, jarrera linguistiko berberak partekatzen dituztenak, nahiz eta beren identitateek eta lanbide praktikek oraintsuagoko eredu unibertsitarioen ezaugarriekin ere bat egin duten. Bigarren diskurtso gisa identifikatu dena, berriz, bigarren belaunaldian sustraiturik ikusi da, batik bat. Diskurtso horrek eten handia agertzen du aitzindarien belaunaldiarenarekin, bai hizkuntza jarrerrei dagokienez bai lanbide identitatearen eraikuntzari dagokionez, azken hori indarrean dagoen unibertsitate ereduaren eskakizunei erabat egokiturik agertzen baita.

Guk euskaraz bizi nahi genuen. Eta guk ordurako argi geneukan: euskarak balio du denetarako edo ez du balio ezertarako. Gure printzipioa horixe zen. Guk egin behar dugu euskara eguneratu. Euskara zaharra ondo jakin baina egokitu baldintza berrietara. Bizirik gaudelako. Bizirik badago hizkuntza batek gaitasuna du egokitzeke. Zer da, esamoldeak ezin ditudala esan? Beste hizkuntzetan esaten badituzte, ba guk ere esango ditugu. Zein da problema, terminologia? Terminologia garatu, lexiko berria sortzeko. Egitura hori ez dugula inoiz erabili? Ba erabiliko dugu. Eta asmatu behar bada, asmatuko dugu. Eta mailegua hartu behar badugu, hartuko dugu. Baina, erabili egingo dugu (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 62 urte, Zientzia Esperimentalak, baditu argitalpenak euskaraz).

Argi dago badagoela komunitate bat irakasleen artean, euskaldunak garen irakasleen artean, gure artean identifikatu garenak eta jarduera euskaraz egiten dugunak [...] Euskal Herrian nik uste dut leku askotan gertatzen dela hori, sektore askotan gertatzen da, zure komunitatea identifikatzen duzula (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 30 urte, Osasun Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Guk [gazteok] argi daukagu euskara dela klaseak emateko gauza bat, tresna bat. Eta badakigu kultura baten parte dela eta hori guztia. Baina [...] ikusten dugu dozentzia emateko tresna bat, eta batez ere lanpostua lortzeko tresna bat dela [...] Nik uste dut haiek [zaharragoek] ikusten dutela euskara beraien kulturaren parte nagusi bezala. Eta guk, edo behintzat nire inguruko batzuek, ez. Nik bakarrik hitz egiten dut euskaraz lanean, unibertsitatean. Ez naiz saiatzen euskaraz hitz egiten beste leku batean, baina apropos [...] Bai, nahita. Nik ez dut hitz egin nahi euskaraz

beste leku batean, unibertsitatean izan ezik. Nire lanpostua lortzeko tresna bat izan da eta listo. Ez da euskara gorrotatzea, baina... (2. belaunaldia. Emakumezkoa, 36 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Harritu ninduen gazteen artean, nire belaunaldikoen artean, ez zegoela hainbeste giro [euskaldun]. Ez. 50 urteko irakasleen artean ikusten dudana: haien artean beti [ari dira] euskaraz, eta gainera, borondate argiaz euskaraz egiteko. Nire belaunaldikoen artean ez, igual lau pertsona egon, laurak euskaldunak, eta erdaraz ari direla. Hori ez da ikusten belaunaldi zaharragoetan. Igual nire belaunaldiko askok EGA ateratzeko ikasi dute, hemen sartu nahi dutela begiratzuz, klaseak eman nahi dituztelako (2. belaunaldia. Emakumezkoa, 29 urte, Gizarte Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Curriculum akademikoa premiatu da. Eta hori egin behar da, ez ditugu irakasle txarrak behar. Baina, hizkuntzaren inguruko gaitasunak, aktitudea eta formazioa bigarren plano batera pasatu dira, argi eta garbi (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 52 urte, Zientzia Esperimentalak, baditu argitalpenak euskaraz).

Belaunaldien arteko aldaketa euskarari buruzko hizkuntza-jarrera desberdinen garapenari loturik agertzen da. Bate-tik, indarra hartzen ari diren jarrera instrumentalak daude; bestetik, lehenagotik datozen komunitate integratziora edo parte-hartzera bideratutako hizkuntza jarrerak. Dena den, integrazio jarreretatik jarrera instrumentaletara gertatutako eraldaketa hori ezin daiteke besterik gabe belaunaldi gazteeneko kide guztietara zabaldu. Irakasle eta ikertzaile gazteen artean ere badaude integrazio jarrerak euskarari dagokionez, modu ahulagoan agertzen diren arren.

Unibertsitatara etorri nintzenean, hemen erabaki nuen nire bizitza euskaraz egitea [...] Hona etorri nintzenean konturatu nintzen, alde batetik, jendea euskaraz bizi zela, eta niretzat oso berria zen kontzeptu hori. Eta, bestetik, egia zela euskaraz bizitzeko ezintasunak zeudela, eta orduan nik konpromiso pertsonala hartu nuen euskaraz bizitzeko. Uste nuelako benetan euskararen normalizaziorako lehenengo pausoa izan beharko zuela (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 30 urte, Osasun Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Nahiz eta bi jarrera mota horiek ez duten elkar baztertzen, integraziozko jarrerak nagusitu egiten dira 'lehen diskurtsoa' deitu dugun horretan, eta jarrera instrumentalak bistakoa-
goak dira bigarrenean. Partizipaziozko motibazioak dauzka-
ten akademikoen hizkuntza praktikek euskal hiztunen komu-
nitatean integratzea dute helburu, bai kulturalki bai sozialki,
eta komunitate horren egoera hobetu nahi dute goi mailako
hezkuntzan. Identifikazio- eta leialtasun-motibazioak bul-
tztatuta dihardute, beraz, eta horien araberrako hizkuntza
praktikak garatzen dituzte beren rol profesionalaren zeregi-
netan. Akademiko horiei dagokienez, euskal osagai linguis-
tikoa identitate pertsonalaren eta identitate profesionalaren
funtsezko osagarria da; hitz batean, ezin da haietatik bereizi.
Aldiz, orientazio instrumentala duten jarrerak helburu prag-
matikoei loturik agertzen dira, zehazkiago, irakasle lanpostua
lortzeko asmoei eta ibilbide akademikoaren interesei. Izan
ere, azken urteetan irakasle lanpostuek profil elebiduna izan
dute –euskara-gaztelania– UPV/EHUn.

Aipaturiko bi jarrerak kontaktuan dauden hizkuntzen ba-
lorazioekin harremanetan agertzen dira –alegia, euskara,
gaztelania eta ingelesarenarekin–, baita ibilbide akademikoa
eraikitzeko moldeekin eta ibilbide horri zentzua esleitzeko
moduekin ere. Bi hizkuntza ofizialei euskal gizartean egozten
zaien prestigio bereizgarriaz ongi ohartuta daude bi taldeeta-
ko kideak. Haatik, gutxitutako komunitatearen ikuspuntuaz
baliaturik, asimetria soziolinguistikoa irakurketa politikoa
eta gatazkatsua egiten dute lehen multzoko akademikoek, in-
teres gatazka eta botere harremanen irizpideen araberrakoa.
Ostera, bigarren multzokoek ezarritako ordena linguistikoa
onartzen dute, berez. Azken horientzat, euskara eskuratzea
eta euskara erabiltzea hautaketa indibidualen esparruan uler-
tu beharreko egintzak dira. Hizkuntza praktikak norberaren
bizi diseinuaren eta asmo profesional kontzienteen logikan
kokatzen dira, askotariko agertokiz eta egintza logikaz osatu-
rik dagoen eredu sozial batean. Hala, hizkuntza hautu horien
estrategikotasunak erakusten digu indibidualizazio prozesuak

gero eta modu nabarmenagoan gauzatzen direla hizkuntzen esparruan ere gazteen artean. Akademiko horien pertzepzioan, euskara hezkuntza sisteman eskuratutako hizkuntza da, batik bat, eta euskararen erabilera esparru profesionalari loturik agertzen da, oroz gain.

Goi mailako hezkuntzako irakaskuntzan ingelesak izan behar duen tokiari buruzko balorazio linguistikoak ere ez datoz bat bi taldeetan. Batzuek euskararentzat irabazitako espazioen murriztapenaren mehatxua ikusten dute ingelesaren mailakako ezarreran. Besteek, aldiz, ez dute inolako arriskurik hautematen prozesu horretan. Biek ala biek onartzen dute naturaltasun osoz ingelesaren ezinbestekotasuna ikerkuntzarako eta komunikazio zientifikorako hizkuntza modura, baina batzuen eta besteen adierazpenetan sumatzen da irakaskuntzaren esparrua gaur egun oraindik ere euskararen eta gaztelaniaren arteko oreka ahulen borrokalekoa dela.

Nik uste dut kanpoan begiratu behar dela, eta Finlandia bezalako tokien erreferentzia hartu. Toki horietan bertako hizkuntza eta ingelesa, goi mailako hezkuntzan ingelesa eta besteetan bertako hizkuntza [...] Gertatzen dena da eredu horretan gaztelania sobera dagoela, eta gizarte honetan, momentu honetan hori ez da onartzen (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 53 urte, Teknologia, badi-tu argitalpenak euskaraz).

Nik euskaraz irakatsi behar badut, nik ez du gazteleraz irakurtzen [...] Nire testuliburuak ingelesez daude. Eta nik batzuetan esaten dut: «eta hau nola esaten da gazteleraz?». Eta ez daukat ideiarik ere, eta gainera berdin zait [...] Orduan, normalean ez dago tartean gaztelera (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 58 urte, Zientzia Esperimentalak, badi-tu argitalpenak euskaraz).

Hemen, fakultatean adibidez, ingelesez klaseak emateko irakasle kopurua betetzeko eskatu dira ordezkapen batzuk. Hor sartu diren irakasle gehienak elebidunak izan dira [euskara-gaztelania], orain arte euskaraz ematen ari zirenak. Orduan, horrek alde positiboa du, eleaniztasun hori ondo dago. Baina, gero, beste aldetik, suposatzen du euskararen etorkizuneko presentzia hori ez ote den eskastuko. Gaztelaniazko irakasgaiak mantendu beharrekoak direnez, ez dira eskastuko. Orduan, ordaindu beharreko zera, ordainketa, euskararen aldean izango da. Ez dut ikusten hobe-

kuntza nabarmenik izango dugunik epe labur batean. Geroago, ingelesaren eta euskararen arteko harreman hori normaltzen bada gero eta gehiago, izan daiteke probetxuzkoa (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 46 urte, Giza Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Integraziozko hizkuntza jarreraren inguruan osaturiko irakasle-ikertzaileen multzoak bere rol akademikoaz duen irudikapenak osagarri ekintzaile nabarmena dauka, nahiz eta osagarri hori modu eta neurri desberdinetan adierazten den kasuan-kasuan. Oro har, esan daiteke irakasle-ikertzaile euskaldun askok parte hartu duela euskararen modernizazioan eta ezarrian goi mailako hezkuntzan, eta jarduera akademiko hori sarritan ohiz kanpoko baldintzetan gauzatu dela. Egoera horrek eraginak izan ditu irakaslearen rol eta identitate profesionalen eraikuntzan, halako moldez non hizkuntzaren aldeko konpromisoa oinarrizko osagarri gisa txertaturik geratu den identitate horietan. Horiek horrela, unibertsitateko lan akademiko tokiko komunitateari buruzko erantzukizunarekin eta zerbitzu publikoaren tradizioarekin lotzen duen *ethos* profesionala moldatu dute aipatu identitateok. Bistan denez, rol hori ez da beti bat etorri instituzioan nagusi izan diren joerekin. Esaterako, akademiko horien aburuz, euskarazko irakaskuntza abian jartzeak sarritan eskatu dituen jarduera gehigarri asko ez dira profesionalki aitortu ezta instituzionalki saritu ere; uste dute ebaluaziorako kanpoko sistemek eta irakaskuntza kalitatearen adierazleek ez dituztela lan osagarri horiek behar bezala aintzat hartzen. Halaz ere, aitortza formalik ez duen lanari erabateko zentzua eman diote, beren identitatezko orientazioari eta hizkuntza konpromisoari esker.

Gure fakultate honetako lehenengo irakasleetakoa naiz ni. Atzera begiratzen baduzu, hogeita ez dakit zenbat urtetan, zenbat zeregin! Herri honetan indar asko inbertitu da lortu duguna lortzeko, eta berriz ere egin beharko du unibertsitateak lana. Lan boluntarioa, askotan ordaindu gabea. Noski, proiektu bat daukazunean ez dituzu neurtzen orduak, ez dituzu [orduak] sartzen ingelesa ikasi eta artikulua publikatzeko, beste gauza asko egin behar dituzu (1. belaunaldia. Emakumezkoa, 63 urte, Giza Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Ikusten duzu euskarazko irakasle bazara zenbat asignatura daukazun, eta erdarazkoa bazara beste erosotasun batean zabiltzala [...] Euskarazkoak, kolektibo gisa, gazteago, promozioan beherago, aginte postuetatik urrunago, erabakiguneetatik periferikoago... (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 52 urte, Zientzia Esperimentalak, baditu argitalpenak euskaraz).

Globalki ezarrita dagoen razionaltasunari aurre egiteko kanpoko motibazio komunitariorik gabe, jarrera instrumentalak partekatzen dituen multzokoen rol akademikoak askoz ere modu zorrotzagoan doitu dira gaur egungo eskari instituzional nagusietara, bai alderdi linguistikoa, bai alderdi orokorrean. Akademiko horien azalpenetan aditzera emanenez, goi mailako hezkuntza globalizatuaren eskariak arrastoa uzten hasi dira rol berrien eraikuntzan. Horrela, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek, bereziki belaunaldirik gazteenetakoeak, egokiro barneratu dituzte jarduera profesionala globalki zuzentzen duten arauak eta balioak. Esaterako, gazte horiek zeregin profesionalak produktibitate- eta eraginkortasun-irizpideen arabera autoerregulatzen dituzte modu nabarmenean; azkenaldi honetan, gainera, prozesu hori areagotu egin da lan ezegonkortasunaren arriskua dela medio.

Ildo horretan, irakaskuntza jardueraz haragoko euskararen erabilerak zentzua galdu du irakasle gazteek partekatzen duten errendimenduaren kudeaketaren kulturaren. Zentzu heretsian irakaskuntzat hartutako eginbehar horretatik kanpo geratu dira akademiko askorentzat irakaskuntzaren albokoak diren atazak ere, hala nola, irakaskuntzarako materiala sortzea, hizkuntza corpusa gaurkotzea, dibulgazio lana egitea edo irakaslearen beraren hizkuntza gaitasunak garatzea. Horrenbestez, hainbat akademiko gazteren ustetan, bai tesiak bai

Irakaskuntza jardueraz haragoko euskararen erabilerak zentzua galdu du irakasle gazteek partekatzen duten errendimenduaren kudeaketaren kulturaren

ikerketa eta komunikazio zientifikoa euskaraz egitea ardura neketsuegiak dira, berez, gehituriko zamarik gabe ere, ingurune gero eta lehiakorragoan oztopo ugari gainditu behar dituelako ibilbide akademikoaren egileak.

Ez, ez, ez, ez zait burutik pasatu [tesia euskaraz egitea] [...] Orain beste kontu batzuekin nabil. Nire plaza aterako da irakasle agregatu bezala [...] Ezin dut gauza guztiekin, kongresuetara joan behar gara, artikulua idatzi behar ditugu, ponentziak, klaseak. Urtero ikasgai desberdinak dauzkat [...] Ezin ditut gauza guztiak ondo egin, ezinezkoa da. Gainera euskaraz! (2. belaunaldia. Emakumezkoa, 41 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Publikatu behar da hizkuntza ahalik eta internazionalenetan. Hori horrela da. Ingeleseko artikulua batek kontatuko du gaztelarazko batek baino gehiago. Orduan, euskarazko batek, imajinatu! Gero, tesiaren harira ere, euskaraz egiten baduzu, nire gaian adibidez [...] nola topatuko dituzu bost katedradun euskaldun adituak direnak? (2. belaunaldia. Emakumezkoa, 29 urte, Gizarte Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Ni bezalakoak diren pertsonak edo irakasleek ezin dituzte [euskarazko] materialak egin. Nik ez daukat mailarik horretarako (2. belaunaldia. Emakumezkoa, 36 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Argi eta garbi izan dut hasieratik [ibilbide akademikoa] erdaraz egitea [...] Nire inguruan ikusten dut. Batzuek badaukate konpromisoa. Nik badaukat ezagunen bat hori egiten duena: «nik argitaratuko dut heren bat euskaraz». Baina, klaro, oso razionalak dira, eta beste bi herenak [argitaratzen dituzte] militantziazatik. Jakina, heren horrek etekin gutxiago izango du beste biek baino. Eta normalean, ba prekarietatean dagoenak... [...] Depende zer behar duzun [...] pertsona batek prestigio akademikoa behar badu bere ibilbide akademikoa jarraitzeko [...] Ibilbide akademikoak, planteatuta dagoen moduan [...] egiten duena da pertsonak oso frustratuta egotea, ze ez ditugu jorratzen nahi ditugun gaiak, edo ez dugu idazten nahi dugun hizkuntzan, edo ez ditugu benetan ekoizten interesgarriak diren gauzak [...] Eta euskararekin gauza bera gertatzen da, nik euskaraz argitaratzeko gogoia edukiko banu, ba inzentibo gutxi ditut euskaraz idazteko, hori argi dago (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 40 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Jarrera instrumentalak agertzen dituzten bigarren belaunaldiko irakasleen adierazpenetan, indarrean dagoen unibertsitate ereduaren onarpen inplizitua hautematen da, baita nazioartekotzeak eta lehiakortasun ekonomikoak ekarritako kulturaren barneratze naturalizatua ere. Bestela adierazita, irakasle-ikertzaile horien identitate akademikoen eraikuntza eredu berriaren baitan hezurmamitu da, zeharo. Aitzitik, jarrera kritikoagoak sumatzen dira integraziozko jarrerak partekatzen dituztenen artean. Ikuspegi kritikoak indar berezia hartzen du lehen belaunaldiko akademikoen artean, beste esperientzia eta tradizio akademiko batzuetatik datozelako. Hartara, hizkuntzaren auzia, hautaketa indibidualetatik harago, marko sozial orokorrago batean (unibertsitate eredu jakin baten markoan, besteak beste) kokatuta dago azken horien diskurtsoan.

Gestore bat gara, zientziaren alde, enpresaren alde, bai, horretan asko borrokatzen da, baina gizarte mailan [...] ez gara erreferentzia [...] Meritukrazia sartu da, produktibitatea, produktibitate zientifikoa ingelesez. Orduan, berdin digu euskal irakaslea izatea, edo ingelesezkoa, edo alemanezkoa... (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 48 urte, Osasun Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Ikerketan identifikatutako bigarren joera nagusia hauxe da: identitate ikertzailea irakaskuntza identitateari gailendu zaio arian-arian unibertsitate esparruan. Rol akademikoen osaketan irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren artean sortzen ari diren tentsioak sumatzen dira etengabe akademikoen adierazpenetan. Gaur egungo unibertsitatearen bi esparru horiek kontrajarritako exijentziak daukate; areago, sari bereizgarriak banatzen dituzte. Hain justu ere, eskakizun eta ordain horien mendean eraikitzen dira rol profesionalak une honetan, bi zeregin nagusien artean balantzaka. UPV/EHUko lehen akademiko euskaldunen ibilbidean irakaskuntzaren alderdia inportantea izan da, oso; gainera, euskarazko irakaskuntzaren proiektuan inbertitutako lanarekin lotuta dago irakaskuntzaren zereginari berari esleitzen dioten garrantzia, prozesu horretan pertsonalki nahiz profesionalki modu bizian inplikaturik egon baitira. Belaunaldi gazteenetan, oster,

abiapuntua da euskarazko irakaskuntza hezkuntza maila guztietan instituzionalizaturik dagoela, baita goi mailako hezkuntzan ere, partzialki izan arren. Gazteenen artean sortzen ari den identitate profesionalak ikerkuntza du ardatz nagusi. Halatan, ikerkuntza dozentziaren gainetik saritzen duten eskakizun instituzionalen eta akademiko horien balio profesionalen arteko doikuntza burutzen ari da belaunaldi gazteetan.

Alde batetik, irakasle gazteak baldin badira, ez dute euskararekiko maitasun hori. Euskara jaso dute ikastolatik, baina ez beraien gogoz baizik eta auskalo. Orduan, euskararekiko maitasun falta hori. Eta, bestalde, hainbeste internazionalizatzeko esaten digutenez, ikerketa taldeek batez ere ingelesez lan egiten dute, eta beste hizkuntza batzuetan, atzerriko hizkuntzetan. Ikerketan buru-belarri sartu badira, hezkuntzari behar beste denbora ezin eskaini. Ikerketara bideratu badute beraien lanbidea, nahiz eta irakatsi, denbora gutxi geratzen da irakaskuntzarako. Eta irakaskuntzarako denbora gutxi geratzen bada, irakaskuntzako materiala euskaraz sortzeko are gutxiago (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 42 urte, Teknologia, baditu argitalpenak euskaraz).

Bi mundu erabat ezberdinak dira, erabat ezberdinak. Badago ibilbide bat, hezkuntza ibilbidea, nolabait esateko, eta beste ibilbide bat, ikerketa ibilbidea. Eta askotan oso anibalenteak gara, ni behintzat banaiz [...] Bi ogibide dituzu, irakasle zara [...] eta, beste alde batetik, ikertzailea zara eta ikerketa hori gaztelaniaz egiten duzu. Eta bien artean ez dut sentitzen inolako kontraesanik dagoenik, ez? Esaten ari naiz subjektu ez militante moduan. Ni, zentzu honetan, nahiko zinikoa naiz. Bai, zinikoa naiz, ez dut euskara eta euskalgintzarako nolabaiteko behar moralik sentitzen. Orduan, zentzu honetan, oso subjektu postmodernoa naiz. Moralitate bikoitza daukat eta oso gustura sentitzen naiz, euskaraz egiten klasean eta gazteleraz ikertzen (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 42 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Hemen fanatismorik gabe eta maximalismorik gabe lan egin behar dugu. Punta-puntako pertsonak kontratatzeko aukera badago, euskara jakin ez arren, primerako ikerlaria bada, horrek sekulako mesedea egingo dio unibertsitateari. Horri esker, unibertsitateak ranking guztietan lekuak irabazten ditu. Diru asko daukaten proiektuak irabazten ditu. Beti malgutasunez jokatu behar da (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 31 urte, Zientzia Esperimentalak, ez du argitalpenik euskaraz).

Azken urteetan presio handia dago, bai. Nik uste dut azkeneko urteetan ANECAk, UNIQUALEk¹ eta horiek ikerketara bideratzen gaituztela, batez ere. Nahiz eta kontratatzen gaituzten eskolak emateko, ikerketagatik ordaintzen digute [...] Denbora eskaintzen diogu ikerketari, ingelesez, eta euskara hor uzten dugu. Euskarazko materiala sortze hori albo batera uzten dugu (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 42 urte, Teknologia, baditu argitalpenak euskaraz).

Ikerkuntzaren nagusitasuna onartuta ere, akademiko euskaldunek ikusten dute ikerkuntzaren sustapenak ez duela ordainik euskararentzat esparru horretan. Alde batetik, ez dagoelako neurketarako tresna eraginkorrik hizkuntza gutxituetan egindako produkzioarentzat; hartara, euskaraz egindako argitalpenak balio oro galtzen du ebaluaziorako kanpo agentziek erabilitako arauen arabera. Beste alde batetik, diziplina askoren espezializazio mailak masa kritiko potentziala eskatzen duelako komunikazio zientifikoaren hartzaile gisara, eta gutxitutako hizkuntza komunitateak ezin du baldintza hori bermatu.

Maila konpetitiboan ez da baloratzen [euskarazko produkzioa]. Nik uste dut hor dagoela kalte egin duen kontzeptu bat, inpaktuarena. Eta inpaktuarena ondo dago ingelesez publikatzen dena neurtzeko, batez ere kimikan, biokimikan, biologian, medikuntzan eta fisikan. Horiek asmatu zuten inpaktuaren kontzeptua. Baina, beste gauza batzuetan ez da ondo egokitzen. Ikerketa horretan bakarrik baloratzea oso motz geratzen da, eta, adibidez, euskara kanpoan geratzen da (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 53 urte, Teknologia, baditu argitalpenak euskaraz).

Unibertsitate honek erabiltzen ditu unibertsitate guztien parametroak bere ikerketa neurtzeko, sexenioak eta horrelakoak. Orduan zuk sexenio batera bidal dezakezu zerbait euskaraz [...] Baina, ez baldin bada euskal filologia arlokoa [...] ez da kontuan hartzen [...] Euskarazko produkzioa egitea aukeratu dugunok egin behar dugu lan estra bat. Eta publikatu behar ditugu ingelesez, gaztelaniaz, beste hizkuntza batzuetan gure lanak [...] Euskarazko hautua egiten duena bere buruaren kontra ari da promozio horretan. Oso garbi dago. Nik publikatu ditut liburu batzuk [euskaraz]. Azkena hau [...] Pare bat urte pasatu nuen [idazten] [...] Horren laburpen bat publikatuko dut aurrean aldizkari batean [gaztelaniaz], eta askoz gehiago balioko du laburpen horrek, aldizkari horretan, liburuak baino [...] Nik egin nezakeen

artikulua besterik gabe [...] Bakarrik egiten baduzu euskarazkoa... Euskarazkoa irakasle baten curriculumaren garapenerako, printzipioz, eragozpen handia da (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 49 urte, Giza Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Bestalde, elkarriketetan jarrera oso desberdinak sumatzen dira, batetik, zientzia esperimetal nahiz teknologiako akademikoen multzoan, eta, bestetik, zientzia sozial eta humanistikoetako akademikoen multzoan, bai komunikazio zientifikoaz, baita ingelesak komunikazio horretan izan beharreko eskusibitateaz ere. Aipaturiko lehen diziplinetakoek hizkuntza gutxiutuari funtzio dibulgatzaile hutsa eransten diote; hartara, funtzio zientifikoa ingelesari dagokio eta ez beste ezein hizkuntzari, haien aburuz. Bigarren multzoko diziplinetakoek, eta bereziki lehen belaunaldiko kide direnek, uste dute beren jakintza arloetan egindako ikerkuntza zientifikoa gizartearen

Jarrera oso ezberdinak
sumatzen dira
zientzia esperimetal
nahiz teknologiako
akademikoen eta
zientzia sozial eta
humanistikoetako
akademikoen
multzoetan

erreferentziazko hizkuntzetan komunikatu ahal –eta behar– zaiola gizarteari berari, baita hizkuntza gutxituan ere. Are gehiago, gizarteari buruzko konpromisoa beren identitate akademikoaren osagarri dela pentsatzen dute eta, ildo horretan, intelektualaren zereginak esleitzen dizkiete beren buruei. Erabiltzen dituzten irudikapenetan, unibertsitatea, eza-gutzaren ekoizpenerako entitate ez ezik, sustraituta dagoen gizartearekiko erantzukizun etikoak

dauzkan instituzioa ere bada, garapen sozialean eta ongizatean erabat inplikaturik dagoena. Erantzukizun linguistikoa ere ikusmolde orokor horren barruan integraturik agertzen da.

[Euskararen lekua esparru zientifikoan] dibulgazio maila da, dibulgazio kultua (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 58 urte, Zientzia Esperimentalak, baditu argitalpenak euskaraz).

Artikulu guztiak ingelesez argitaratu ditut. Ingelesez bakarrik. Guk egiten ditugun publikazioek ISI² famatuan egon behar dute [...] Alde horretatik ez dut [euskararen aldeko] militantziarik egiten (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 31 urte, Zientzia Esperimentalak, ez du argitalpenik euskaraz).

Euskaraz egitea ez da euskaraz egiteagatik bakarrik, baizik eta nahi diogulako euskal unibertsitateari lekua eman bere gizartean. Hor badago inplizituki landu behar den balio bat, ez da hizkuntza bakarrik (1. belaunaldia. Emakumezkoa, 63 urte, Giza Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Hain zuzen ere, goian aipaturiko ildoan kokatzen da identifikatu den hirugarren funtsezko joera: teknologia eta zientzia esperimentalen identitate diziplinarrei lotutako *ethos* akademikoaren nagusitasuna ezartzen ari da unibertsitatean, progresiboki. Nagusitasun hori, noski, giza eta gizarte zientzien kokapen gero eta bazterrekoagoarekin batera garatzen ari da. Ezagutzaren ekonomiaren balioen hedapenak, alde batetik, eta zientzia eta teknologiaren logika zientifiko-positibista identitate akademikoen nukleo gogorrean txertatu izanak, beste aldetik, merkatuan 'ez produktibotzat' hartutako diziplinen balio sinbolikoaren galera ekarri dute. Giza eta gizarte zientziak daude azken diziplina-multzo horretan. Maila kognitiboan, gailentasun hori jakintza pragmatiko, estandarizatu eta unibertsalizagarria sortzeko asmoetan islatzen da, alegia, motibazio sozialetatik eta produkzio kontestutik gero eta deslotuago dagoen jakintzan. Maila linguistikoan, jakintza horren ingelesezko komunikazioan, eta *lingua franca*-ri esleitutako ustezko funtzio neutro eta instrumentalean. Horiek horrela, mundu zientifiko-akademikoaren hierarkia sinbolikoetan gertatutako birmoldaketak ahuldu egin du diziplina sozial eta humanistikoetan aritzen diren akademikoen kokapena, eta, hein batean, indarrrik gabe utzi du akademiko horiek unibertsitatea bera eta rol akademikoa ulertzeko duten moldea. UPV/EHUko giza eta gizarte zientzietako akademikoen ustetan, beren ekarpen intelektualak zentzua hartzen du ez soilik ekarpen hori hizkuntza gutxituan ere

komunikatu diezaioketelako erreferentziazko gizarteari (beste hizkuntzetan egiten den aldi berean), baizik eta beren jakintza berezituaren bitartez legitimitatezko argudioz hornitzen dituztelako hizkuntzen arteko kontaktuzko egoeretan garatzen diren borroka sinbolikoak, hizkuntza gutxituaren estatusan eta prestigioan eragina dutenak. Horregatik, akademiko horien beherakada unibertsitate egituretan tokiko gizartearen interesei lotutako produkzio akademikoaren gainbehera ere bada, neurri batean, eta, horrenbestez, hizkuntza-komunitate gutxituarekiko betebeharrak eta konpromisoak dituen lanbide eredu batena ere.

Zientzietan ingelesa da nagusi. Beste jakintza arlo batzuetan, beharbada, gauzak desberdinak izango dira. Dударik gabe. Nik pentsatzen dut hizkuntza mailan euskarari buruzko lan bat egiten bada, logikoena euskaraz argitaratzea dela. Ez da berdina. Norbaitek egiten badu lan bat euskarari buruz linguista moduan... Eta soziologian ere bai, norbaitek egiten badu Euskal Herriko soziologia, lan hori euskaraz. Nik pentsatzen dut baietz. Interesatuena euskaldunak dira. Nik uste dut posibilitate hori desberdina dela gai zientifikoa eta letren esparruan [sic]. Nik pentsatzen dut desberdina dela. Gure fakultatean ingelesa da hizkuntza zientifikoa. Gaztelania eta euskara, alde horretan, nik uste dut maila berean daudela (1. belaunaldia. Emakumezkoa, 59 urte, Zientzia Esperimentalak, baditu argitalpenak euskaraz).

Natur zientzietan oso dira instrumentalak. Nik, aldiz, gizarte zientzietan ezin dut pentsatu hizkuntza tresna gisa erabili behar dugunik. Hizkuntzak badu bizitasun bat eta ikaragarriko baliabidea da. Gizarte zientzietan garrantzia eman behar zaio hizkuntzari berari, esateko moduak ezinbestekoak direlako. Natur zientzietakoak oso instrumentalak dira eta hizkuntza erabiltzen dute ba, nolabait esateko, gauza oso proposizionalak esan behar dituztelako, oso sinpleak, eta gehienetan zenbakiak erabiltzen dituzte (2. belaunaldia. Gizonezkoa, 42 urte, Gizarte Zientziak, ez du argitalpenik euskaraz).

Meritukrazia honetan hartu dugu zientzietako balorazioa, eta beste guztiak hutsak [dira]. Euskara bezala, historia, soziologia... [...] Zer unibertsitate mota egin nahi dugun erabaki behar dugu (1. belaunaldia. Gizonezkoa, 48 urte, Osasun Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Zergatik egin behar dugu euskaraz? Zer dago horren atzean? Ba, gizartearekiko lotura, Euskal Herriak euskal herri izan behar badu. Guk eman nahi diogun estatus hau, eman behar diogun lekua, ez da etorriko internazionalki egiten ditugun lanetatik bakarrik (1. belaunaldia. Emakumezkoa, 63 urte, Giza Zientziak, baditu argitalpenak euskaraz).

Konklusio modura

Globalizaziotik sortutako indarrek baldintzatu, moldatu, baita distortsionatu ere egin ditzakete goi mailako hezkuntza instituzioetan egindako hizkuntza plangintzak. Ikerketa honetan, identitate akademikoen arlora eraman nahi izan da planteamendu hori, jakinik, lehen itxura batean, azterketa esparru horrek ez duela harremanik hizkuntza politikekin. Hala ere, erakutsi nahi izan da unibertsitatearen nazioartekotzeak ezkutuko curriculum gisa jardun dezakeela identitate akademikoen eraikuntzan eta, hartara, irakasle-ikertzaileen hizkuntza hautuak baldintzatu. Identitate berrien inpaktu linguistikoa argitzeko asmoarekin, UPV/EHUko belaunaldi desberdinetako irakasle-ikertzaileen rol eta identitate profesionaletan gertaturiko aldaketak identifikatu dira, hau da, eremu eleanitz batean euskaraz diharduten irakasleenak. Identifikatutako joerak goi mailako hezkuntzaren nazioartekotze prozesuekin lotuta daude, bereziki, eraginkortasunaren eta errendimenduaren balioetara orientaturiko eredu gerentzialisten ezarrerarekin.

Aldaketa horiek erakusten digute hizkuntza gutxituak erabiltzen dituzten europar unibertsitateek lehiakortasun ekonomikoaren ereduaren alde egin duten hautua ez dela garrantzirik gabeko egitatea hizkuntza gutxituarentzat. 80ko hamarkadatik aurrera, UPV/EHUK konpromiso instituzional sendoa izan du euskara hezkuntza-hizkuntza gisa sustatzeko goi mailako hezkuntzan. Helburu hori abiaburu hartuta, hainbat plangintza jarri ditu martxan euskara irakaskuntzaren esparruan eta esparru zientifikoan txertatzeko, irakasleriaren hizkuntza trebakuntza eta hizkuntza eskakizunak barne. Baina, gaur egun, balio eta eskakizun instituzional aldakorrek gidatzen dute

akademikoen identitateen eraikuntza testuinguru globalean, eta ibilbide akademikoaren diseinuan nazioartekotzearen eredu hegemonikoak sortutako eraginak ez datoz beti bat hizkuntza gutxituaren aldeko politika aktiboekin. Akademiko euskaldunen identitate akademikoak aldatzen ari dira, dudarik gabe. Aldaketa hori oso agerikoa da irakasle-ikertzaileen belaunaldi-txandatzeari behatzen denean, eta adierazten du norainoko indar erregulatzaileraren duen unibertsitate-eredu ekonomikoak irakaskuntza- eta ikerkuntza-jardueretan inplizituki inplikaturik dauden aukera linguistikoetan.

Egindako analisiak agerian uzten du hizkuntza gutxiuak erabiltzen dituzten unibertsitate instituzioek sakoneko eztabaidari ekin behar diotela, eta egon litezkeen nazioartekotze eredu onorioak aztertu behar dituztela. Eta tokiko dinamikak eta dinamika globalak ulertzeko eta uztartzeko moduak ikusi ondoren, aniztasun kultural eta linguistikoarekin bateragarriak izan daitezkeenak hautatzeko aukerak begiratu. Nazioartekotzeak ez du norabide bakarra izan behar, ezinbestean. Izaitez, unibertsitateak modu askotara izan dira internazionalak. Nazioartekotze eredu harremanetan dago unibertsitatearen identitatearekin, unibertsitatearen helburuen definizioarekin eta unibertsitatearen erantzukizun sozialarekin. Aldez aurretik egindako eztabaida horrek baino ez digu argituko zeintzuk diren eredu bakoitzean inplikaturik dauden identitate akademikoak eta eredu horien onorio linguistikoak. 🗨️

Oharrak

1. ANECA (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación) eta UNIBASQ –lehenago UNIQUAL– (Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia) irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko agentziak dira, bata estatu mailakoa eta bestea EAEkoa.
2. ISI Web of Knowledge (Institute for Scientific Information) datu bibliografikoen baseak biltzen dituen informazio zientifikorako zerbitzua da, argitalpen zientifikoen kalitatezko adierazle moduan erabiltzen dena.

Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak

Karmele Artetxe

*UPV/EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko
irakaslea eta UEUko Historia Saileko kidea*

Euskarazko produkzio eta komunikazio zientifikoaren fenomenoaren ezin interesgarriagoa da XXI. mendearren lehen hamarkada honetan. Euskarak mende erdi baten buruan goi mailako esparruan komunikazio eremu bat eratzea lortu du hizkuntza txiki eta gutxitua izanik. Hala ere, dena ez da loria. Argi-ilunak badira.

Nire asmoa, artikulua honetan, goi mailako euskarazko produkzioaren zenbakizko deskribapen bat egitea da, hurbilpen gisakoa, eta gaur egungo testuinguruan kokatzea. Azken hamarkadetan esparru honetan egindako lorpenak aipatzeaz gainera, zenbait arazo edo puntu ilun mahaigaineratu nahi ditut, irakurketa 'heroikoetatik' urrunduz. Testuan zehar, datuekin batera, nire ibilbide akademiko pertsonalaren gaineko zenbait ohar tartekatuko ditut. Biak ala biak euskarak gaur egun goi-mailan bizi duen azpi-instituzionalizazioaren hurbilpen desberdinak dira eta ikuspegi osagarria ematen dute.

Euskarazko goi mailako ekoizpenari buruz hemen jasotako ideiek eta datuek nire tesian dute abiapuntua, baina kasu honetan datuak eguneratzen saiatu naiz, baita ideia batzuk

gehiago sakontzen ere. Bestalde, artikulua honetan, datuei baino, hausnarketari garrantzi handiagoa eman diot, tesian jasotako azterketa bibliometriko zehatzaren bertsio dibulgatiboagoa ondu nahian¹.

Historia karrera amaitzean, UEUko Inguma datu-basean lanean aritu nintzen ia lau urtez². Une batean, 2004. urtean lan finko hura utzi eta Inguma abiapuntu harturik doktorego-tesia egitea erabaki nuen. Apustu nahiko zoroa izan zen, gehiegi pentsatu gabea baina aldi berean oso argi neukana. Laster lortu nuen UPV/EHUko diru-laguntza bat euskaraz tesia egiteko. Beka baten antzekoa eskakizunetan, baina ez onuretan. Zeren hori ere argi neukan, tesia euskaraz egin nahi nuela. Diru-laguntza gerora etorri zen.

Unibasq-eko akreditazioa iaz eskatu nuenean, eskaria presatzean, jasotako diru-laguntza 'doktorego aurreko beka' gisa sailkatu nuen, nahiz eta berez ofizialki 'diru-laguntza' izan. 'Diru-laguntza' izateak, eta ez 'beka' bat, ondorioak zituen bai estatus akademikoan zein ekonomikoan. Horren gainean sasoiako euskara errektoreordeari idatzi nion, esanez bidegabea zela zirrikitu legalak erabiltzea hala-moduzko laguntzak emateko (eta ez egiazko bekak) euskaraz tesia egiten zutenei. Eta euskarazko tesiak sustatzea erabakitzen bazen, ezin zela estatus akademikorik gabeko diru-laguntza txikien bidez bultzatu. Garai hartan ez zidaten kasurik egin. Urteekin egoera hobera aldatu da, ez nire idazkiari esker, baina edonola ere. Noizbait konplexuak gainditu dira, beste errektoreorde batzuk pasatu dira eta jada euskaraz tesia egiten dutenek benetako doktorego aurreko beka 'normal' bat eskura dezakete.

Azkenean tesia bukatu eta 2010. urtean defendatu nuen: 'Euskal Komunitate Zientifikoa. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa'. Tesian bi gauza aztertu nituen: batetik, komunitate zientifikoaren eraketa eta bilakaera historikoa, eta, bestetik, gaur egungo goi mailako euskarazko produkzioa, kide kopurua eta azpiegitura. Azterketa bibliometrikoa egiteko erabilitako informazio-iturria Inguma datu-basea izan zen. Ez zen azterketa bibliometriko hutsa izan, datu horiek

bere testuinguruan kokatzen ahalegindu nintzen. Izan ere, bata eta bestea elkarrekin lotuta daude: euskarazko produkzioaren ezaugarriak (jakintza-arloak, azpiegitura...) lotuta daude hainbat faktore historikorekin, esate baterako, Euskal Herriko goi mailako ikasketen ezarpen berantiarrarekin. Lan horren emaitza argitaratuta badago ere, aitortu behar dut ez duela interes berezirik sortu ez unibertsitateko errektoreordetzetan, ez katedretan, ez liburutegi zerbitzuetan, ezta Eusko Jaurlaritzan ere. Behintzat orain arte.

Produkzio zientifikoaren oinarritzko ezaugarriak

Has gaitezen euskarazko produkzio zientifikoaren gaineko zenbait zertzelada ematen. Lehenengo aipatu behar dudana ez da datu bat, baizik eta ideia edo kontzeptu marko oinarritzko bat: euskarazko produkzio zientifikoa normala da. Bestela esan: euskarazko produkzioa, hizkuntza gutxitu batean badago ere, ez da salbuespenezko produkzioa. Hasteko, ekoizpen idatzia, normalizazioaren ezaugarritzat hartzen dena, euskaraz egon badago eta zehazki 1968tik Euskara Batuan ekoiztia dago. Bi: euskarazko produkzioa dokumentazio zientifikoaren ohiko moldeetara egokitzen da, eta horregatik posible da euskarazko produkzio zientifikoaren azterketa estatistikoak edo bibliometrikoak egitea. Posible ez ezik, beharrezkoak dira azterketa bibliometrikoak euskarazko produkzioaren diagnostiko egokia egiteko eta sustapen politika eraginkorrak diseinatzeke. Hau da, gainditu egin behar dira azterketa kualitatiboak, non aditzera ematen den euskarazko produkzioa eskasa dela, eta produkzio guztia mugarri sakabanatuak aztertuta argitzen den.

Euskarazko produkzioa zabala da, urtero-urtero lan berriak argitaratzen dira, artikulua, itzulpenak, eta abar. Etengabeko

Euskarazko produkzioa,
hizkuntza gutxitu
batean badago ere,
ez da salbuespenezko
produkzioa

hazkundean murgilduta dago, zorionez, nahiz eta zorion horrek zoritxar batzuk ere badakartzan. Esate baterako, produkzioaren etengabeko hazkundearen ondorioz, produkzioaren sakabanaketa gero eta handiagoa da, baita zahartzea ere, eta urteko produkzio guztia zein den ezagutzea gero eta zailagoa da. Horregatik, Inguma moduko proiektuek dokumentazio zientifikoaren berezko joerak, sakabanaketa eta zahartzearen ondorioak mugatzen laguntzen dute. Horretarako hain zuzen ere prestatzen dira horrelako proiektuak, sakabanaketa eta ahanztura gainditzeko, besteak beste. Inguma, halaber, bestelako baliabiderik ezean, euskarazko produkzioaren azterketa bibliometrikoak egiteko baliagarria da.


Bestalde, aipatu behar da aldizkariak euskarazko komunikazio zientifikoaren oinarri direla. Euskarazko dokumentazio zientifikoaren zati handiena aldizkarietan argitaratzen da. Hori ere normaltasun adierazle bat da.

Hazkundearen gaineko azterketa

Esan dudan bezala, euskarak ohiko lege bibliometrikoak betetzen ditu. Hazkunde esponenzialaren legea, Price-ren lege gisa ezaguna, aztertuko dugu segidan. Priceren legeak dio produkzio zientifikoa modu esponenzialean hazten dela, hau da, bere hazkundera hain dela arina, ezen produkzioa 10 edo 15 urteren buruan bikoizten dela, harik eta une batetik aurrera hazkundera moteldu egiten den sabaia jo arte.


Lehenengo grafiko honetan, euskarazko produkzio idatziazen urtez urteko bilakaera adierazten da. Ikusten denez, gorabehera txiki batzuk badira ere, urtez urte euskarazko produkzioa etengabe hazi da. Esate baterako, 1980. urtean euskaraz 200 bat dokumentu zientifiko publikatzen baziren, 1990. urtean 500 izan ziren. Hortaz, hamar urteren buruan euskarazko produkzioaren hazkundera bikoiztu egin zen. Beraz, esan daiteke euskarak Priceren hazkundearen legea betetzen duela, euskarazko produkzio zientifikoaren hazkundera esponenziala baita.

1. *grafikoa.* Euskarazko produkzio zientifiko idatziaren urtez urteko ekoizpena (1966-2012). Ezkerretik eskumara urteak, eta goitik behera argitaratutako dokumentu kopurua (artikuluak, liburuak, liburu atalak, itzulpenak eta doktorego-tesiak agregatuta).



Baina legea betetzea baino garrantzitsua da adierazle horrek gaur eguneko euskarazko produkzioaren diagnostikoa egitea ahalbidetu dezakeela. Ikus dezagun:

2. *grafikoa.* Euskarazko produkzio zientifiko idatziaren urtez urteko ekoizpena beltzez eta Priceren legearen arabeko hazkunde teorikoa grisez. Ezkerretik eskumara urteak, eta goitik behera argitaratutako dokumentu kopurua (artikuluak, liburuak, liburu atalak, itzulpenak eta doktorego-tesiak agregatuta).



Grafiko horretan (2. grafikoa) marra grisak irudikatzen du zein izango litzatekeen hazkunde esponentzial ideala, edo teorikoa. Ikusten denez, euskarazko produkzioaren hazkundera hasierako urteetan Priceren legearen gainera egon zen. Baina azken hamar urteetan, marra biak, beltza (produktio erreala) eta grisa (teorikoa), banatu dira. Hau da, euskarazko produkzioa jarraitu dugun arren, gaur egun euskarazko goi mailako produkzioak hazkunde negatiboa bizi du, eta, beraz, euskarazko produkzio zientifikoa bere hazkunderaren mugara heldu da. Gaur egungo baldintzak (unibertsitate, argitaletxe, irakurle, idazle, eta abarrenak) aldatu ezean, hazkundera gero eta txikiagoa izango dela ematen du. Horra politika zientifikoak diseinatzen dituztenentzat balizko jomuga bat, baldin eta euskara eremu horretan garatzeko gogo akademikorik edota borondate politikorik balego.

Normala bai, ez ohikoa ere bai

Produktioa normala dela nabarmentzean, zenbait aurreiritzi eta mito apurtu nahi genuke. Hala ere, ezin da ukatu fenomeno bitxia dela hizkuntza txiki eta gutxitu bat goi maila-

Gaur egun
euskarazko goi mailako
produktio zientifikoak
hazkunde negatiboa
bizi du, eta, beraz,
bere hazkunderaren
mugara heldu da

ko esparruan erabiltzea, hau da, unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerkuntzan. Bitxia eta ez ohikoa da hizkuntza gutxitu bat aurkitzea esparru akademikoan, eta bere zirkuitua eratu izana. Ez da bakarra, baina bai hori lortu duen bakanetakoa. Izan ere, komunikazio zientifikoaren joera da hizkuntza bakarra erabiltzea ikertzaileen artean. Gaur egun,

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, ingelesa nagusitu da, baina aurretik beste batzuk ziren zientzia hizkuntza.

Hizkuntzaren normalizazioaren alde ekimen asko izan dira. Normalizazio prozesu horretan, indar handia jarri da

historikoki irakaskuntzan, edo hobeto esanda, eskola mailan. Izugarrizko esfortzua egin da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Lorpenak nabarmenak izan dira, baita hutsuneak ere, eskola ez baita nahikoa gizartea euskalduntzeko. Unibertsitate mailako esparruan, berriz, esfortzua ez da horrenbestekoa izan. Egon dira ekimenak eta proiektuak, UEU tartean, baita beste batzuk ere, euskararen erabilera goi mailako esparruan normalizatzeko asmoa izan dutenak.

Gogoratu behar da Euskal Herrian sortu diren unibertsitateak, bai pribatuak eta bai publikoak, sorreran erdaraz elebarrak zirela. Euskal kulturgintzaren eta euskaltzale batzuen lan eta nekeei esker, euskara unibertsitatean sartzen hasi zen. Hori gertatu da UPV/EHUn, esate baterako. Unibertsitatea euskalduntzeko ekimena ez zen sortu zerbitzu publikorako bokazioa zuen unibertsitatearen barruko estamentuetatik, baizik eta euskaltzaleengandik. Zorionez, euskaltzale horiek barruan konplize batzuk topatu zituzten. Baina hasieran ez zen unibertsitate politika aktiborik egon. Hizkuntza plangintzak gerora etorri ziren.

Ezbairik gabe, prozesu horretan UPV/EHUk egin du ibilbiderik zabalena, eta beste batzuk oso atzean geratu dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoan, esate baterako, ikasle euskaldunek ez dute euskaraz ikasteko aukerarik. Matrikulatzeko eskatzen zaie, ikusarazteko ikasleria euskaldunaren kopurua zenbatekoa den, nahiz eta gero sarritan ezin dituzten irakasgaiak euskaraz eman ez dagoelako irakasle (kontratatu) nahikorik.

Euskarazko produkzio zientifikoa normala bada ere, zenbait bereizgarri ditu. Eta lehena dagoeneko, zeharka behintzat, aipatu dugu: hizkuntzaren egoera gutxitua bai gizartean bai unibertsitatean ere. Bigarrena ekoizpenaren azpiegitura instituzionalari dagokio. Ingelesezko, frantsesezko zein gaztelaniazko produkzio zientifikoaren erakunde ekoizle nagusiak unibertsitateak, goi mailako ikerkuntza zentroak eta ospitaleak dira. Hau da, azpiegitura oso sendoak, baliabide ekonomiko eta profesional ugari dituztenak atzean, eta, urrunean,

lukuru asmorik gabeko erakundeak, goi mailako kultur elkarte eta erakundeak. Azken horiek normalean produkzioaren %5-6 baino gutxiago ekoizten dute. Euskaraz, berriz, alderantzizko egitura dugu. Gure kasuan, euskal kultur gintzan diharduten erakundeak dira ekoizpena ahalbidetzen duten azpiegitura nagusiak, eta ondoren, urrunago, unibertsitateak. Adibide bat: Inguman identifikatutako 46 argitaletxeetatik, ugarienak kultura eta zientzi erakundeenak dira (adb. Euskaltzaindia, UEU, Aranzadi Zientzi Elkarte, UZEI, Eusko Ikaskuntza...). Guztira mota horretako argitaletxeak 19 dira, eta argitaletxeen produkzioaren %62,6 ekoizti dute. UPV/EHU, DU eta NUPen argitalpen zerbitzuek, berriz, produkzioaren %23 kaleratu dute (hiruretatik UPV/EHU da erabat nagusi). Beraz, goi mailako euskarazko liburugintza Euskal Herriko elkarte eta erakunde kultural eta zientifikoek eutsi izan dute, eta ez unibertsitateek. Eta liburuak beharrean artikulu zientifikoek gainera datuak emango bagenitu, antzeko emaitza izango genuke, aurrerago ikusiko dugunez.

Hizkuntzaren batasuna nagusiki Euskaltzaindiak beste kultur eragile batzuekin batera egin bazuen, zientzia eta teknika erakunde euskara nagusiki euskal kultur gintzak prestatu zuen. Hau da, unibertsitate kanpo elaboratu zen, nahiz eta horretan aritutako batzuk unibertsitateko irakasleak izan. Izan ere, une hartan, 70eko hamarkadan, unibertsitateak ez ziren aukerarik ematen euskararen prestaketa eta egokitze lanak unibertsitatean bertan egiteko. Plaza askoz ere egokiagoak suertatu ziren, adibidez, UEU, Elhuyar edota UZEI.

Prozesu historiko horrek epe luzeko eragina izan du, eta gaur egun ere goi mailako euskarazko produkzioaren ekoizle nagusiak ez dira unibertsitateak, komunitate zientifiko normalizatueta ohikoa den moduan, baizik eta euskal kultur gintzako elkarteak. Beraz, alde horretatik esan liteke euskara goi mailako esparruan azpi-instituzionalizatuta dagoela, euskarazko unibertsitate ofizialik ez dagoelako (nahiz eta euskarazko eskaintza akademikoa duten unibertsitateak badiren), eta produkzio gehiena ofizialak ez diren edo administrazio

publikoetatik kanpo kokatutako kulturgintzako erakunde eta elkarteen esku dagoelako.

Hirugarren bereizgarria: egile euskaldunen arteko lankidetzaz oso txikia da. Hau da, beraien arteko harremanak egon badaude, baina liburu edo artikuluen prestaketa norbanakoaren lana da nagusiki. Hizkuntza nagusi batean ekoiztutako lan batek, Science Citation Index-ean (SCI) jasotakoak, adibidez, batez beste 3-6 egile izan ditzake, eta, aldiz, euskarazkoetan ohikoena egile bakarra izatea da. Are gehiago, euskarazko produkzio zientifiko idatzia-
ren %80k egile bakarra du.

Fenomeno hori, besteak beste, jakintza arloarekin ere lotuta dago. Hau da, Zientzia arloko gaitan egileen arteko lankidetzaz handiagoa da Giza eta Gizarte Zientzietan baino, eta euskaraz Giza eta Gizarte Zientzietako gaiak nagusi dira (erdaretan, aldiz, Natur Zientziak, Zientzia Hutsak, Ingeniaritza eta Osasun Zientziak dira gailen).

Goi mailako euskarazko produkzioak hiru baldintzapean nagusi ditu: lehena, finantziario eredu; bigarrena, azpiegitura; eta hirugarrena, tradizioa

Baldintzapean: finantziarioa, azpiegitura eta tradizioa

Ez da kasualitatea euskaraz gehien lantzen diren gaiak Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak izatea, goi mailako euskarazko produkzioaren baldintzapean ugarien ondorio baizik. Gure ustez, badira hiru baldintzapean nagusi: lehena, finantziario eredu; bigarrena, azpiegitura; eta hirugarrena, tradizioa.

Euskarazko azpiegitura zientifikoa nagusiki euskal kulturgintzak sortu eta eusten duela esan dugu. Euskal kulturgintza horrek autofinantziario maila apala du, eta nagusiki administrazio publikoaren kultura eta hezkuntza sailetatik (Jaurleritza, diputazio...) eratorritako diru-laguntzetatik egikaritzen

ditu bere proiektuak. Beraz, euskararen inguruko hizkuntza politika eta plangintzek eusten dute euskarazko goi mailako produkzioa. Hau da, euskarazko ekoizpen zientifikoak, ikuspegi administratibo batetik, ez du loturarik politika zientifikoekin, hizkuntza politikekin baizik.

Giza eta Gizarte Zientzien arloko gaiak lantzeko, baliabide gutxi behar dira eta hizkuntza politiketarik eratorritako diru-laguntzekin finantza daitezke. Beste jakintza arlo batzuk, berriz, Fisika, Kimika, eta abar, esperimentalagoak diren neurrian, eta berariazko azpiegiturak (adb. laborategiak) eta tresnak (adb. partikula-azeleragailuak) behar dituzten heinean, ezin finantza daitezke hizkuntza politikarik eratorritako baliabideekin. Beraz, goi mailako euskarazko produkzioak gaur egun duen azpiegitura mugatuarekin, nolabaiteko jarduera duina Giza eta Gizarte Zientzietan soilik planteatu daitezke. Zientzia eta Teknologiaren esparruan gaur egun euskaraz egiten dena (testuliburuak, ikastaro laburrak, dibulgazio aldizkariak, eta abar) baliabide mugatuekin aurrera atera daitezkeena da.

Halaber, ezin da gutxietsi tradizioa. Euskaraz tradizio gehien duten gaiak Giza eta Gizarte Zientzien arlokoak dira. Izatez, arlo horretako lanak 1936ko gerra aurretik jada baziren. Eta gerraosteko lehen hamarkadetan aintzakotza handiagoa izan zuten euskal idazleen artean Literaturak, Teologiak edo Filosofiak, adibidez, zientziekin baino.

Eta puntu honetan, 1959an Charles Percy Snow fisikari ingelesak Cambridgeko unibertsitatean emandako hitzaldi ezagunari erreparatu nahi diot. Arin esanda, Snowek, bere hitzaldi famatuan, bi kultura akademiko zeudela aipatzen zuen: batetik, zientziak, eta, bestetik, humanitateak (edo letrak). Batean eta bestean ari diren pertsonak unibertsitatean egon arren, oso kultura desberdinak zituztela defendatzen zuen Snowek. Bi muturretan zeudela eta bi kulturen artean komunikazio oso txikia zegoela zioen, eta horren ondorioz diziplinartekotasunik ez zegoela. Snowek kultura bien arteko hurbiltze bat proposatu nahi zuen, noski. Ideiok 1959koak dira. Ikus dezagun Euskal Herrian zer gogoeta egiten zen urte berean:

Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik (Orixe, 1959).

Aipu horretan ikusten denez, Orixek, Snowek bezalatsu, argi eta garbi ikusten zuen bi kultura zeudela, batetik Literatura, Hizkuntzalaritza, eta abar, eta bestetik Natur Zientziak eta Zientzia Hutsak. Baina azken horiek Orixerentzat ez ziren interesgarriak, eta euskara horietan erabiltzeak ez zuen zentzurik.

Testu zati hori atera dugu Orixek Jakin aldizkarira 1959an bidalitako eskutitzetik. Gogoratu behar da Jakin aldizkarian garai honetan argitaratu zela Joseba Intxausti gaztearen 'Illobira bultzaka' artikulua. Izenburu gogorra zuen lan horretan, ideia argi bat defendatzen zuen idazle segurarrak: garbizaleek euskara hiltzera kondenatzen zutela, bai hizkuntza hautua-gentatik, baita jorratzen zituzten gaiengatik ere.

Euskera illobira bultzatzen ari zaizkigu zenbait euskal-idazle, nai dan borondate onenarekin bada ere. [...] Euskera-jauregian ez dugu antxiñako irudi, arri, ezur eta abarrentzako ikusleku txukunik bear, ez; jauregi-kolkoa bizitzaz, lantegiz, laboratorioz, jakintzaz bete bear dugu: bizitza, bizitza bear da (Intxausti, 1959).

Hizkuntza hautuak, garbia edo mordoiloa, tematikan eragina zuen. Oro har, garbizaleek gai 'zerutiarrak' edo espiritualak (Filosofia, Teologia...) jorratzen zituzten bitartean, 50eko hamarkadaren bukaeran euskara 'mordoiloaren' aldekoek kultur gaiak, 'mundutarrak' ziren horiek, landu nahi zituzten, besteak beste zientziak. Hor azaleratu zen euskara esparru berrietara hedatzeko ikusmira bat, hurrengo hamarkadetan segida izan zuena, eta gaur egun ere ondo datorrena gogora ekartzea.

Euskal endotematikaren arrisku iragarria

Une batez tradizioaren eragina alde batera utzi eta datu gordinetara itzul gaitezen. Euskaraz produkzio gehien duten jakintza arloak 'euskal' kontzeptuari lotuta azaltzeko 'erraztasuna'

izaten dutenak dira. Eta, oro har, Giza eta Gizarte Zientziak hobeto moldatzen dira etiketa horretara. Hots, 'euskal historia' edota 'euskal literatura' kategoria arrunt eta finkatuak egiten zaizkigu, eta, hain zuzen ere, diziplina horien inguruan euskarazko produkzioa nahiko ugaria da. Aldiz, Ingeniaritza edo Medikuntzari 'euskal' adjektiboa eranstea, ez zaigu burura ezer ezagunik etortzen, ez bada ingeniari euskaldun bat, Euskal Herriko medikuntzaren historia... Eta, berriro

Jakintza-arlo bat
'euskal gai' gisa
egituratzeak auzi
horren inguruko
euskarazko produkzioa
errazten du, eta
Giza eta Gizarte
Zientzien arloak
moldagarrienak dira

ere, Giza eta Gizarte Zientzietara egin dugu saltoa, nahiz eta abiapuntuan Ingeniaritza edo Medikuntzan geunden. Hortaz, jakintza-arlo jakin bat 'euskal gai' gisa egituratzeak auzi horren inguruko euskarazko produkzioa errazten du, eta zentzu horretan Giza eta Gizarte Zientzien arloak moldagarrienak dira.

Beraz, arazoa 'euskal gai' edo 'euskal esparrura' begira gartzen ez diren arloetan dago, hor euskaraz gutxi produzitzen baita.

Auzi hori, beste askoren modura, ez denez oraingoa, berriro ere atzera egingo dugu, 50eko hamarkadaren amaierara. Jakin aldizkariko Iñaki Bastarririk eta Txillardegik eztabaida gogorra izan zuten gai horren inguruan. Zer pasatu zen? Txillardegik atera berri zuen bere eleberri existentzial ezaguna, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957). Bastarririk Txillardegiri kritikatu zion aukeratutako tematika. Izan ere, protagonista donostiarrak kontatzen zituenak ez zeuden lotuta Euskal Herriari, baizik eta kezka existentzialak ziren, bakardadea, tristezia... Txillardegik, besteak beste, honela erantzun zion:

Zure ustez 'Euskalerriko gaiak' ukitu bear dira bakarrik. Zure ustez, oker ez banao, ezpaitzera zu leenengo xinplekeri oietan, euskeraz idazteko 'emengo' zerbaitez egin bearda. Zertara joko 'kanpora'? Baña, zer da 'emen'? Zer da Euskalerrria zure ustez?

Badakit. Diferente dena: izkuntza dena, lamiñen ipuiak, basojauna, baserria, korrika-apostuak, aitonen semeen istorioak, eta abar (Txillardegi, 1958).

Bastarrika eta beste askoren axioma zen hizkuntza-ere-muak tematika mugatzen zuela. Eta gaur egun ere askok antzera pentsatzen dute. Hori ontzat ematen badugu, euskara moduko hizkuntza txiki eta gutxituen garapena erabat mugatuta egongo da. Izan ere, hizkuntza txiki horiek espazio geografiko eta hitzun komunitate txikiak dituztenez, gaien aniztasunaren aldetik mugapen larriak pairatuko dituzte. Gainera, axioma hori onartuz gero, erdaren apriorismoa indartzen da, hau da, erdarek edozein gairi buruz aritzeko balio dutela.

Euskara euskal gai direlakoez aritzeko erabili behar dugula eztabaidaezina den moduan, beste edozein gai lantzeko ere balio beharko luke, hitzunik hizkuntza edozertarako behar edota erabili dezakeelako. Hala ere, administrazio publikoen politika aurrerakoi batzuen ikerketa deialdian, aipatzen da diru-laguntza eskuratzeko orduan lehentasuna izango dutela Euskal Herriarekin lotutako gaiak. Ikerketa euskaraz egitea sustatu beharko litzateke, eta ez euskal gai bat izatea. Hitzuna da gutxitua dagoena, are goi mailako esparruan, eta hori da suspertu behar dena.

Aldizkarietan argi-ilun zenbait

Aldizkariak komunikazio zientifikoaren oinarri izan ohi dira. Ikus dezagun goi mailako zelako aldizkariak ditugun Euskal Herrian; izan ere, horren araberakoa izango da euskarazko komunikazio zientifikoa. Azken 40 urteotan euskaraz eta goi mailan zerbait ekoitzi duten 108 aldizkari katalogatuta daude Inguman. 108ek ez dute multzo homoginoa osatzen: batzuk 2001. urtean sortu ziren (adb. *Gogoa*), eta beste batzuk 50eko hamarkadan (adb. *Egan*); batzuk gai jakin batean espezializatuta daude (*Musiker*), eta beste batzuk, berriz, zenbait jakintza-arlo barne hartzen dituzte (*Uztaro*). Guk aldizkariak

hizkuntzaren erabileraren arabera sailkatu ditugu: batetik, euskarazko aldizkariak, hau da, euskara hutsez argitaratzen diren aldizkariak; eta, bestetik, aldizkari 'eleanitzak', erdararen batean edo gehiagotan argitaratutako aldizkariak, non euskarazko lan bat, edo gehiago, argitaratu den.

Euskarazko 22 aldizkari ditugu, baina hiru dagoeneko ez dira editatzen; beraz, bizirik gaur egun 19 aldizkari daude. Aldizkari eleanitzei dagokienez, Inguman 86 daude. Kasu honetan, desberdinu behar dira euskara eta erdararen erabilera orekatua egiten duten aldizkariak (hala nola, *Lapur-dum*, *Fontes*, eta abar) eta nagusiki erdaraz kaleratzen diren aldizkariak, zeintzuetan euskarazko lanak tartekatzen diren. Azken horiei 'aldizkari diglosikoak' deituko diegu. Esate baterako, UPV/EHUK argitaratutako aldizkari bat ekarriko dugu adibide gisa, *Zer* aldizkaria, Kazetaritza eta Komunikazio Zientzien alorrekoa. 35 zenbaki argitaratuta ditu, baina guztira 10 artikulua baino ez dira kaleratu euskaraz. Kontuan izan behar da UPV/EHUn euskarazko Kazetaritza eta Komunikazio karrera ikas daitekeela, hau da, irakasleria eta ikasleria euskaldun masa bat badela. Orduan, *Zer* aldizkarian zergatik ez dira lan gehiago euskaraz argitaratu? Arrazoia zehazki ez dakigu, ez dugu ikertu, baina argi dagoena da euskarazko kazetaritza eta komunikazioarentzat *Zer* aldizkaria urrun dagoela erreferentziala izatetik. Agian, aipatutako erreferentzialtasuna beste aldizkariaren batek izan dezake, nahiz eta jakintza-arlo horretan espezializatuta ez egon. Posible da *Uztaro* aldizkariak, Giza eta Gizarte Zientziei buruzkoa izanik ere, aipatutako jakintza arloko irakasle eta ikertzaile euskaldunentzat erreferentzialtasun handiagoa izatea *Zer* aldizkari espezializatuak baino.

Zer aldizkariaren kasua, zoritxarrez, ez da salbuespena eta ez dugu zirrara sortzeko aipatu. *Zer* sakoneko eta egiturazko arazo baten adibide bat baino ez da. Izan ere, euskarazko 22 aldizkarietan euskarazko produkzioaren %80 argitaratzen da, eta beste 86 aldizkarietan %20. Aipatutako 22 aldizkarietako 19 euskara hutsean argitaratutako aldizkariak dira, eta beste

hirurak euskarazko lan ugari kaleratzen dituzten aldizkari 'leanitzak' (ez diglosikoak). Beraz, orokorrean esan daiteke euskarazko produkzioaren erreferentzialtasuna aldizkari euskaldunek dutela, aldizkarietan kaleratutako produkzio gehiena euskaraz ekoiztutako aldizkari euskaldunetan kontzentratzen baita. Beste 86 aldizkarietako euskarazko produkzio txikia da eta oso sakabanatuta dago. Bereziki aipagarria da aldizkari diglosikoek *laissez faire* jarrera politikoki zuzenarekin sortzen duten egoera konplikatu komunikazio zientifikoaren esparruan. Izan ere, mota horretako aldizkarietako euskarazko lanak sistematikotasunik gabe argitaratzen dituzte, askotan ikusezinak bilakatzen dituzte eta euskarazko komunikazio zientifikoaren fluxua eten egiten dute

Aldizkari diglosikoek euskarazko lanak sistematikotasunik gabe argitaratzen dituzte, askotan ikusezinak bilakatzen dituzte eta euskarazko komunikazio zientifikoaren fluxua eten egiten dute

zazko komunikazio zientifikoaren fluxua eten egiten dute. Hau da, unibertsitateko kideentzat zaila da mota horretako aldizkarietan argitaratutako euskarazko lanen jarraipenik egitea. Beraz, euskaraz egonik ere, ausaz aurkitzen dira, eta, ondorioz, irakurketa eta erabilera ez dute guztiz ziurtatuta.

Beste datu esanguratsu bat nabarmenduko dugu. Gorago liburuei buruz aipatu dugun ildo berean, euskarazko aldizkariak ere bi erakunde motak ekoizten dituzte: lehenengo euskal kulturgintzak, eta ondoren unibertsitateak. Aldizkarietan argitaratutako euskarazko produkzio gehiena euskal kulturgintzak plazaratutako aldizkarietan kaleratzen da. EAEn zein Nafarroan, berriz, ingelesez edota gaztelaniaz ekoizten diren lan zientifikoaren %70-80 unibertsitateek ekoizten dute; beste %20 bat argitaletxe komertzial, ospitale, ikerketa zentro eta enpresek; eta lukuru asmorik gabeko erakundeek ekoizpena %3-5 artekoa da. Euskararen kasuan, berriz, atzetik aurrera hasi behar dugu osteria ere. Inguman jasotako

datuetan oinarrituz, elkarre edo lukuru asmorik gabeko erakundeek argitaratzen dituzte euskarazko lanak dituzten aldizkari gehienak, eta beraiek dira, salbuespenak salbuespen, euskara hutsezko aldizkari proiektuak dituztenak.

Beraz, hizkuntza bakoitzeko ekoizpen zientifikoak erakunde azpiegitura desberdina du atzean. Horrek guztiak, noski, ezinbestean baldintzatzen du euskarazko produkzio eta komunikazio zientifikoa, baita komunitate zientifikoaren neurria, gaiak, garapena eta aitorpen soziala zein instituzionala ere.

Unibertsitateek plazaratutako aldizkarietatik UPV/EHU da euskarazko aldizkari eta artikulua gehien argitaratzen dituen unibertsitatea. Noski, guztietatik handiena ere bada, baita administrazio publikoak diruz gehien lagundutakoa ere. Ikus dezagun, bada, zehazki zein den UPV/EHUren ekarpena euskarazko produkzio zientifikoaren esparruan.

Guztira, UPV/EHUK gaur egun 34 aldizkari ditu, horietako 3 euskaraz argitaratzen dira: *Tantak*, *Ekaia* eta *Gogoa*. Lehenengo biak UPV/EHUren lehenengo euskara plangintzaren testuinguruan sortu ziren, eta azkena duela dozena bat urte agertu zen. Beste 31 aldizkarietan badira aldizkari batzuk euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta 11 aldizkarietan ez da euskarazko lanik inoiz publikatu. Eta ez bada euskarazko lanik argitaratu erdarazko aldizkarietan, ez da 11 aldizkari horiek ingelesezkoak direlako. Izan ere, UPV/EHUren ingelesezko aldizkariak 2 baino ez dira. Beste guztietan gaztelania da nagusi.

Hori ez da fenomeno aipagarri bakarra; izan ere, antzeman dugunez, erdara-euskara tartekatzen omen duten 20 aldizkariarten artean, badira aldizkari batzuk aldizkariaren hasierako urteetan euskarazko lanak argitaratu zituztenak, eta azken urteotan euskarazko lan bat bera ere argitaratzen ez dutenak (adb. *Theoria*).

Bestalde, badira ingeleserako jauzia egin duten aldizkariak. Adibiderik ezagunenetakoa *Revista de Psicodidáctica* aldizkaria da. Hasiera batean gaztelaniazko lanak argitaratu arren, euskarak presentzia nabarmena zuen. 17. zenbakitik aurrera

(2012), gaztelaniaz eta ingelesez argitaratzen hasi zen. Horri esker, besteak beste, Web of Knowledge (WoK)-en indexatzen da. Euskarazko artikulurik jada ez da argitaratzen bertan.

Pentsa liteke aipatutako kontu horiek guztiak gertaera puntualak direla, orain sortzen ari diren aldizkariak UPV/EHUen bestelako oinarri eta asmoekin sortu direla. Baina ez. Azken hamarkadan, UPV/EHUen 6 aldizkari sortu dira. Tamalez, aldizkariok erabat erdaldunak dira, edota gehien jota 10 urtetan 5 artikulurik argitaratu dituztenak euskaraz (adb. *Revista Vasca de Economía Social*).

Fenomeno horiek, noski, bizi dugun testuinguru akademiakoaren isla zuzenak dira: UPV/EHUren nazioarteratze prozesua, ingelesaren gorakada jakintza-arlo guztietan, egileek ohiko kanon akademikoetara egokitzeko beharra ibilbide arrakastatsua egiteko, edota besterik gabe beraien lanpostua egonkortzeko, eta abar. Hori guztia kontuan hartuta, gure ustez, euskarazko produkzioak UPV/EHUen sabaia jo du. *Tantak, Ekaia* eta *Gogoa* aldizkarietatik kanpo, UPV/EHUko aldizkarietan gero eta gutxiago argitaratuko da euskaraz. Eta, seguru aski, ondorio hori beste aldizkari elebidun/eleanitzetara orokortu daiteke. Izan ere, euskarazko produkzioak azkenaldian nonahitik begiratuta goia jo duela ematen du. Ikus dezagun zer pasatzen den artikuluekin.

Ingumaren arabera, 2013. urtean 425 artikulurik kaleratu ziren euskaraz. Zenbaki polita dirudien arren, kopurua perspektiba zabalago batean aztertzen badugu, eta atzera jotzen badugu, ondorioa ezin ezkorragoa da: 2000-2004 tartean, batez beste urteko 483 artikulurik argitaratu ziren euskaraz, hau da, duela 10 urte baino produkzio txikiagoa dugu. Eta hori ez da euskarazko aldizkariren bat hil egin delako; izan ere, azken 15 urteotan aldizkari berriak sortu dira, hala nola, *Gogoa* eta *Euskalingua*. Gure hipotesia da erdara-euskara tartekatzen zuten aldizkariak gero eta euskarazko lan gutxiago argitaratzen dituztela.

Aipatutako hipotesia konprobatzea erraza da, nahikoa litzaiteke erdara-euskara tartekatzen duten 86 aldizkariak hartzea

eta zenbakiz zenbaki aztertzea zer pasatu den jakiteko. Horra inurri lan bat, konprobatzeko zaila gaur egungo ikerketa testuinguru unibertsitario itogarrian. Une honetan horrelako ikerketa lerro bati jarraipena ematea ezinezkoa da, ez bada militantzia eta konpromiso pertsonalarengatik. Izan ere, unibertsitariok ikerketa talde batean sartu –edo berri bat osatu– behar dugu, ikerketa proiektu lehiakor bat prestatu, ikerkuntzaren emaitzak indexatutako aldizkarietan argitaratu, aipatuak izan, eta abar. Ahaztu gabe hori guztia egitea lan eskerga dela, edozein momentutan bazterrean gera daitkeela erdal ‘adituen’ etengabeko ebaluazioak gainditu behar ditugulako. Une honetan, beraz, ezinezkoa da euskarazko produkzio zientifikoaren gaineko ikerlerroari, beste ikerketa ildo askori bezalaxe, jarraipen profesionala ematea. Halako gai bat ikertzen, lantzen eta interesa izaten jarraitzen badugu, gure konpromiso pertsonalarengatik izango da, ez besterik.

Testuinguru horretan kokatzen dugu egile euskaldunen arteko lankidetza txikia. Izan ere, Ingumaren arabera, egile euskaldunak asko dira, 8.845, baina beren arteko lankidetza oso txikia. Hau da, beraien arteko harremanak egon badaude, baina liburu edo artikuluen prestaketa norbanakoaren la-

Ingumaren arabera,
egile euskaldunak
asko dira, 8.845, baina
beren arteko lankidetza
oso txikia. Izan ere,
artikuluen %86 egile
bakarrak sinatzen du

na da nagusiki. Izan ere, artikuluen %86 egile bakarrak sinatzen du. Jakintza-arloei erreparatuta, aldeak badira: Natur Zientzia eta Zientzia Hutsen esparruan, egile bakarra duten artikuluek %74 dira, eta Giza Zientzietan, berriz, %90. Hala ere, esparru bietan egile euskaldunen arteko lankidetza oso txikia da. Hizkuntza nagusi batean ekoiztutako lan

batek batez beste 3-6 egile izan ohi ditu. Araua, beraz, egile bat baino gehiago egotea da, eta salbuespena egile bakarreko lanak. Euskarazkoetan, aldiz, ohikoena egile bakarra izatea da. Eta galdera da, egile batek zergatik ingelesez ekoizten

duena taldean egiten du eta euskarazkoa bakarrik? Arrazoi bat baino gehiago eman liteke. Bat aipatzea gustatuko litzaidake. Egile euskaldunek badakite euskaraz argitaratutako lanek aitortza txikiagoa dutela. Hortaz, aitortza gutxiko lanak argitaratzeak atzerapena ekar dezake norbere karrera akademikoan, denbora galera bat, eta hori onartzea norbere aukera eta balioen arabera da, erabaki pertsonala. Euskaraz jardutea goi mailan, une honetan ere, ekintza militantea da.

Militantzia guztietan bezala, badaude batzuk lubakian etengabe daudenak, eta beste batzuk militantzia puntualagoak dituztenak. Esate baterako, egile euskaldunen idatzizko produkzioa, salbuespenak salbuespen, baxua da. Ingumako datuen arabera, euskaraz zerbait ekoitzi duten egileen erdiak inguru dokumentu bakarra ekoitzi du euskaraz. Beraz, mota horretako egileek ez dute euskarazko produkzioa modu sistematikoan egiten, ez dute ez beraien goi mailako euskarazko erregistro pertsonala lantzen, ezta jakintza arlo bateko hiztegi espezializatua egonkortzen eta finkatzen laguntzen ere. Noizean behin egindako kolaborazioak izan ohi dira.

Ondorioetara hurbilduz, erronkak plazaratuz

Euskara hizkuntza txiki eta gutxitu bat da, goi mailako euskarazko produkzio zientifikoa baduena eta komunikazio zientifiko esparru bat eraiki duena. Noski, bereizgarri ugari ditu, gehienak gutxiespen sozialaren ondoriozkoak direnak, ez hizkuntzaren beraren ezaugarri linguistikoetatik eratorritakoak. Azken 40 urteotan euskararen ibilbidea esparru akademikoan intentsoa izan da, emankorra ere bai, eta biziki interesgarria gure moduko ikertzaileentzat. Hizkuntza batasuna egiten ari zela, goi mailako esparruan erabiltzeko apustua egin zuten zenbait pertsonak eta erakundek, eta horri esker gaude gaur gutariko asko hemen XXI. mendeko Euskal Herrian Euskal Unibertsitatearen alde lanean.

Eta orain, hizkuntzaren batasun auzia ebatzita dagoeanean (nahiz eta oraindik eztabaidak badiren terminologia


espezializatuaren inguruan), karrera asko euskaraz ikas daitezkeenean unibertsitatean, bereziki UPV/EHUn, eta inoizko ikasle euskaldun matrikulatu eta irakasle-ikertzaile euskaldun kontratatu gehien daudenean unibertsitate desberdinetan... noiz eta orain, euskarazko produkzioak behera egin du. Nonbait zerbait ez dabil ondo... eta buelta eman behar diogu nagusitzen ari den joera horri.

Hasteko, unibertsitario euskaldunek euskaraz ere ekoitziko balute, jautzia emango genukeela seguru nago. Dударik gabe, jakintza-arloen arabera euskaraz modu desberdinean ekoizten da. Historia arloan, esate baterako, sarritan, euskaraz argitaratzen ditugu ikerketen emaitzak, eta, ondoren, emaitzok ezagutzera emateko, ingelesezko sintesiak prestatu beharko genituzke. Fisikan, berriz, ez dut uste ikerketa baten emaitza lehenengo euskaraz kaleratu behar denik, kasu horretan imajinatzen dut ingelesa erabiliko litzatekeela ikerketaren hasierako emaitzen berri emateko, eta euskara goi mailako dibulgazioa egiteko erabil liteke. Beraz, egile unibertsitario bakoitzak, bere jakintza-arloaren ezaugarriak eta bertako informazio eta komunikazio fluxuak ezagututa, produkzio eleanitza egin beharko luke, erdal elebakartasuna gaindituz.

Gaur egun, euskarazko komunikazio zientifikoak erronka handi bat du: euskarazko produkzio zientifikoari eustea. Horretan, ebaluazioa giltzarri izan daiteke. Une honetan euskarak baditu goi mailako produkzioa, azpiegitura eta egileak. Horien egoera nahiko prekarioa da. Ebaluazioak sare hori trinkotzen lagun dezake, baldin eta horretarako interesa badago eta irizpideak garatzen badira. Ebaluazioaren bitartez, produkzioa eta egile euskaldunak sustatu nahi badira, irizpideak garatu beharko lirateke. Eta irizpide horiek lotuta egon behar dute hizkuntza bakoitzaren bilakaera sozial, linguistiko eta azpiegiturekin.

Euskarazko lanen erreferentzialtasuna areagotzeko, eta euskaldunen goi mailako komunikazio esparrua trinkotzeko, giltzarria izan daiteke goi mailako euskarazko produkzioaren ebaluazio sistema propio bat garatzea: alde batetik, aitortuko

duena hizkuntzaren normalizaziotik harago euskarazko produkzioaren balioa eta erabilera goi mailan (irakaskuntzan, ikerkuntzan, eta abar); bestetik, sustatuko duena egileen produkzioa; eta, azkenik, erreferentzialtasunak eraikitzen lagunduko lukeena (aldizkariena, egileena, eta abar). Oso baliagarria litzateke, horretarako, euskararen beraren gaur eguneko egoera soziolinguistikora eta bilakaera historikora egokitutako nazioarteko oinarrizko estandarrak erabiltzea. Bestelako ebaluazioek, hau da, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa eta historikoa aintzat hartzen ez dutenek, eragin kaltegarria izan dezakete goi mailako euskararen erabileran.

Euskara, maila akademikoan, lehen aipatu dugun moduan, azpi-instituzionalizatuta dago, euskarazko produkzio gehiena kulturgintzako erakunde eta elkarteek ekoizten dutelako. Alde horretatik, euskararentzat unibertsitatea behar dugu, euskararen hizkuntza-komunitatea eratzeke eta garatzeko erakundea. 

Oharrak

1. Tesiaren atal bibliometrikoa argitaratuta dago eta sarean kontsulta daiteke: 'Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa' (Artetxe, 2011). Bertan aurki daitezke zehatz jasota artikuluko honetako datuak, baita haiekin lotutako erreferentzia bibliografikoak ere.
2. Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea (www.inguma.es).

Bibliografia

- Artetxe, K. (2011): 'Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa'. *Cuadernos Sociológicos Vascos* 28, 5-174 (www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/cuaderno_sociologico_vasco_28/es_cu_soc28/adjuntos/csv28.pdf; 2015-03-15).
- (2011): *Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*, Bilbo: UEU.
- Intxausti, J. (1959): 'Illobira bultzaka', *Jakin* 9, 83-88.
- Orixe [N. Ormaetxea] (1959): "Mea culpa" eta "quos ego!". Anizetxe iau-nari', *Jakin* 9, 89-93.
- Snow, C.P. (I. Irazabalbeitia itzultzailea) (2007): *Bi kulturak*, Donostia: Elhuyar.
- Txillardeggi [J.L. Alvarez Enparantza] (1958): "Txillardeggi" jaunaren erantzuna', *Jakin* 6, 85-93.

EGUNEN GURPILEAN

117 Kultura

Lekuko batetik ateratzen diren hariak
Basterretxea, Oteiza eta Txillida
Irudien atlasak
Nagore Amondarain

123 Ekonomia

Nazioarteko itun ekonomikoak
Merkatu askearen bertsioak
Pornografia
Desjabetze hilgarriak
Henrike Galarza

129 Soziolinguistika

Mapak
Mugarria
Kontzeptuak irauli
Txerra Rodriguez

135 Telepolis

Euskara eta teknologia uztartzen
dituzten bederatzi proposamen eta
ohar bat
Sentsoreak esku artean
Gorka Julio



Kultura

Nagore Amondarain

Lekuko batetik ateratzen diren hariak

Urte birik behin gertatzen dena gertatu da aurten ere, uda-berriaren atarian izan dela Korrikaren sasoia. Pilatuz doaz apurka-apurka iragandako edizioetako emozio, oroitzapen eta argazkiak norbere ganbaran. Eta ganbara arakatzeko edo ganbarara sartzeko moduko pasarteak dela deritzot, eskuz esku pasatzen den Korrikaren testiguaren nondik norakoak aipatzea. Ni neuk duela gutxi jakin dut Remigio Mendiburuk eginikoa izan zela 1980ko aurreneko edizioeko egurrezko lekuko hura, eta gerora Juan Gorritik berri zuela.

Azalpen gutxi utzi omen zituen Mendiburuk lekukoaren ingurukoez; ikusita dakigu egurrezko lekukoa dela, muturretan zazpi zulo dituen, hiru eta lau bereziturik, euskararen eremuak irudikatuz bezala. Hiru urradura ere baditu eta esan ohi denez hiru administrazioak irudikatuko lituzkete zauri horiek. Barrua hutsa du eta pentsatu daiteke Oteizaren 'huts eta betearen' iruditik izan dezakeela jatorririk. Huts horretan sartzen da mezua, ibilbide guztian eskuz esku ibiliko dena, azken egunean zabaldu eta irakurtzeko. Gorritik eginiko makila berriak kiribilaren sistema zuen, barruko mezua askatzea hain erraza izan ez zedin.

Inguruan dugun edo kontsumitzen ditugun irudi askok osatzen dute arte-adierazpena. Hain hurbil ditugun arren, begira zenbat eskutatik pasatzen den edizio bakoitzeko aldi oro, arte plastikotzat hartzen den alor hori arrotza bezain urruna zaigu, hasiera batean. Baina esandakoa: egunerokoan inguratzen gaituen ingurumari hori arakatzeko besterik ez dago, egunero zer edo zer berria ikasteko. Makila bat baino

ez da, baina zenbat oroitzapen biltzen dituen bere baitan eta zenbat alderdiren sinbologia izan daitekeen.

Egia da artearen xede gabe jasotzen ditugula horietariko asko. Begira, adibidez, garai bateko edo gaur egungo musika diskoen azalak. Edo, muturrera joanda, egunkariak, promozio moduan, ateratzen dituzten baxera kolezioak; Gorritiren margoekin egindako ontziak, Zumetaren margoekin platerak... Baina ez dut uste inongo muturrera joatea denik, bidelagun handiak baitira dena delako errepresentazio horiek, noizbait beste puntu batera iristeko; gure ganbara betez joateko, alegia. Loreak Mendingian arropa markak ere egin izan du saiakerarik gure begiak, zeharka bada ere, estetika zehatz batean hezteko. Euskal kulturatik elikatzen da beraien diseinu grafikoaren sorta handi bat, handik edo hemendik keinuak eginez (ezin ordea goraiatu egin berri duten azkena, Sabino Aranaren irudia baliatuz egindako hanka sartzea, nire ustez: 'Locals only' izenarekin ateratako kamisetak). Askok erosi eta sarritan soinean eramango dute Nestor Basterretxearen serigrafia bat, jakin barik irudikatu eta arropa marka horri eskaini ziola. Milaka izango ziren saldu ziren kamisetak, baina seguru sekula ez dela euskal artearen *souvenir* gisa saldu.

Edo alderantzizko norabidean ere bada bitxikeriarik, artearen bidetik eratortzen diren bestelako gertakari edo aurkikuntzak. Gogoan dut Arribera, Juan Gorritiren Batzarre baserrira, hurbildu ginenekoa. *Aralarte. Mailopearen magalean hegaletan* erakusketaren inaugurazioa zen ordukoa. *Aralarte* erakusketa kolektibo bat izan zen, 40 artisten lanak biltzen ziren erakusketan: Dora Salazar, Koldobika Jauregi, Remigio Mendiburu, Vicente Amezttoy, Nestor Basterretxea, Mikel Laboa, Mikel Urmeneta... Irekierako parte-hartzaileen kuota gaztetzea bailitzan gure asmoa, hantxe ginen gazteago eta zoroago. Esan beharra daukat erakusketa hartako irekiera festak iraun zuen gaualdi hartan ezagutu eta entzun nuela aurrenekoz *Maite zaitut* abestia, Juan Gorriti eta Peru Magdalenak inprobisaturiko bertsioan. Eta, esan gabe doa,

horrela hurbildu nintzela gure pailazo maitagarriengana. Artea jendartea iratzartzeko modua ere bada.

Edo kiribilari beste buelta bat emanda, txikitan, laurogeiko hamarkadan, hain zuzen, gogoan iltzatua geratu zitzaidan Gorritiren irudia Euskal Telebistako haurren saio batean. Itoizen garaia zen hura, eta musika hark lagundurik agertzen zitzaigun asteburuetan telebistako pantailan, gerora eskultore eta margolari gustuko bihurtu zaiguna. Ez dut gogoratzen oso ondo zer egiten ageri zen, ez artista moduan aurkezten zuten ere, baina entretenigarri soil bat baino gehiago izango zen, memorian geratu baitzait gaur arte. Oker ez banago, *Marraskil Boss eta Pantxineta* deitzen zen saio hura, eta, arakatu ahal izan dudanagatik, 1987koa zen Euskal Telebistak zuen saio ausart eta hezitzaile hura.

Iradokitzailea izan daiteke nondik hasten den artearenganako begiratua, interesa, zaletasuna edo hautematea.

Basterretxea, Oteiza eta Txillida

Hondarribiko Remigio Mendiburutik, Hondarribin bizi izan zen Nestor Basterretxeara. Pentsatu nahi dut iradokitzaile egingo zaiola bati baino gehiagori Basterretxearen *Bakearen usoa* eskultura ere. Are gehiago orain, tokiz aldatzea erabaki den honetan. Anoetako biribilgunetik Saguesera eramateak sortu duen gudaren erdian, bati baino gehiagori eman behar-ko lioke zer pentsatua bakeak. Saguesen, hondartzaren pareko pasealekuan, jartzen dutenean, pentsatu nahi dut edozein hiritarrek oroituko duela iaz hildako Nestor Basterretxea. Edo, gutxienez, zazpi metroko altuera duen *Bakearen usoa* ikustean, galdetu egingo dela «eta nor zen Basterretxea hura?»; edo iradokitzailea izan daitekeela «zer zen aldarrikatzen zuen bakea?». Eta zer da, etorriko bazaigu, etorriko zaigun bakea?

Artelan garaikide batek, normalean, dakarren abstrakzio maila baino apalagoa izatea nahi zuen Basterretxeak obra hori, eskultura horrek sinbolizatzen zuena ez zedin, bidean,

galdu. Zurriola pasealekuan jarri zen hasiera batean, eta, Kur-saal eraiki zenean, behin-behineko kokalekua eman zitzaion, Anoetako biribilgunera eramanez. Hogei urte beranduago, bere sorrerako kokalekura bueltatuko da, itsasoaren pare-ra: berorren sortzaileak nahi eta horrela diseinatu baitzuen.

Hemendik gutxira, beraz, Donostiako itsasertzak hiru euskal sortzaile plastiko lerrokatuko ditu: Eduardo Txillidaren *Haizearen orrazia* lanarekin Ondarretaren muturrean, Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa* Paseo Berrian eta Nestor Basterretxea *Bakearen usoa*-rekin Saguesen, Zurriolaren mutur batean.

Denborari toki bat ematea da eskultura, batez ere kalean, espazio publikoan erakusten direnean. Nire belaunaldiko askoren familiako argazki-album askotan agertuko den argazkia izan daiteke *Haizearen orrazia*, 1977an eginikoa. Horrela gogoratzen dut etxeko argazki-album zahar batean eskultura serie hori: aita-ama gazteak sortu berri den alabarekin besoetan, Donostiak une horretan zuen berrikuntza edo erakargarri turistiko onenaren aurrean.

Gerora etorri zen Oteizaren *Eraikuntza hutsa*, 2002an inauguratu zena Paseo Berrian. Oteizak esan zuen moduan, «el arte no es para los museos, el arte es para el hombre». Ziur eskultura hori ere egongo dela gazteagoak diren askoren etxeetako argazki-albumetan. Eta, zer esanik ez, hainbat turistaren bidaiako argazki bildumatan edo asteburu eguzkitsuetan *Eraikuntza hutsa*-n ateratako argazki-sorta itzela egongo da sare sozialetan. «Captura y comparte momentos con gente de todo el mundo», dio Instagramen leloak. Donostiako itsasoari begira ateratzen diren argazkiak arakatzuz gero, ziur luzea izango dela *Eraikuntza hutsa* agertzen den zerrenda; jakinda edo jakin barik Oteizarena dela herdoildutako burdinazko eskultura erraldoia. Esan bezala, denborari toki bat egiten diote antzeko artelanek, denbora betikitzen dute. Artelanen eskutik denbora entzun, ikusi eta kontatu egiten da; historia baten adierazpenak direlako. Denbora ikusteko modu bat litzateke eskultura, erakutsiko baligute.

Herdoildutako eskultura horrek, burdina hotz eta ia-ia ukitu industrialekoak, sortzailearen azken garapen faseaz hitz egiten digu, 50eko hamarkadatik aurrerako Oteiza da *Eraikuntza hutsa*, eta hortik joan beharko litzaziguke gogoeta Arantzazuko frisorra, adibidez. Horretarako trebatu beharko genituzke gure begiak eta ganbara arteko hari guztiak, gairiak, espazioak, sinboloak, gertaerak eta interpretazioak elkarrekin dantzan jartzeko. Hezkuntza estetikoa garatzea baitzuen helburu Oteizak, herri bati zuzendurikoa, baina batez ere haurtzarotik hasten den hezkuntza horri zuzendurikoa.

Arte-gertaeren kultura barneratzea eta interpretatzean sakontzea dagokigu, gizarteratzeko ahalmena galdu baitute arte plastikoek, ikusizko informazioa hain delako handia egungo gizartean. Sentikortasun ahalmena ere galtzen ari garela esaten da, komunikaziorako, pertzepziorako, pentsamenduaren adierazpenaren forma anitzak ere galdu direla bidean.

Baina zertan esku hartzen du arteak? Gizarteari beste mota bateko sentsibilitatea sortzeko izan beharko litzateke artea, artistek sortzen duten sentsibilitatea produktu sozial bat delako. Espazioarekin eta bolumenekin jokatzeko den esparru bat da eskulturarena, eta, Donostia bezalako hiri bat adibide hartzen badugu, egunero berorietaz inguraturik gaude. Istantean, eskulturen interpretazio eta errekreazioan parte-hartzera pasatzen da behatzailea.

Irudien atlasak

Artearen eta gure egunerokotasunaren artean dagoen distantzia laburtzeko, hainbat amuri heldu beharko genieke. Horrela sortzen da adibidez Donostiako Udaletik, 'Hiriko eskulturen atlasa', gaur egun San Telmo museoaren web atarian ageri dena. Hirian diren eskultura guztiak biltzen eta deskribatzen dituen gunea da. Gaur taldea osatu zuten Txillida, Oteiza eta Basterretxeak eta aurretik aipatu dugun Mendiburuk, denetan gazteena izan zen bera. Donostian,

Gros auzotik Askatasunaren Hiribidera doan zubia zeharkatu bezain laster, eraikin bateko fatxadan ageri den obra ikusgarria Remigio Mendibururena dela zehazten digu atlas horrek. *Erri txistu otza* du izena, hortxe, etxebizitzan leihoen artean ageri den bitxikeria horrek. Altzairuzko hodi handi batzuk dira, goiko etxebizitzetatik beheraka datozenak. Etxebizitza horietan gazte, zahar, nerabe, agure... denetariko biztanleak biziko dira, arropa zintzilikatzean artearekin topo egingo dutenak denak. Arte-gertaeren kultura transmititzean hutsuneak ditugu, sarritan ez baikara konturatzen etxeko sukalderraino sartzen zaigula artea. 🎨



Ekonomia

Henrike Galarza

Nazioarteko itun ekonomikoak

Azken bi mendeetako nazioartean, eta nazio garaikideak ez zirenean jaio izan ere bai, ohikoak ziren erakunde edota botere politiko-erlijiosoen arteko itunak: gerrak amaitu edo ekiditekoak, defentsa edo gerrarako aliantzetakoak, merkataritza bideak, lurrezko zein itsasokoak, partitu edo kontrolatzekoak... Denboraren poderioz, itun militar-ekonomikoak ugaltzen hasi ziren bloke kapitalistaren eta sobietarraren arteko norgehiagokaren ingurumarian. Honela, erraterako, joan den mendeko Afrika edo Asian sortutako herri berrien –kolonia ohiak– independentzia prozesuetan, bi potentzia militar-ekonomikoen laguntzaz gerra zibilak piztu ondoren, baliabide naturalen inguruko negoziaketak eta arma salmentak loturik zeuden, neokolonialismo goerari atea irekiz.

Bloke komunista desagertzean paradisu kapitalista erraz hedatuko zela pentsatu bazuten ere, bai Amerikako Estatu Batuek bai Europako Batasunak ‘erdi garatutako’ (ofizialki, ‘kapitalismorako trantsizioan dauden herriak’ izendapena erabiltzen da) herri komunista ohiak erakartzeko politika interesatu eta erasokorrak burutu dituzte, Jugoslavia edo Ukraina bezalako herrietan zegoen bizikidetzara ezin lagarriagoan apurtzeraino. Txetxenia, Kosovo eta hainbat lekutan gertatutakoa ahaztu gabe.

Oraingo honetan, AEBak eta EB itun berri bat negoziatzen ari dira, baina haien arteko aldebiko harreman ekonomikoak antolatzeko. Ez da lehenengo aldia antzekorik egiten saiatu direla. Multilateral Agreement on Investment (MAI), Ekonomia Lankidetzara eta Garapenerako Erakundeak (OCDE) bultzatutako ituna, 1998an bertan behera geratu ondoren,

nazioarteko protesta kanpaina indartsuaren artean, herri kapitalistak, beharbada BRICS herrien indar ekonomikoari aurre egiteko, bertze saiakera bat egiten ari dira. Funtsean, Amerikako Estatu Batuen eta Europako Batasunaren arteko harreman ekonomikoen gainean irizpide eta neurri neoliberalak ezartzeko nazioarteko itun legala dugu Atlantikoz gaindiko Merkataritza eta Inbertsioen Partzuergoaren egitasmoa (AMIP, ingelesez Transatlantic Trade and Investment Partnership, TTIP). Hiru helburu nagusi ditu: merkatuetan sartzea erraztea (muga-sariak, zerbitzuak eta administrazio publikoek egiten dituzten erosketak), arauen harmonizazioa (horizontala eta adar ekonomiko zehatzena) eta, azkena baina ez garrantzi gutxienekoa, ingurumen edota lan legediak bezalako auzietan erabaki zehatz eta komunak hartzeko prozedura.

Merkatu askearen bertsioak

Aldekoen argudioetan, nazioarteko salerosketen sinplifikazio tekniko eta juridikoak azpimarratzen dituzte, bertzeak bertze, automobilgintza, farmazia edota nekazaritzan diharduten enpresa txiki eta ertainen abantailarako. Gaur egungo egoeran, diotenez, bi alderdietako esportazioen gaineko batez bertzeko muga-saria %4 bada ere, adar ekonomiko berberean –medikuntzarako tresnagintza, adibidez– desberdintasun nabariak gertatzen omen dira, alde bat edo bertzeko enpresen esportazioen kalterako. Era berean, administrazio publiko zenbaitek lan eta zerbitzuen eskaintzatan hurbileko enpresak hobesteko erabiltzen dituzten arauak ez dituzte gustuko, lehia ekonomikorako hesiak direlakoan. Aldeko iritzietan, bertzalde, ez dute enpresa transnazionalen jarduera espresuki aipatzen, aitortutako asmoa baita prozedura burokratiakoak (*red tape*) gutxitu edo erabat ezabatzea, eta ez esparru pribatuko jarduera ekonomikoak kontrolatzea. Edonola ere, AEBen eta EBren arteko ondasun eta zerbitzuetako salerosketak eguneko bi mila milioi euro baino gehiago direnez –eta

akordioa lortzean nahikoa haziko direla diote-, lor litekeen itunak eragin sozioekonomiko nabarmenak izanen dituelakoan gaude. Horregatik, hain zuzen, negoziaketen inguruko polemika piztu da, gai batzuetan ez delako inolako argibide publikorik jaso. Defizit demokratikoaren kritikari erantzunez, jendarte zibileko elkarte askorekin saio publikoak egiten ari dira negoziatzaileak, gardentasuna ziurtatzeko asmoz. Dagoeneko zortzigarren negoziaketa-txanda burutu badute ere, ez du ematen funtsezko ezer lortu denik, ohiko borondate oneko hitz hutsalak errepikatzetik gertu.

Horrelako negoziaketetan gertatu ohi den moduan, itunaren balizko ondorioak zehaztu eta kuantifikatzen dituzten hamaika txosten argitaratu dira, eta argitaratzen ari dira, emaitza ezberdin bezain kontrajarriekin. Gure ustez, goizegi da horrelako xehetasunetan sartzeko, baina, lehen aipatutako MAI gogoan, gaizki pentsatzeko arrazoiak daudela ia ziur gaude. Izan ere, azken hamarkadan zehar AEBetako dolarra euroarekiko arras merkatu bada ere, EBrekiko merkataritza defizita dute AEBek, potentzia ekonomikoaren ahuleziaren adierazle ote? Orain, euroa denean dibisa merkatuetan balioa galtzen ari dena, lehiakortasunaren galeraren beldur egon daitezke AEBetako arduradun politiko zein ekonomikoak. Itun horren bitartez galerak gutxituko dituztela pentsa dezakete, epe motz eta ertainean, bederen.

Bertzelaz, desarautze eta askatze ekonomikoen aldeko iritziek ez dituzte aukera berrien alderdi ezkutua kontuan hartzen. Gaur egungo legedien sorrera eta zio historikoak di-da ahazteko prest daude merkatu askearen fededun porrokatu horiek. Gogorarazi behar zaie haien ikuspegitik hain absurdoak diren arau, baldintza eta legedi horiek ez direla zerutik erori. Merkatu nazional bakoitzaren barneko indar sozialen arteko erlazioaren araberrako garapen ekonomiko-legalaren zati bat dira. Batzuetan bertzetan baino justu edo okerragoak, bai, baina beti biztanle, enpresa eta erakunde ofizial nazionalen artean adostutakoak. Gainera, EBren barruko merkatu bakarretik nahikoa urrun gauden honetan, batez

bertzeko enpresa ertain eta txiki europarra eta AEBetako maila berean jartzea susmagarria da, merkatu erraldoi bategan aritzeko gaitasun ezberdinak ikusirik.

Laburki erranda, AMIP indar inperialista nagusien arteko ekimena dugu, 21. mendeko mundu mailako larriagotutako lehia kapitalistaren ingurumarian, estatu kapitalista eta enpresa transnazional ‘zaharren’ botere eta nagusitasun ekonomikoen defentsan egindakoa.

Pornografia

Informazioa salgaia bilakatzen denean, eta hala gertatzen ari da, edozein hedabidetan, salbuespenak salbuespen, ia edozer ikusteko prest egon behar dugu. Bartzelonatik Düsseldorf hirira abiatutako hegazkinaren istripuarena, zorigaitzekoa izateaz gain, senide eta hurkoentzat bereziki, nardagarria izan da hedabide gehienetan emandako ‘informazioa.’ *Charlie Hebdo* aldizkari satirikoaren egoitzan izandako hilketen ondoren gertatutakoa txiki utzi du hegazkin-istripuaren inguruko zabor mediatikoak. Espainiar kate publiko batean «Los familiares están destrozados» testua agertzen ari zen bitartean, kate pribatu baten irudietan ‘kazetariak’ pertsona batzuen atzean korrika ari ziren, istripuan hildako baten senideak zirelakoan... Ikusleria –zentzu txarrean– handienaren lasterketa eroan, denak balio omen du. Beharbada inkesta politikoetarako onak direlako hileta ospakizun eta dolu irudiak, Merkel, Rajoy eta Hollande jaun-andreak istripua gertatu zen lekura hurbildu ziren, bildu ziren kamera ugariren aurrean zorigaitzetik ikuskizunaren etekinak lotsagabeki ateratzen. Ez dira agertu, ez, egunoro munduan hiltzen diren 20 mila haurren etxeetatik, eta ez diete guraso eta senideei inolako laguntza psikologikorik eskaini, beharbada leku horietan kamerarik ez dago eta.

Sentimendu pertsonalen erabilera komertziala omen da egoera postmodernoren ikur nagusietako bat. Telezaborra

hedatzen hasi denetik, joan den mendeko laurogeiko hamar-kadan, politikariak urrun egon dira, duela gutxi arte. Orain, aldiz, marra zeharkatu dute, eta ondorioak oso arriskutsuak izan daitezke. Norbanakoaren egoera pertsonala soilki sentimendu pertsonalen arabera epaitzea omen da autolaguntza psikologiko kontserbadorearen leloa. Pertsonen izaera soziala albo batean uztean, gutxiesten ez dutenean, pentsalari *neocón* horiek klase borrokarik ez dagoela diote, afera guztiak maila pertsonalera murriztuz. Ondorioz, aje eta gertakizun latzen aurrean, banakako ekimenak bultzatzen dira, merkatu kapitalista jendearengana formula magikoak etengabe bideratzen ari den aldi berean. Pixkanaka-pixkanaka areagotzen ari den isolamendu pertsonalaren uhina kontsumismo eurozentristaren oinarri psikologiko-filosofikoa dela otu zaigu, berezko sentimenduen eraginak, positibo eta negatiboak, salerosketa bihurtzen dituen.

Desjabetze hilgarriak

Brusela edo Washington hirietako areto dotoretatik urrun, oso urrun, Iruñeko Arrotxapeako auzoko batek bere buruaz bertze egin zuen, antza, arazo finantzarioek itota. Ez da lehen biktima izan. Antzeko kasuetan bezala, zuhurtziaz mintzatu behar dugu. Pertsona bakoitzaren barruan gerta daitekeenari antzematea ez da kontu erraza, are gutxiago berak ezin duenean hitz egin. Orduan, hurbilketa umila egitearekin konformatu beharko. Idatzi gabeko arau bat dago, zeinak bizi izateko etxebizitza bat erosi behar dela dioen. Europa aberatsean alogera aukera garrantzitsua den bitartean, Estatu espainoan jabetza da nagusi. Burbuila puztu baino lehenagoko egoeran, garestiak ziren etxebizitzak, eta hipoteka-maileguak emateko bankuek jartzen zituzten baldintzak nahikoa gogorak ziren, garai haietako finantza legeak bezala. Ondorioz, asko eta asko pentsatu ondoren bizitza osorako etxebizitza bat erostea erabakitzen zuen familiak bazekien zertan ari zen

sartzen. Langabezia eta dibortziorik gabeko jendarte horretan, inbertsio hori egiteko irizpideak argiak ziren. Burbuila garaietan, ostera, espekulazio mozkorraldiaren erdian, batez bertzeko langile familia irentsi zuen desaraututako merkatu berriak. Ikusten ari garen emaitza ikaragarriekin.

Etxebizitza duina izateko eskubidea ezin da zalantzan jarri. Kontua da etxebizitza salgaia dela, eta jabetza edo alokatzearen truk merkatu-salneurria ordaindu behar dela. Izandako burbuilaren ondorengo egoera larrian, aberastasunaren, ez soilki diru sarreren, birbanaketa erraldoia burutzen ari da. Hori gogoan, krisialdi egoerari aurre egiteko erreforma ausarta beharrezkoa delakoan gaude, dauden etxebizitzaren banaketa hasiko duena, beti ere irizpide garden eta justuen bitartez. Orain, familia batek galtzen duen etxebizitza arazo da bankuarentzat, merkatu salneurriak jaitzaraziz. Baina langabezia eta soldata miserableen poderioz, merkatze horrek bakar-bakarrik inbertsio-funts eta banakako fortuneen alde jo du. Gainera, asaldagarria da etxebizitza hutsik izatea etxebizitzaren bat behar duten une eta leku berean. Administrazio publikoak, tokiko erakundeek hobe, esku sartu beharko lukete, larrialdietan egiten duen moduan behintzat. Beranduegi da izandako hildakoentzat, baina garaiz gabiltza, beti, gauzak behar den moduan egiten hasteko. 🌀



Mapak

Bilboko Uribarri auzoan orain dela gutxi ibili dira hango taberna, denda, gune eta abarrak mapa batera ekartzen, mapatzen, alegia. Guk ere aspalditik erabiltzen ditugu betaurreko soziolinguistikoak geografiari begiratzeko. Aspalditik ikusten ditugu mapak hizkuntza gaitasun edota erabilera adierazten duten koloreekin. Aspalditik.

Orain dela gutxi, Nafarroako mapa soziolinguistikoa aurkeztu dute. Uemak ere udalerrri euskaldunen gaineko azterketa sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa kaleratu du. Eta han eta hemen ziur naiz bestelako datu makrokuantitatiboak plazaratu direla azken aste eta hilabeteotan. Euskal makrosoziolinguistikaren makina elikatzeke beste datu mordo bat (eta, bide batez, iritzi eta analisi mordoak paperezko eta sareko komunikabideetan).

Mapa soziolinguistiko eta inkesta soziolinguistiko bartzuk baditugu dagoeneko. Bakoitzetik bost, hain zuzen ere. 1986tik hona makina bat datu makro ditugu txukun-txukun jasoak eta alderaketak egiteko moduan. Ikerketa eta mapa horien fidagarritasuna zalantzan jarri barik (eta jar daitezke, baina hori agian beste batean), beti etorri zait galdera bat burura honakoak plazaratzen direnean: niri zer axola dit Derion euskaldunak %29 edo %33 izateak inkesta horien arabera? Egunerokoan zertarako balio didate datu horiek? Errealitateari antzemateko gako gehiago jasoko dut horrela?

Datu makrosoziolinguistiko (eta kuantitatibo) horiek guztiek joerak marrazten edo zirriborratzen dituzte, baina aldatzeko palanka gutxi ematen dizkigutelakoan nago. Izan ere, diagnostikotik harago joan ahal izateko, bestelako gauza

batzuei egin behar diegu kasu, nik uste. Betaurrekoak bai, baina baita mikroskopia ere.

Interpretazio egokia(k) egiteko, datu makrokuantitatibo horiek hurbilpen mikrokuantitatiboetatik erauzitako informazioarekin osatu beharko genituzke. Eta, horrela, Derioko euskaldunen ezagutza datuak bere horretan beste esangura bat izan ahalko luke eta jendartean aldaketak egiteko gakoak eman. Miren Artetxek ere aldarrikatu du makrotik mikrora egin behar dugula bidea Topaguneak 2015ean antolatutako Topaldian. Makrotik mikrora.

Datu makro asko ditugu, baina mikroak ere izan baditugu. Hiznet graduondokoaren ikerlanen gordailua benetako harribitxia eta altxorra da. Urtetik urtera ikerketa-corpus oso esanguratsua jarri dute Hiznetekoek denon eskura. Euskal soziolinguistikaren poliedroa osatzeko ezinbesteko piezak. Ia 150 ikerketa. Mila prismatik gure errealitatearen azterketa betaurreko soziolinguistikoekin.

Baina ikerketa eta azterketa horiek, makroak ez bezala, ez dute komunikabideen arretarik jasotzen, ez dute iritzi-emaileen erretorika elikatzen, ez dute Interneteko trollen sumina merezi. Eta, agian, ikerketa kualitatibo horietako batzuek soziolinguistika aplikatua gabiltzanon ikusmina eta jakin-mina bultzatzen dute. Edo agian ez.

Mugarria

Hizneteko ikerketa horien guztien izenburuak irakurtzen dituen batek zailtasun latzak izango lituzke soziolinguistika zer izan daitekeen definitzeko. Izan ere, zer ote da soziolinguistika?

Iratiko oihana soiltzeko beste paper erabil daiteke soziolinguistika zer den zedarritzeko. Haren mugak tolesak dira erabat, eta ez dago jakingaiaren barrunbeak zehatz finkatuko dituen teoria orokor eta onarturik. Eta, gainera, ematen du bolada batean behintzat ez dela egongo. Eta, agian, horrek egiten du erakargarri(ago) kontzeptu mugaezin hori.

Diziplinarteko diziplina da, ertz, zoko eta bazter askotakoa eta askotarikoa. Soziologiatik, jendarte psikologiatik, zuzenbidedetik, antropologiatik, komunikaziotik, politikatik, enpresagintzatik eta abarretik edaten du, mila erpineko aurpegia izan arte. Baina ez gaitezen eztabaida sasi-akademikoetan gal, mesedez, antzua baita horren gainean garesti dugun denbora xahutzea.

Orain arte gurean diziplina horren ingurumarian ikuspegi soziologikoa izan da nagusi. Hor ditugu Jose Maria Sanchez Carrion, Xabier Erize, Jose Luis Alvarez Enparantza, Iñaki Martinez de Luna, Mikel Zalbide eta abarrek egindako ikerketak eta interbentziorako ekarpen baliotsuak. Soziolinguistikaren aniztasunetik beti ere, baina soziologiara lerratuak nolabait.

Azken urteotan, ordea, gero eta gehiago dira antropologiara nola edo hala lerratzen ari diren ikerketak. Jone Miren Hernandez edo Miren Artetxeren lanak, kasurako. Baina, gaurkoan, Paula Kasaresek egindako doktore tesia hartu nahi dut hizpide: *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunetz belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan.*

(Ez al da deigarria gizonezkoek, oro har, gehiago jotzea soziologiara eta emakumezkoek, oro har, antropologiara? Antropologia eta soziologia ikasten ari direnen artean horrelako banaketarik al dago? Akaso antropologia feministak gurean eragin handiagoa du soziologia feministak baino? Eta, hala bada, zergatik?)

Nire ustez, Paula Kasaresek euskal (eta hizkuntza gutxituen) soziolinguistikaren soropilean mugarri bat ezarri du. Orain arte ia oharkabean erabiltzen genituen kontzeptu asko zalan-tzan jarri, irauli eta haien geroko erabilgarritasuna kolokan jarri du. Begiratu ditzagun horiek banaka-banaka eta txiri-txiri.

Kontzeptuak irauli

Hizkuntzaren jarraipena eta ordezkapena (edo Paulak tesian lantzean behin erabiltzen dituen iraupena eta iraungipena)

zeren baitan dago? Orain arte, asko egin da berba determinismoaz (determinismoa aipatu barik, jakina). Ba, haren ustez, iraupenaren oinarrian hiztunon hautu-erabakiak baino ez daude. Iraupena (eta, beraz, ordezkapena) hizkuntza hautaketa kolektiboaren epe luzeko emaitza besterik ez da.

Hori dela eta, haren ustez transmisio kontzeptuak ez digu balio gaur eta hemen. Izan ere, ezin da esplikatu euskararen iraupena eta iraungipena goitik beherako harremanen bidez bakarrik. Horregatik, transmisioa baino sozializazioaren inguruan ondu du bere ikerketa.

Eta zer da sozializazioa? «Haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da». Beraz, sozializazioa ez da haurtzarora mugatzen. Ez da jendarteak ezarri eta bakoitzak pasiboki jasotzen duena. Norberaren nahiak eta ekimenak ere zerikusia dute.

Horrez gain, sozializazioan haurren rola ez da pasiboa (transmisioaren ikerketa eta interbentzio askotan bezala). Aktiboa da eta gurasoen sozializatzaile ere izan daitezke. Ahaztu barik adinkideen arteko elkarreraginek duten garrantzia.

Azkenik, sozializazioa ez da etxera edo familia mugatzen. Eskolak, adin berekoen taldeek, hedabideek, hurbileko komunitateak, herri giroak eta abarrek zerikusia dute sozializazioan eta euskararen iraupenean.

Ikerketak beste kontzeptu asko jarri ditu amildegia eretzean. Adibidez, euskaldun eta erdaldunen arteko dikotomia. Gero eta zailagoa da gurean hiztunen tipologia bereiztea: *continuum* bat da hizkuntzari lotutako gaitasuna. Era berean, euskaldun berri eta euskaldun zaharren arteko dikotomiak ere ezbaian jarri ditu. Izan ere, hiztunok bizialdian zehar hizkuntzak ahaztu, galdu, berrikasi edo berreskuratu egiten ditugu, gero eta gehiago.

Horrez gain, Paularen iritziz hiztun bilakatzeko prozesua ezin da ingurune soziolinguistikotik bereizi. Paulak frogatu du Iruñean euskara atxikitzekeo hiztunen guraria ezinbestekoa

dela. Hau da, euskara ikasi arren (etxean edota eskolan), hiztunak ez baditu bilatzen erabilerarako guneak, atxikitzeko zailtasun handiak izango ditu delako hiztun horrek.

Ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntza kontzeptuak ere ez-baia jartzen ditu Paulak. Baina, kasu honetan, bere hitzekin adieraziko ditut kontzeptu horri berak ikusten dizkion eragozpenak:

Hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremana sortzez ezarririk ez badago, hiztunak mintzairarekin duen lotura egunerokoa eratzen eta berreratzen ahal badu eta bere mintzaira gaitasuna, atxikimendua, ideiak eta hautuak bizitza aurrera joan ahala motibazio, harreman sare, gizarte aukera nahiz bertze aldagairen baten aldaketarekin batera alda badaitezke, orduan ama hizkuntza kontzeptuak, euskal soziolinguistikaren harroinetako bat izan denak, zertarako balio digu?

Beraz,

Ama edo lehen hizkuntza izateak ez dakar *per se* mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere edo hiztunak seme-alabekin solasteko hautatuko lukeena izatea. Ama hizkuntza ez da kontzeptu zehatza, ez eta eragingarria ere hiztunen bilakabidea aztertzeko.

Beste alde batetik, Pello Jauregik behin baino gehiagotan ikertu du hizkuntza bat hautatzeko talde naturalek duten eragina. Paula Kasaresek ere leku beretik jo du. Izan ere, bere ikerketan, gaztaroan euskara (berr)eskuratzeari ekindako gehienek adinkideen laguntza azpimarratzen dute. Euskaraz aritzen hasteko bultzatzaileak haurrideak, adiskideak, kirol taldekideak, bikotekidea... izan dira.

Eta Pello Jauregiren ikerketen harira, bereziki gomendatzeko modukoak dira hizkuntza ohiturak aldatzeari buruz egindakoak (zenbaki hau argitaratu orduko Aldahitz ikerketa-interbentzioaren inguruko liburua kalean egongo da). Ondorio guztiak ez ditugu oraingoan aipatuko. Luze joko luke. Baina horien artean bat bai: hizkuntza gaitasun mugatua ez da hizkuntza erabiltzeko oztopo.

Paula Kasaresek ere ondorio bera plazaratu du bere tesian. Bere berbetan esanda, «hizkuntzan ondo moldatzea euskaraz bizi izateko aldez aurreko baldintzatzat baino gehiago euskaraz bizi izatearen ondoriotako agertzen da».

Amaitzeko, ikerketaren elementu deigarri bati egin nahi diot leku. Paula Kasaresen arabera, hurrek hizkuntzaren jendarte egoerarekin bereziki eraginberak dirudite. Hau da, hizkuntza batek familiatik kanpo, inguruneko jendarte harremanetan «zenbat eta indar handiagoa izan, orduan eta eragin-garritasun handiagoz jokatzten dute hurrek hizkuntza nagusia etxera eraman eta familiaren elkarrekintzetan sartzeko».

Beste hainbat gauza aipatuko nuke tesi horren inguruan. Baina ez dago lekurik. Hala ere, iruditzen zait hurrengo urteotan tesi horrek ondutakoei eta azaleratutakoei kasu handia egin beharko diegula, gure etorkizunarekin eta orainarekin kezkatuta gaudenok behinik behin. 📖



Euskara eta teknologia uztartzen dituzten bederatzi proposamen eta ohar bat

Jende gehiena ados dago teknologiak duen garrantziaz, baita hizkuntzen bizirauteko ere. Hori horrela izanik ere, gutxi dira hori sustatzeko hartzen diren erabakiak. Hartzen direnean ere, eragin murriztekoak dira edota itxiak, etorkizunari atea ixten dizkietenak.

Euskarak, etorkizuna izateko, teknologiaren eta hizkuntzen inguruan erabaki sendoak behar ditu. Sendoak bezala, baita irekiak ere, horrela bakarrik ziurtatuko baitu etorkizuna. Hiztun gutxiko hizkuntza batean, erabilera eta berrerabilerak ez sustatzea hizkuntzaren etorkizuna zalantzan jartzea da. Hurrengo lerroetan, hiru ataletan banaturik, teknologia eta euskara uztartzen dituzten bederatzi proposamen labur.

Ahalduntzea

Teknologiaren ezagutzaz gain, horrek ematen dituen aukerak eta euskararekiko inplikazioak ulertzeko proposamenak.

Teknologia berrikuntza eta esperimendazioa euskararekin lotu. Laborategi teknologikoak edota Kzguneak bezalako azpiegituretan euskara berrikuntza eta esperimendazioarekin lotzea lortu behar dugu. Bereziki gazteek, baina baita beste adinetako jendeak ere, era naturalean leku horiek euskararen erabilerarekin lotzea garrantzitsua da. Horretarako, euskara hegemonikoa izango den guneak sortu beharko dira arlo honetan, gai hauek plano soziologikotik aztertuko dituen ikerketa gune batetik hasita, Katalunian egin bezala.

Hezkuntza berrikuntza. Berebiziko garrantzia dauka hezkuntza alorrean euskara teknologia berrikuntzari lotutako diskurtso batekin lerratzea. Ez teknologiaren erabilera soilagatik, baizik eta ezagutzara sartzeko ematen dituen aukerengatik. Arlo honetan, programazioa, beste zientziek duten trataera izatea oso garrantzitsua da. Ez gazteekin bakarrik, baina gazteekin hasierako mailetatik hasita.

Bizi osorako formazioa euskaraz. Eredu itxien aurrean, eredu irekiago batzuen aldeko apustua ere egin beharko litzateke. Egindako lana gutxi izanik ere, ahalik eta jende gehienarengana iristeko helburu argiarekin. Helburu hori lortzeko, argi dago online irakaskuntzak bere formatu ezberdinetan erabateko garrantzia hartzen duela. Garrantzitsua litzateke, beraz, lan honetan jada ari diren erakundeen artean kolaborazio estrategikoak garatzea, egitura publiko-pribatu-sozial berriak sortuz hala behar balitz.

Erabilera

Erabilera sustatzeko teknologiaren alorrean garrantzitsuak izan daitezkeen zenbait ideia eta proposamen.

Mugikorrek eduki kontsumorako gailu bihurtu. Gailu mugikor, eramangarri eta jantzigarriak dira eta izango dira, etorkizuneko eduki euskarri baino, kontsumorako bide nagusia. Gailu horietan kontsumituak izateko eduki eta aplikazio berezituak lantzea, beraz, estrategikoa da. Sakelako, eskuko eta eramangarriak diren gailuetarako espezifikoki sortutako edukietan arreta jarri behar da eta sustatu.

Ikus-entzunezko edukien garrantzia. Edukiei begira, ikus-entzunezko edukiak euskaraz izatea behar-beharrezkoa da. Ez bere formatu handietan (horiek ere), baizik eta aipatutako gailu mugikorretan adibidez kontsumituko diren formatuetan ere. Horretarako oso garrantzitsua da eduki sortzaile izan behar dutenak laguntzea. Dauden zentro (Andoain), unibertsitate (MU, UPV/EHU), espazio (Tabakalera, Alhondiga) eta

sortzaile taldeekin harreman estua izatea behar-beharrezkoa izango da horretarako.

Zerbitzu global erabilieneen kontrol gunea. Asko erabiltzen diren zenbait zerbitzu globaletan (Google, Twitter, Facebook...) euskarazko bertsioa bermatu eta zuzeneko harremanak landuko dituen ekinbide bat osatu beharko litzateke. Komunikazio kanal soil bat izatetik haratago, bertako enpresa eta erakundeekin harreman etengabea eta kolaborazio proaktiboan lanean jardun beharko duena, hain zuzen ere.

Elikatzea

Etorkizunean ere, teknologietan euskarak garapena izaten jarraitzeko proposamenak.

Euskaraz arlo teknologikoan lanean ari diren komunitateak indartu. Euskaraz era naturalean sortu eta lanean ari diren komunitateei beharrezko sostengua eskaini behar zaie. Batzuetan errekonozimendua, beste batzuetan baliabideak, beharbada sostengu ekonomikoa ere, baina lanketa bat egin behar da horiekin guztiekin. Softwarea itzultzen duten taldeak, itzulpengintza boluntarioan ari direnak, azpitoluak sortzen dituztenak, edukia sortzen duten komunitateak, softwarearen munduan euskarazko ekimenak aurrera ateratzen dituztenak...

Software librea, apustu estrategikoa eta atzeraezina. Software librea da euskarazko softwarea izateko apusturik hobena. Inbertsioen errentagarritasuna ziurtatzen du, baina baita komertzialki errentagarriak ez diren lekuetara iristeko gaitasuna ere. Atzeraezina da, beraz, ekinbide publikoek software librearen aldeko apustu garbia egitea eta arlo ekonomikoa ere horrekin lotutako bertako enpresa, elkarte eta norbanakoekin harremanak estutzea. Oso garrantzitsua da aurreko legegintzaldietan abiatutako zenbait proiektu indartu eta horietan euskararen lan lerroa txertatzea.

Berrikuntza teknologikoetan eta etorkizuneko teknologia estrategikoetan euskararen presentzia bermatu. Berrikuntza

teknologikoa eta etorkizuneko zenbait teknologia estratergiko definitu ondoren, horietan euskararen presentzia bermatu beharko litzateke. Hizkuntzarekin berarekin lotutako teknologiak –hizkuntzaren prozesamendurako teknologiak, adimen artifiziala, ahots teknologiak...– eta sektore ekonomiko estratergikoekin lotutakoak –garraioa, ingurumena, osasuna, hezkuntza, industria, ikerketa...– euskaraz egotea bermatu beharko litzateke, eta horretarako mota guztietako beharrezko laguntzak eman.

Sentsoreak esku artean

Sakelakoetan dugun teknologiak sentsoreez josi du gure bizitza. Ia konturatu gabe, egunero soinean ditugu pentsatzen ditugunak baino sentsore gehiago. Zein dira? Zer neurtzen dute? Zertarako balio digute? Bizitza aldatzen ari zaizkigun teknologia zati txiki hauek ulertu behar ditugu, gure osasunean ere eragina dutelako eta oraindik gehiago izango dutelako.

Sakelako telefono guztiek ez, baina berriek sentsore asko dituzte bere baitan. Telefono hauek, normalean Android edo iOS sistema eragilearekin batera, sentsore horiek erabiltzen dituzten aplikazioak ere badakartzate. Batzuetan aplikazio berezituak izan ohi dira, sentsore horiek baliatzeko pentsatuak, baina beste askotan sentsore horiek emandako informazioa esperientzia hobetzeko erabil dezakete bakarrik.

Azelerometroa, adibidez, gure mugikorraren posizio eta mugimendua neurtzeko balio duen sentsorea da. Hiru koordenatu errepresentatzen dituzte hodi batzuetan zehar, bola txiki baten mugimenduak aztertuz; dispositiboak une horretan duen posizioa kalkulatu du. Antzeko funtzioa baina zehatzagoa ematen duen giroskopia ere aurki dezakegu gehienetan. Sentsore horrek zehaztasun handiz gailuaren posizioa neurtzeko balio digu, aldaketa detektatzeko gaitasun handia baitu.

Magnetometroa, aldiz, energia magnetikoa neurtzeko balioko duen sentsorea da. Horri esker, aplikazioek iparrorratz moduan funtziona dezakete, edota tapa magnetiko bereziak erabiltzen dituztenek telefonoa eseki.

Argia eta gertutasuna kontuan hartzen dituzten sentsoreak ere badaude. Argi sentsoreak argia detektatu eta gailuak interpretatu dezakeen forma batean itzultzen du. Horri esker, sakelakoaren pantailaren argia automatikoki egoki dezake, adibidez. Gertutasun sentsoreak, aldiz, argi infragorriak baliatuz, gertutasunaz jabetzen dira. Horrela, mugikorreko dei bat egiten ari garenean, adibidez, argi izpi infragorriak, gure belarriarekin talka egitean, pantaila itzaltzen digu.

GPSari esker, gailu horiek geokokatze gaitasuna eraman dute gure poltsikoetara. Asko dira teknologia hori erabiltzen duten gailuak; gutxiago dira, aldiz, sentsore barometriko bat dutenak. Horri esker, presio atmosferikoa kalkulatzeko gain, geokokapen zehatzagoa lortzeko aukera ematen digu.

Horiek batzuk, baina gero eta gehiago dira sakelako gailuetan ez ezik jantzigarriak (*wearable*) diren gailuetan ere askotariko gauzak neurtzen dituzten sentsoreak: tenperatura, hezetasuna, taupadak, hatz markak... Gero aplikazioek datu horiek interpretatu eta osasun egoera, gastatutako kaloriak, stress maila, lo kalitatea... emateko gai dira.

Nonbait bihurtu badira garrantzitsu teknologia horiek, osasunaren alorrean izan da. Horiei esker, gero eta gauza gehiago azter daitezke, kostu txikiago batekin. Horiei lotuta, gaixotasunak detektatzeko biosentsoreak, gaixo diabetikoen intsulina beharrak orekatzeko tresnak edota bihotzekoak aurrez detektatzeko aukera ematen duten teknologiak garrantzen ari dira.

Hala ere, ez dira teknologikoki oso aurreratuak diren sentsoreak behar askotan. Aipatutako sentsore batzuen konbinazioarekin, gauza asko lor daitezke. Zenbait tokitan hauxe gertatu da, eskuratzen zailak ziren sentsoreak orokortzean, horien erabilera irudimentsuari esker, lehen ia ezinezko ziren gauzak egin daitezkeela orain.

Afrikan, adibidez, sakelako telefono horiek dituzten aukerek eta aplikazio egokiek asko lagundu dezakete osasun publikorik ez dagoen tokietan. Harrigarria izan badaiteke ere, gosea eta osasun arazo larriak dauden tokietan ere, oinarrizko azpiegiturarik gabekoetan, mugikorrek daude. Telefonía finkoa edota ordenagailuak iritsi ez diren tokira iritsi dira sakelakoak. Zentzu komuna erabat apurtzen duen logika baten baitan, ura lortzeko oinez kilometroak egin behar diren tokietan ere teknologia egon daiteke.

Testuinguru horretan, horrelako sakelako bat estetoskopia, termometro, tentsio neurgailu eta kasurik hoberenetan laborategi txiki bat ere bihur daiteke. Horri guztiari profesionalekin harremanetan jartzeko aukera gehitzen badiogu, orain arte inbertsio handia behar zuten ekimenak erabat egingarri bihur daitezke.

Teknologiak ez ditu arazo guztiak konponduko, denok ulertzen dugu soluzioak sistemikoak direla, bereziki Afrikan; baina badira teknologiaren erabilpen zehatz batzuk, egoki aplikatuta, arlo honetan ere onura handiak ekar ditzaketenak. 🌐

Kontrapasa behelainoan edo Ismael Larrearen zain

zugaz/ (©ASISKO)
art

Izpegiko gaina. Noizbait.

GUSTUAN, GIZON!
EZ DUK BERANT SOBERA.


BADAKIK, MUGA, KONTROLAK...
ZERNAHI USTEGABE BADUK
GURE HERRI HUNTAN...

...ETA BEHELAINO
ASTAPITO HAU!



KANPORAT JALGI ZUAN
ETA, LELORI BAI LELO,
URTEAK JOAN DITUK...

HIK BADAKIK,
ARRAJITEA EZ BAITA
AISA IZAITEN...



OHART HADI,
ENEKILAN HITZORDUA FINKA,
ETA EZ ZENA 400 URTE
BERANTAGO HELDU?
KOR! KOR!...

BI ARNOKO BOTIGA ZIKINA!...
EZ DEA BADA
HAU ERE HUSTU?!



HIRI EZ DAUAT ESKEINI,
EZ BAITUKEK SAGARNOTIK TIRATZEN
HAIN SEGUR ERE!

BELA BALTZEKIN EZ,
HORRAITINO!

IGURIKITZEA
LABURTZEN
DIK ALTA...



Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

